



"Garaipena gailurrarekin lotzen da; gainontzekoa, porrotarekin"

Alberto Iñurrategi | Mendizalea | 27

Ilargi aldaketak lehen perretxikoak ekarri zituen Aramaioko feriarra | 12



Xarma indartsu eta zuzen aurkezpen-kontzertuan | 30



Ford Mugarrik irabazi zuen Debagoieneko eskubaloi derbia | 24



Trikitiak hamaika ezkongai ditu munduan

Aste bukaeran aurkeztu ditu, Oñatin egindako nazioarteko jaialdian | 29

Egitarau zabala izan da zapatu eta domekan; argazkiko kalejira, horien artean. | JOSETXO ARANTZABAL

Permuta sinatuta ikusteko aukera asko dituen ikasturtea hasi du UNEDek

- ▶ Barikuan egin zituzten irekiera ekitaldia eta diploma banaketa
- ▶ Permuta gertuago orain; alde daude patronatuko kide denak | 4

Maroko garatzen lan egingo du Alecop-ek

Automobilgintza parke berri bat kudeatzeko kontratua eman dio Gobernuak 10 urterako | 2

Oñati edo Bergara, atez atekora batzen hurrengoak

Urte eta erdi beharko da horretarako, Epelen eraikiko den konpostajerako gunea bukatu arte | 5

URRIKO SARIAK

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!



ETA ZURETAKO BADIRA?

▶ ZOAZ 3. ORRIALDERA

Maroko garatzen lan egingo du Alecop-ek 10 urtean

- ▶ Marokoko gobernuak automobilgintza parke berri bat kudeatzeko kontratua eman dio
- ▶ Parkeko langileei formazio integrala emango die Mondragon Korporazioko kooperatibak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Debagoieneko enpresak mundura zabaltzen jarraitzen dute, martxa onean. Horretan, mugarri aipagarria ipini du Mondragon Korporazioko Alecop kooperatibak. Izan ere, abuztuan, Marokoko gobernuarekin kontratu garrantzitsu bat lortu zuen, beste herrialde batzuetako eskaintzaileei gailenduta: hain zuzen, Kenitra hirian egongo den automobilgintza industria-parkea kudeatuko du eta hango langile eta ikasleei formazio integrala emango die.

Alecop kooperatibak bere historian lortutako kontratu garrantzitsuena da, eta bere ibilbidean beste aro bat irekitzen du; izan ere, orain arte ikasi dituen trebeziak batera ipini beharko ditu proiektua aurrera eramateko.

Kontratua Mondragon Korporazioak lideratutako kontsorzio batek lortu du. Proiektu integral horren barruan, Mondragonek bazkide gisa ditu Zaragozako Merkatariza Ganbara eta parke horren promotorea, AFZ (Atlantic Free Zone).

Marokoko gobernuak herrialdeko industria garatzeko aurrera eramaten duen Emergence Planaren barruan dago honako ekintza, eta, Mondragon Korporazioaren esanetan, mundu osoan formazio arloan aurrean egin diren 10 kontzesio garrantzitsuenen artean dago lortu duen kontratua.

Esperientzia berria

Juan Izeta da Alecop-eko proiektu berrien arduraduna, eta berak azaltzen du proiektu handi horrek zer

implikatuko duen Alecop-endako: "Business model, negozio eredu berria da, eta ez dakigu zenbateraino garen onak eredu horretan. Badakigu behar diren gaitasun nagusiak badauzkagula: asko dakigu ingeniariak pedagogikoak, asko dakigu alternantziak, eta multinazionalen harremanak izaten ere badakigu; baina, orain, hori dena batera egin behar dugu, orain arte tokatu ez zaiguna".

Hona hemen proiektuaren gaineko zifra batzuk: 2012ko uztailan egongo da bukatuta zentroa, eta Alecop-ek 2019ra arte kudeatuko du; urtero 1.500 pertsona har ditzake zentroak; Alecop-ek Kenitran duen sozietatean 40 kide izango dira, eta Debagoienetik sei bat ingeniari pedagogiko joango dira.

Marokoko gobernuak egingo



Alecop-eko eta Marokoko gobernuko ordezkariak, kontratua sinatzen. | ALECOP

ditu inbertsio guztiak. Alecop-ek kontzesioz egingo du lan.

Potentzial handia

Maroko goraldean dagoen ekonomia bat da, batez ere automobilgintza arloan. Kenitra esplotatu gabeko lekua da, potentzial handiarekin, Juan Izetaren esanetan: "Marokon, urtero, 15.000 lanpostu sortzen dira automobilgintza sektorean. Lan handiena Tangerren egiten da, logistika arrazoiengatik: Europatik

bide motzena da, hango portutik irten eta bi ordura kontainera Andaluzian dago. Baina Tanger saturatuta dago, eta leku indartsu berria sortu dute. Kenitra da hori".

Han egingo dute Kenitra Automotive City, Alecop-ek gestiona-tuko duen zentro handia. Kenitra eta Sidi Yahia (Rabatetik, hiriburutik 40 kilometro) artean egongo da, eta 800 hektarea hartuko ditu. 600 milioi euroko proiektua

JUAN IZETA | ALECOP-EKO PROIEKTU BERRIEN ARDURADUNA

"Marokok zentroaren giltza emango digu, guk hamar urtean kudeatu dezagun"

Goiena telebistan, asteleheneko *Magazinea*-ko Ekonomia tartean izan zen Juan Izeta Alecop-eko kidea. Bere hitzetan, Marokok kontratua orain arte Alecop-ek egin dituenekiko desberdina da.

Nondik nora etorri da Marokok kontratua?

Otsailan hasi ginen kontratua lortzeko lanean. Marokoko gobernuak hara joateko eta gaia aztertzeko eskatu zigun. Kontratua abuztuan lortu genuen. Kenitra hirira multinazional asko joango dira datozen

urteotan, eta Marokoko gobernuak zortzi edo hamar bat urtean zentro bat kudeatzeko eta jendeari formazioa emateko norbait behar zuen.

Kontratua honek berezitasun asko ditu, ezta?

Bai. Orain arte egin ditugun lanekiko desberdintasun handiena hauxe da: orain arte, Ameriketara eta egin izan ditugun lanak *giltza eskuan* delako motakoak ziren, hau da, guk lana bukatu eta giltza bezeroari ematen genion. Oraingoan, berriz, Marokoko gobernuak dena presta-



Juan Izeta. | LEIRE KORTABARRIA

tuko du eta guri emango digu giltza.

Ze eperekin zabiltzate lanean?

Zentroa 2012ko uztailan egongo da bukatuta, eta guk 2019. urte bukaerara arte kudeatuko dugu.

Zelakoa izango da zentroa?

Nahiko handia izango da: urtero-urtero, 600 pertsona edo 1.500

pertsona pasatuko dira handik, ikastaro laburrak edo luzeak diren araberak.

Teknikoki, nahiko ondo hornituta egongo da. Hemengo teknologia-ekin hornituko dute.

Ikasle-bazkideen eredu esportatu daiteke? Adibidez, Marokora?

Bai eta ez. Marokok ez digu eskatu zertifikatuak banatzen dituen eskola bat, bai-zik eta alternantzia, dualitatea probatu gura dute eurek ere.

Hortaz, hango zentroko jendeak lan ere egingo du, eta multinazionalen jardungo du: Koreakoak, AEBetakoak, Alemaniakoak, Austriakoak eta Frantziakoak. Guk denekin harreman ona izan behar dugu. Horregatik, hemengo alternantzia eredu hara egokituko behar dugu.

Bestalde, Alecop-ek ondo bukatuko du urtea: 12 milioi euroko fakturazioa aurreikusten da.

Bai, hala da. Urtea nahiko gogorra izaten dabil, eta balantze orekatu batekin bukatuko dugu urtea, zertxobait irabazita edo zertxobait galduta, baina oreka gordeta.

"Datozen bi edo hiru urteotan, nazioartetik lan gehiago etorriko da"

Etorkizun hurbilera begira, hurrengo bi edo hiru urteetan nazioartetik lan gehiago etorriko da, eta, ondorioz, gure mix-a aldatu egingo da: lan nazionala murriztu egingo da, eta nazioartekoa, berriz, handitu egingo da. Gure salmentak egoera horretara moldatuko ditugu. Zehazki 2012. urterako, aurreikuspenak baikorrak dira; beharbada esportazioan ez gara hainbeste haziko, baina zorroan bai, eta horrela, errazagoa izango da fakturazio handiak izatea.



da, 15.000 lanpostu sortuko ditu eta orduko 30 ibilgailu produzituko ditu; urtean 170.000 egiteko gai izango da. Bi urte eta gero, 400.000 unitate produzitzeko gai izan dadin handituko dute. Marokoren helburua bikoitza da: kanpoko inbertsioak erakartzea eta herrialdeko industria eta eskulangintza azpiegiturak modernizatzea, horretarako Marokok hazteko duen potentziala, Europarekiko gertu egotea eta langileen trebakuntza eta formazioa aprobetxatuta.

Marokoko *L'Economiste* egunkariaren arabera, Alemaniako Merkataritza eta Industria Ganbera Marokon egotekoa da azaroaren 18tik 21ra, hango automobilgintza industriari inbertsiorako ematen dizkien aukerak esploratzeko.

Marokoren goraldia hain handia denez, "Afrikako lokomotora" deitu izan diote. African Countries of the Future 2011/2012 Winners delako txostena egin zuen *Financial Times* egunkariak, eta Maroko lehenengo postuan agertzen zen. Txosten horren arabera, Maroko da Afrikan "etorkizun handiena" duena, ekonomia aldetik. Adituen esanetan, beste herrialde batzuetatik etorritako inbertsioak %8 handitu ziren 2010an, aurreko urtearekin alderatuta, eta bere zonaldean hobera egin zuen herrialde bakarrenetarikoa izan zen.

Nazioartera begira ipini da Maroko, eta datorren hamarkadaraino ailegatzen den estrategia bat

Enpresak, gazteen alde

Ikasle-bazkideak dira Alecop-en berezitasunetako bat. Ikasi eta lan egiten dute. Aurten, 280 ikasle-bazkide ditu, eta eredu horrekin jarraituko du Alecop-ek. Juan Izetaren esanetan, "neurgailu ona da hori enpresen aurreikuspenak zeintzuk diren jakiteko, bai kooperatibenak bai sozietate anonimoenak ere. Aurten nahiko urte ona izan dugu, eta hurrengo bi urteetarako ere aurreikuspen onak ditugu. Krisiaren lehenengo zatia gogorra izan zen, baina orain enpresak gazteekin lan egitearen aldeko apustua egiten ari dira".



Ikasle-bazkide bat, 2010/11 ikasturteko argazki baten. | LEIRE KORTABARRIA

Atlantikoko 'zubitxoak'

'ZUBIA' Kenitra (Al-Qunaytra, *zubitxoak* esan nahi du) Marokoko iparraldean dago eta 370.000 biztanle ditu (2005eko zentsua). Sebou ibaiko kaia da eta Gharb-Chrarda-Beni Hssen eskualdeko hiriburua da.

MODERNOA Ez da turistaren lehen aukera izaten, oso hiri modernoa delako eta hiri zaharrena oso zati txikia gordetzen delako.

FRANTSESEK SORTUA Oso hiri berria da, 1912an sortua, Frantziaren protektoratu erregimenean. Hubert Lyautey jeneralak sortu zuen. Horregatik, lehen Port-Lyautey zuen izena. Protektoratua baino lehen, Mehdiako kasbah gunea bakarrik zegoen.

EGITURA Lyauteyk fortea, hiria eta kaia sortu zituen. Kaia 1913an ireki zuten.

BASEA Torch Operazioaren ondoren, AEBek hegazkin-basea ezarri zuten Kenitran. 1991ra arte egon zen zabalik.

KONEXIOAK Oso lotura onak ditu: bi tren geltoki -Kenitra-Ville eta Kenitra-Medina- eta 30 minuturo trena Tanger, Rabat eta Casablancara, eta 30 minutura aireportua.

URRIKO SARIEN IRABAZLEAK

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

'Mujeres frontera' musika ikuskizuna



Izen-abizenak:
Floren Arana Barandiaran
Herria:
Arrasate

Danbakako kamiseta

Izen-abizenak:
Angel Bergaretxe
Abarrategi
Herria: Arrasate

Liburu sorta umeentzako

Izen-abizenak:
Aitziber Astola
Elorza
Herria: Arrasate

Maletatxo (troller)

Izen-abizenak:
Juan Arriolabengoa
Lasaga
Herria: Aramaio

Pendrive bat

Izen-abizenak:
Gurutze Arizabaleta
Okina
Herria: Arrasate

ZORIONAK, GUZTIOI!

diseinatu du, kanpoko inbertsioa erakartzen jarraitzeko.

Orain 10 urte, jautzia

Alecop-endako, Maroko ez da merkatu zeharo berria, baina orain arte ez da bezero handie-

na izan. Honela dio Juan Izetak: "Esportazioan, gure merkatu handiena betidanik Amerika izan da, batez ere hizkuntzaren-gatik. Kenitrako proiektuan, frantsesen lehia izan dugu. Orain, ikusiko dugu ze aukera daukagun

Frantziako eta Ingalaterrako merkatuetan".

Alecop kooperatibak 45 urteko historia dauka. 60ko hamarkadan Arrasaten sortutako kooperatibetako langileen hezkuntza premiei erantzuteko sortu zen, eta gerora,

hezkuntza baliabide integralak ematen espezializatu da. Honako gaitan ematen ditu hezkuntza soluzio horiek: enpresa, ikerkuntza, industria, automobilgintza, energia berriztagarriak, teknologia eta beste batzuk.

Latinoamerika eta Magreb

Urte askoan, Hego Euskal Herrian eta Espainian lan egin zuen Alecop-ek, eta gaur egun liderra da bi merkatu horietan. Kanpoko lehen esperientzia orain 10 urte hasi zuen, Kolonbian. Azken hamarkadan, Latinoamerika bihurtu da Alecopen merkatu garrantzitsuenetako bat. Magreb zona da beste merkatu nabarmen bat, eta Kenitrako proiektuarekin, Alecop-ek bere posizioa indartuko du, eta nazioartean bere sektorean erreferente bihurtzeko aukera ederra izango da.

Juan Izeta Alecopeko proiektu berrien arduradunak hauxe dio: "Latinoamerika eta Magreb (Maroko eta Aljeria) dira momentu honetan Alecopen merkatu naturalak. Horrez gain, Txinan eta Vietnamen ere baditugu operazio batzuk, eta noizean behin beste herrialde batzuetatik ere ailegatzen zaizkigu eskaerak".

DATUA

600

MILIOI EURO

Rabat-ek 600 milioi euro inbertituko ditu Kenitrako automobilgintza parkea, Kenitra Automotive City, egiten eta martxan jartzen. Gero, giltza, kudeaketa osoa, Alecop-en eskuetan utziko du.

15.000

LANPOSTU

Marokoko sektore indartsuenetarikoa bat automobilaren sektorea da. Urtero 15.000 lanpostu sortzen dira, eta Kenitrako parke berrian kontzentratuko dira.

40

LANGILE

Alecop-ek lideratutako taldean 40 langile inguru izango dira. Gehienak marokoarrak izango dira. Tartean, Debagoienetik sei edo zazpi ingeniari pedagogiko eramango ditu kooperatibak.

Permuta sinatuta ikusteko aukera asko dituen kurtsoa hasi du UNEDek

26 gradu eskainiko ditu unibertsitateak aurten; 2.000 ikasle inguru ditu egun

A. MONEDERO / A. BARRUSO | BERGARA
Ikasturte berriaren hasiera ekitaldia egin zuen egubakoitz iluntzean Bergarako UNEDek. Ekitaldia udaletxeko areto nagusian

egin zen eta bertan izan ziren, besteak beste, Martin Garitano Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Jesus Elortza Bergarako alkatea, Pedro Luis Arias Unibertsitate

eta Ikerkuntza sailburuordea eta Iñaki Espartza UNED-Bergarako zuzendaria.

Ikasturteko irekiera hitzaldia Joxeramon Bengoetxeak egin zuen,



Ostiral iluntzean aurkeztu zuten ikasturte berria. | JOSETXO ARANTZABAL

Bergarako Agorrosingo sorosleek eta ikastaroetako monitoreek erabaki dute greba ez egitea

GOIATZ ARANA | BERGARA

Igeriketa Lantzen enpresako langileak dira sorosle eta monitoreak; 11 guztira. Prozedura konkurtsal batean dago enpresa; langileak nominak atzeratu ari dira kobratzen –eta bi laguni ez diete ordaindu maizta–; eta egutegian jasotako orduen eta sartzen dituztenen artean 200 inguruko desfasea dago. Hala kontatu digute ELA sindikatutik. Arrazoi horiek tarteko, gaur, astelehena, greba mugagabea hasiko zutela iragarri zuten, baina barikuan egindako batzarrean asmo hori atzera bota eta greba ez egitea erabaki zuten. Eguenean enpresarekin batuko dira berriz.

Bergarako Udalak ohar bidez jakinarazi duenez, euren helburua kalte ahalik eta txikiena eragitea izan da lehen egunetik, eta gaineratu du ez prozedura konkurtsalaren eskaerak ez kobratzeko izaten ari diren arazoek ez dutela zerikusirik Bergarako Udalarekin. Ohar berean dio lan egindako ordu guztiak kobratzeko eta urritik aurrera nominak adostutako egunerako kobratzeko enpresaren konpromiso idatzia dutela langileek.

Bestalde, Agorrosingo bai-nuetxeko ontzi terapeutikoak ur-ihesa du. Konpontzeko, itxi egingo dute eguazten eguerdiko 13:00etatik azaroaren 8ra arte.



Agorrosingo ekintza gunea. | GOIENA

Beñar Kortabarria saritua berriz 'Teknopolis'ekin

G.A. | ARRASATE

Nafarroako Unibertsitateak antolatzen duen *Telenatura* nazioarteko jaialdian, erreportaje onenaren saria jaso du Beñar Kortabarria antzuolarrak zuzentzen duen *Teknopolis* saioak, *Zelatan* lanarekin. Ikertzaileek natura nola behatzen eta animalien segimendua nola egiten duten azaltzen du, ordu erdian. Ekainean emititu zuten ETBn; eta egubakoitzean saritu, Iruñako Planetarioan.

Talde-lanaren balioa

Sariak jasotzera ohituta daude *Teknopolis*-en –zazpi edo zortzigarrena izan da hau, nazioarteko bigarrena– baina gustura hartu dute bat gehiago, Kortabarriak kontatu digenez: “Astero programa ateratzea da gure egitekoa, baina errekonozimenduak beti hartzen dira gustura eta pozik gaude”. Orogen gainera, egindako ahalegina eta talde-lana nabarmendu gura izan ditu, orde: “Entrenatzaileek moduan, nik gidatu, motibatu, geratu arazi... egiten ditut; eurek, jokaldiak eta golak”.

EHUko irakaslea eta 2010eko Eusko Ikaskuntza sariduna. *Zuzena adarretatik heldu. El reencuentro del Derecho y la Razon Práctica* izan zen hitzaldiaren izena eta, besteak beste, UNEDek Bergaran duen garrantzia aipatu eta bertan Zuzenbidea ikasi zueneko garaia ekarri zituen gogora.

Martin Garitano Diputatu Nagusiak hartu zuen gero hitza eta esan zuen unibertsitate batean ikasketak presentzialki egin ezin dituztenei urrutiko hezkuntzak aukera asko zabaltzen dizkiela.

Hitzaldiaren ostean, 2009-2010 ikasturtean titulazioa lortu zuten ikasleek diploma jaso zuten. Aurten ere urrutiko unibertsitatean 2.000 ikasle inguru matrikulatzea espero dute. Ikasturte berrian UNED-Bergarak 26 gradu eskainiko ditu, eta nobedadeen artean dago Administrazio Publikoen Zientzia Juridikoak izeneko, administrazio publikoko langileei edo arlo juridiko honetan interesa izan eta erakunde publiko batean lan egin nahi dutenei zuzendutakoa.

Permuta bide onetik

Ahaldun Nagusiak gaiari erreferentziarik egin ez arren, permutaren kontua, pentsatzekoa zen moduan, azalera ateratu zen egubakoitzeko ekitaldian. Bergarako alkate Jesus Elortzak adierazi zuen permuta sinatzeko zain daudela eta etorkizuneko UNED Arrizuriaga jauregian kokatu nahi dutela, bere ustez “paraje

ezin hobea” delako. UNEDeko zuzendari Iñaki Espartzak, bes-tetik, UNEDentzat egonkortasuna eskatu zuen eta behin betiko egoitzaren gaineko erabakia ahalik eta azkarren hartu dezatela eskatu.

UNED patronatuan orain gutxira arte EAJK gidatutako Gipuzkoako Foru Aldundia zen permuta gauzatzearen kontra zegoen bakarra –Kutxa, Bergarako Udala eta UNED alde zeuden–. Hain justu ere, adostasun batera iristen ez zirela-eta, permutaren erabakia aurten irailera arte atzeratzeko eskakizuna egin zuen orduko Foru Aldundiak.

Bada, orain gobernu aldaketarekin, badirudi permutak bidea zabalik duela. GOIENAK jakin ahal izan duenez, gainera, Martin Garitanoren gobernuarendako lehentasunezko gaia da Bergarako Errege Seminarioaren eta Arrizuriaga jauregiaren arteko permuta eta hori gauzatzeko lanetan dabilta. Dena dela, Bergarako alkate Jesus Elortzak adierazi du permuta inoiz baino gertuago dagoen arren, hura finantzatzeko bideak lortu behar direla aurrena. Horregatik, trukea sinatzeaz gain, permuta gauzatzeko finantzazio plan bat zehaztu nahi dutela adierazi digu: “Permuta sinatzea garrantzitsua da, baina hori bezain garrantzitsua da gauzatu ahal izateko finantzazio bideak lortu eta epeak zehaztea eta hori da orain gure lehentasuna”.



JOSETXO ARANTZABAL

Dena gertu Domu Santu egunerako

Bihar, azaroak 1, Domu Santu eguna izango da, joan zirenei bisita egiteko eguna; urteko beste egunetan ez bezala, isiltasuna hautsi eta jendearen joan-etorria etengabea izango da hilerrietan. Ordurako guztia gertu izateko, asko izan dira aurreko egunotan hilerrietik pasa direnak, hilibietako hautsak kendu, lore zimelduak erretiratu eta berriak jartzeko. Hala erakusten du, esaterako, Arrasaten ateratako argazki honek.



Oñati eta Arrasateko Udal ordezkariak Antzuolakoeekin batzartuta. | A.T.

Oñati edo Bergara atez atekora batzen hurrengoak

Urte eta erdi beharko da horretarako, Epelen eraikiko den konpostajerako gunea bukatu arte

A.T./M.B. | ARRASATE

Oñati eta Arrasateko Udal ordezkariak eta Urretxuko Zero Zabor taldeko kide bat Antzuolan izan ziren bisitan egubakoitzean. Zaborra batzeko atez ateko sistema ezagutzera joan ziren. Izan ere, sistema hori bailarako beste herrietara ere zabalduko da.

Horren harira, zera esan zuen Arrasateko Ingurumen zinegotzi Josu Peredak hurrengo non eta noiz ezarriko den galdetuta: "Epelen gaur egun dagoen zabortegiaren ondoan egingo da zabor orga-

nikoa konpostatzeko gune handi bat. Horrekin batera transferentzia gunea eta kamioiendako aparkalekua ere egingo dira. Urtebete edo urte eta erdira bukatuta egotea espero da. Eta, hori egin arte ezin izango da sistema ezarri", eta gehitu zuen: "Dudatan dago zein herritan ezarriko den, baina Bergara edo Oñati izango da, seguru asko". Oier Irizar Oñatiko Ingurumen zinegotziaren esanetan, atez atekoaren alde daude, baina zintzilikario sistemaren ordez, beste batzuk aztertzen ari dira.

Bailarako hiru GKeri 650 euro eman dizkie Ternua etxeak

M.B. | ARRASATE

Salmenta Solidarioa, Plataforma Vasca de Solidaridad con Chiapas eta Bulubum Gobernu Kanpoko Erakundeek 650 euroko txeke bana jaso dute Ternua enpresaren aldetik. Diru hori maiatzean Elgetan izan zen Mundumirako azken edizioan Ternua elastiko ofizialen banaketaren bidez batu zen.

Urtero Ternuak Mundumirari laguntzen dio, eta jai honetan saltzen den elastiko ofizial bakoitzetik hiru euro garapenerako bidean dagoen herrialde baten aldeko proiektua aurrez aurkeztu duten bertako Gobernu Kanpoko Erakunde batzuei ematen zaie.

Hiru elkartasun proiektu

Aurten aukeratutako proiektuak hauek dira: Arrasateko Salmenta Solidarioa, Gujerat-en (India) Nana Kantari eskola handitze-ko egiten ari dena; Eskoriatzako Plataforma Vasca de Solidaridad con Chiapas mikrokredituen antzeko laguntza sistema, Querétaro (Chiapas, México) eskualdeko 9 komunitate indigenen artean ezartzeko egiten ari dena; azkenik, Bulumba erakundeak (Oñati eta Durango), Jinotegan (Nicaragua) gutxitasun psikiko, fisiko eta sentzoriala duten pertsonak zein sexu abusua jaso duten adingabeendako hiru arreta-etxeren mantentura bideratuko du dirua.



GKerako ordezkariak txekoa erakusten. | GOIENA

Leire Egaña juntakidea egun erdiz Mankomunitatean

M.B. | ARRASATE

Leire Egaña Oñatiko zinegotzia Mankomunitateko zereginetan arituko da egun erdiz aurreratzean. Lehenengo aldia da ordezkari politiko bat liberatzen dutena Mankomunitateko eta dedikazio hori zein jasoko duen ordainsaria aho batez onartu zuen Mankomunitateko Gobernu Juntak eguaztenean egindako batzarrean.

Murrizketen aurka

EAJ alderdiak Debagoieneko Eskualde Ospitale berriaren proiektuan murrizketarik eman ez dadin aurkeztutako mozioa ere bozkatu zuten eguazteneko batzarrean eta bat egin dute harekin. EAJren esanetan, Osasun Sailak zein Osakidetzak 2006an bailarako ospitalerako aurkeztu zuten proiektuko hainbat zerbitzu kendu egin dituzte eta baita ohe kopurua gutxitu ere.

Mankomunitateko junta-kideek aho batez onartu zuten mozioa. Hori horrela, "ospitalearen hasierako egitasmoa birjartzeko" eskatzen diote Osasun sailari eta Osakidetzari.

LENIZ
ESKORIATZA

SUZUKI

**Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa,
injektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa**

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 40 10 Posta-e: rleniz@euskalnet.net

Gizarte laguntzek %7 diru gutxiago izango dute datorren urtean

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua %1 txikiagoa izango da eta Foru Aldundiarena, %13 txikiagoa

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Administrazioek artazia sartu dute datorren urteko diru-aurrekontuetan. Joan den astean eman zuten aurrekontuen proiektuen berri Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Eusko Jaurlaritzak eguaztean onartu zuen EAerako aurrekontu orokorren lege-proiektua, eta 10.449 milioi aurreikusitu ditu. Aurrekontu hori aurtengoa baino %1 txikiagoa da. Laguntza sozialek artazikada handia izango dute, %7 txikiagoak izango dira-eta.

Ekonomia eta Ogasun sailburua, Carlos Agirre, eta Jaurlaritzako bozeramalea, Idoia Agirre, komunikabideen aurrean agertu ziren eguaztean, aurrekontuen lege-proiektuaren nondik norakoak azaltzeko. Agirrek esan zuenez, lege hori "legegintzaldiko zailena" da.

Laguntza sozialek horren isla izango dira, izan ere, onuradun bakoitzak 524 euro jasoko ditu, oraingo 584en partez. "2012a urte zaila izango da eta jende gehiagok eskatuko ditu laguntza horiek", esan die Carlos Agirrek kazetariei. Oro har, gizarte gastuetarako aurtengo diru kopuru berbera izango da: 280 milioi euro.

Lehendakaritza eta Etxebizitza ez beste sail guztiek diru gutxiago jasoko dute. Adibidez, Barne Sailak %6,7 gutxiago jasoko du.

Kontuan hartu behar da mehatxupekoen babeserako diru-partida %56 txikiagoa izango dela.

Aldundiak, 746 milioi

Diputazioari dagokionean, bari-ku goizean aurkeztu zuten aurrekontu proposamena Martin Gari-ano ahalduen nagusiak eta Hele-

na Franco Ogasun eta Finantza diputatuak: 746 milioi eurokoa da, aurtengoa baino %13 txikiagoa. Horietatik 679 milioi euro bideratuko dira departamenduetara eta gizarte izango da lehentasuna: gizarte politikako aurrekontua %7,67 haztea da asma eta, horretarako, milioikako inbertsioak baztertu egingo ditu Aldundiak.

Azkeneko urteotako txikiena izango da datorren urteko aurrekontua. Izan ere, "zorra murriztea eta gehiago ez zorpetzea" da helburua.

Azkeneko lau urteotako Foru Aldundiaren aurrekontuak hauek izan dira: 786 milioi (2008), 895 milioi (2009), 904 milioi (2010), 839 milioi (2011) eta 746 milioi (2012rako aurreikuspena).

Bailarako obrak, atzeratuta

Bidegik, lurraldeko autobideak kudeatzen dituen erakundeak, 900 milioi euroko zorra du. Orain, Foru Aldundiaren helburua da gehiago ez zorpetzea eta zorra murriztea. Horregatik, hainbat proiektu albo batera utzi edo berraztertuko dituzte. Proiektu horien artean daude Beasain-Durango errepideari dagokion Bergara-Antzuola tramua (71.515.000 euro), Antzuolako Sagastiko biribila (700.000 euro) edo Elgetako saihebidia (11.500.000euro).



"Elikagaien %5 bakarrik dira EAEn ekoiztutakoak"

Hiru euskal erakundek bat egin dute elikadura burujabetza eskatzeko, eta txosten bat egin dute

L.K. | ARRASATE

Mugarik Gabeko Albaitariak, EHNE Bizkaiak eta Emaus Gizarte Fundazioak osatutako partzuergoak politika publiko eta elikadura burujabetzaren gaineko ikerketa argitaratu berri dute, eta administrazio publikoen esku ipini dute. Ikerketa hori "elikadura burujabetza sustatzeko tresna" da, eta bi eginkizun betetzen ditu: alde batetik, elikadura burujabetzaren gaineko jardunbide egokiak batzen dira, eta, bestetik, nekazaritzarekin eta hurbileko kontsumoarekin lotutako araudiak batu eta aztertzen dira.

Horrekin batera, elikadura burujabetzaren inguruko *on-line* bloga sortu dute, honako helbidean: *soberaniaalimentariaypoliticas.wordpress.com*. Elikadura burujabetzaz jardungo dute eta informazioa partekatuko dute hor.

Mundu mailako konponbidea

Partzuergo horren esanetan, "pertsonak ahalmenetara eraman, tokiko ekoizpena eta kontsumoa sustatuz eta energia aurreztuz aldaketa klimatikoa geraraziko duen eta Hegoaldeko herrialdeekin solidarioa izango den araudi eredu berri bat lortzeko aukerak areagotu" nahi dituzte ikerketa horrekin.

"Gure elikadura sistema suntsituta dago eta mundu mailako konponbidea behar du", esaten dute hiru erakundeok. Datu beldurgarriak gogora ekartzen dituzte segidan: "Ekoizten diren elikagaien heren bat galdu egiten dira. Munduan 1.000 milioi pertsona inguru gosez bizi da. Gizakien %16ek behar dutena baino gutxiago jaten dute". Ondoren, elikadura buru-

jabetza ezak dakartzen ondorioak azaltzen dituzte: "EAEn kontsumitzen diren elikagaien %5 baino ez dira bertan ekoizten, beste guztia inportatu egiten da. Hau dela eta, nazioarteko garraio, merkatu eta prezioen menpe gaude". Beste ondorio bat ere ikusten dute: "elikaduraren kalitatearen murrizketa eta biodibertsitate galera". Hala, esaten dutenez, "1950ean 50.000 ekoizle baserri-tar zeuden. Gaur egun, 9.520 baino ez dira".

Partzuergo horren iritziz, hortaz, "beharrezkoa da tokian tokiko eskalan lanean hastea elikadura burujabetzaren nazioarteko paradigma eraikitzeko".

Krisiaren testuinguruan

Euren txostena testuinguru jakin baten kokatzen dute: "Elikagaien krisiaren erdian, sistema politiko eta finantzariorenganako konfiantza-galtze orokorraren une honetan", eta baita Elikaduraren Nazioarteko Egunaren (urriaren 16an) testuinguruan ere: "mundu mailako desnutrizioa eta elikadura segurantzaren eza murrizteko politikak bilatzen dituen FAOren Elikadura Segurantzarako Batzordearen 37. bilera izan eta gero".



Interneten daude pertsona fisikoaren errentaren eta ondarearen zergak aldatzeko arauen proiektuak


Ogasun Sailak Interneten zintzilikatu ditu pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga eta ondarearen zerga aldatzeko dituzten arauen zirriborroak. Edozeinek ikusteko moduan daude azaroaren 21era arte. Bi dokumentuak jaits daitezke www.gipuzkoa.net/ogasuna atarian. Dokumentuak hauek dira: PFEZ aldatzeko tramitazio bidean dagoen arauaren aurreproiektua –"ekitate lortzeko bidean" jartzen duena, Ogasunaren hitzetan– eta ondarearen zerga berriz ezartzen duen arau aurreproiektua.

Enplegu Zerbitzuak %20 diru gehiago ipiniko du Euskadin 4.000 langabe kontratatzen laguntzeko

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak % 20 handituko du kontratazioarako laguntzetara destinatutako partida, hasiera batean aurrekontuan sartutako 42 milioi eurotik 50,5 milioi eurora. Txoke-plan horren gehikuntza ekonomikoak Euskadi osoan 4.000 kontratazioa iristeko aukera emango du, Enplegu Sailak dioenez. "Krisialdiaren larritasuna eta langabezia handia direla medio, Lanbideren Administrazio Kontseiluak ikusi du lehentasuna duela programa horretara funts gehiago bideratzea", esan du.

Fagor Automation, pozik EMO azokatik

Fagor Automation pozik dago Hannoverko makina-erreminta sektoreko EMO azokak eman duenarekin. Kaptazio negozioko zuzendari komertzial Iñaki Bañuelosen hitzetan, "hitz egindako makina fabrikatzaile gehienek oso susmo onak helarazi" dizkiete. Argazkian, Automation-eko saltzaileak.



FAGOR AUTOMATION



Eva Gartzia familia-hezitzailea da, eta aholkuak eskaintzen die arazo emozionalak dituztenei. | EVA GARTZIA

Eva Gartzia | Psikologoa, psikoterapeuta eta familia-hezitzailea

"Gaixotasun fisikoak beti atenditu izan dira; zailtasun emozionalak, berriz, alboratu"

- ▶ Zumarragako Gure Txoko erretiratuen elkarteko koordinatzailea da
- ▶ Arazo emozionalak dituzten familiei laguntza eskaintzen die

IRATI GOITIA | ARRASATE

Eva Gartzia familia-hezitzailea da eta mota askotariko arazoak dituzten familiei laguntzen jarduten du. Adibidez, familia eremuan gerta daitezkeen tratu txar edo gehiegikeriak jasaten dituztenei laguntza eskaintzen die; horrelako egoerak bizi izateak eragin duen sufrimendua gainditzeko laguntzen die. Horretaz gain, Zumarragako Gure Txoko erretiratuen zentroko koordinatzailea ere bada. Bertan, lan egiten du adinduen arteko harreman sozialak indartzen eta osasun arazoak eta emozionalak prebenitzen.

Zeintzuk dira adindunengan izaten diren zailtasun emozional ohikoak?

Ohikoa da adindunek antsietatea, urduritasuna, lasaitasunik eza, depresioa, apatia edo ezertarako gogorik eza sufritzea. Gainera, horietako batzuen eraginez, gerta daiteke adindunek gehiegikeriaz kontsumitzea alkohola edo zenbait medikazio. Egoera are gehiago zailtzen da demenziaren bat bal-

din badu gaixoak. Antsietatea eta depresioa emakumeengan gertatzen dira batez ere.

Horrelako egoerak bizi izateak izugarritzko mina sortzen du, baina nik irmoki sinesten dut ikasteko eta hezteko balio diguten aukerak direla; esperantza horrekin egin behar diegu aurre. Arrazoi horregatik, sufrimenduarekiko errespetutik landu behar ditugu zailtasun emozionalak. Uste sendoa izan behar dugu: minaren kontzientzia dugunean eta maitasunez tratatzen dugunean aldaketa bat gertatzen da; transformazio bat.

Arazo emozionalak ugaritu egin dira azken urteotan adindunengan?

Orain arte, gaixotasun fisikoak beti atenditu izan dira; zailtasun emozionalak, berriz, erabat ahaztu dira, baita gaizki atenditu edo alboratu ere, tabu izateraino. Egun, aldaketa gertatzen ari da jendearengan; sentsibilizazioa handiagoa da eta gero eta gehiago dira arazo psikologikoei aurre egiteko psikologo batengana

jotzen dutenak. Hori aurrerapauso garrantzitsua da. Hala ere, adindunengan eskaera txikiagoa izaten da; ez, ordea, diagnostikoa. Horrekin esan nahi dudana da jende nagusi askok sufritzen dituela era bateko edo besteko arazo emozionalak, baina ez direla antzematen edo ez zaiela diagnostiko egokirik egiten. Horren ondorioz, ez dira ondo atendituta egoten.

"Ohikoa da zaharrek antsietatea, depresioa eta halako arazoak izatea"

"Arazo emozionalak izanez gero, profesionalengana jo behar dugu"

Zer eragin ditzake zailtasun emozionalak zaharengan?

Bakardadea eta bizitzan jasaten dituzten galerak eragile garrantzitsuak izaten dira. Hala ere, beste faktore batzuk ere aintzat hartu behar dira; esaterako: familiaren egoera, estresa, norbana koaren historia pertsonala eta bere izaera, egoera ezberdinei aurre egiteko duen modua edo egunean bizi dituzten arazo asko.

Nola trata ditzakegu?

Kalentura dugunean, medikua-rengana joaten gara. Modu berean, emozionalki sufritzen denean, egokiena da profesionalengana joatea: psikologoarengana, psikoterapeutarengana edo psikiatrarengana.

Nola jokatu behar dugu horrelako egoeren aurrean?

Errespetuz. Zailtasun horiek bizi dituzten pertsonei sufrimendu eta inpotentzia handiagoa eragingo dieten mezuak bidaltzea ekidin behar dugu (adibidez, depresioa duen bati animatzeko esatea edo

erlaxatu egin behar dela esatea ekidin). Egin behar duguna da aktiboki eta enpatiaz entzun pertsonari; hurbiltasuna adierazi. Baina, batez ere, laguntza profesionala bilatu.

Familiak nola erreazionatu ohi du?

Erreakzioak askotarikoak izaten dira. Ezjakitasuna eta zergatik gertatzen ari den ez ulertzea –"dena baduzu, ez zenuke horrela egon behar"–, kritika –"hau izorratzeagatik da"–, ukazioa –"hori ez da ezer, ikusiko duzu nola egun batzuk pasatzean hobeto egongo zaren"–; eta baita ardura ere.

Zein arazoren gaineko informazio edo formakuntza eskatzen da gehien?

Mugen eta arauen inguruko hitzaldi asko egin ditut; baita gazteengan azaro emozionalak eta oldarkortasuna ekiditearen gainekoak ere. Adindunek bizi izaten duten depresioa ere asko landu dut.

Uste duzu egun errespetuz tratatzen ditugula zaharrak?

Egungo gizartean gure zaharrekiko errespetu eta jokamolde oneko adibide miresgarriak izaten dira, baina baita kontrako kasuak ere. Batzuetan, bel-durratetik-edo, ezkutatu egiten dira eta argi utzi nahi dut tratu-txar fisiko eta emozionalak gaitzetsi egin behar direla. Nik garrantzitsua deritzot eurekiko dugun tratua kontzientzia hartzeari, horrela ekidindo genituzke eta hainbat arazo.

Instituzioen aldetik zerbait egin behar dela uste duzu?

Gauza asko dabilta egiten (egoitza sozialak sortzen, ekintza sozialak babesten eta sentsibilizazioa lantzen...). Nik neuk sentsibilizazio eta formakuntza kanpainak bultzatzen jarraituko nuke: profesionalendako, familiakoendako eta edadetuendako ere. Eta, noski, osasun emozionalerako profesionalengana heltzea erraztu behar da.

ZABALIK

ANDONI URZELAI
http://goiena.net/iritzia/



'Euskanglish'

E torkizuneko solas *in edo cool* bat:
-Ze *planning* egingo diagu biharko?
-*Shopping* apur bat egiteko asmoa nian. Baina ez zekiat, akaso, *compact disc*-ari *play* eman eta *tumbing* apur bat egingo diat.

-*Soffing?* ez duk ideia txarra, ez. Biharamuna dagoenean ez zagok atsialdea *zapping* egiten pasatzea baino gauza hobirik.

-Kea, *no way!* *Eroski Center*-era ere joan beharra zeukaat zenbait gauza erostera.

-*Eroski City*-a gertuago ez daukaku ba?

-Bai, baino aurrez *Kutxa Bank*-en *cash* pixka bat atera behar diat. *Money* gabe nagok eta.

-*No problem!* Lagunduko haut. Bide batez, *Bilbao Exhibition Center*-erako *ticket*-ak aterako dizkiat eta. Lady Gagak jotzen dik, badakik, iaz *BBK Live*-n egon huan artistak. *Gaztea Live*-n ikusi berri diat. Kriston *performanceak* egiten dizkik...

Solas hipotetiko hau, noski, *Basque Team*, *Basque Culinary Center*, *Kutxa Bank* eta abar asmatzen dituzten artaburuuei eskainia dago.

Munduaren mapan ingelesezko berbak jartzeak agerikoago egiten gaituela uste duten horiei.

Gainera, eta hartara joanda, joka dezagun ausartago eta, behin bustita, goazen *lost to the river*-era! HOLA, Gaztelugatxeri *Castlegatxe* jar diezaiokegu, pilota jokoari *pilotwall*, Ajuria Eneari *The Ajuria's Green House* (green, white eta pink jada esistitzen direlako eta, ze demonio, ukitu folklorikoa emateko ere bai, bide batez), Arantzazuko santutegiari *The Arantxa's Grand Canyon*, eta, ez dakit nik ba, Concha pasealekuari *Moluscus Avenue*.

Jesusen ama!

Batzuetan badirudi Pako Martinez Soriaren imitatzaila autoktonoek kudeatzen dutela gure kanpo proiektzioa.

"Joka dezagun ausartago, eta goazen 'lost to the river'-era"

USTEAK USTE

XABIER URZELAI | xurzelai@goiena.com

Odola telebistan, platerean

A falordua, Cuatro ikusten. Gaddafi harrapatu dute; sakelako telefonoekin hartutako irudiak erakusten dabilta. Bultzaka daramate tiranoa. -"Zu, aspaldi halako okelarik erosi barik". Kolpeen ondorioz odoletan da Gaddafi. -"Eta oinguen beste batzuetan baiño gutxiau egindde, batzuetan pasau egitten naz-eta zartagiñaz". Tiro hotsak entzuten dira, manikia dirudi Gaddafik. -"Egongelan afaiteko ohitura txar hau kendu biherko dou...". Pistola bat jarri diote buruan, aurkezleak off ahotsez dio errukia eskatu duela. -"Ba bai, horretarako daukou sukaldie...". Antza tirokatu egin dute, sabel inguruan. Baita buruan ere. Odola telebistan, odola platerean: "Jarri Telecinco, hastera doie CSI".

KALE INKESTA

Domu Santu egunean hilerrira joateko ohiturarik baduzu?



LOURDES SATRUSTEGI
ARRASATE

"Bai, badut ohitura eta aurten ere joango naiz bisita bat egitera. Hilerrian ez dut jende asko baina joango naiz loreak eramatera".



JABIER URIARTE
ARRASATE

"Ez, ez naiz joango; ez dut inoiz izan ohiturarik eta aurten ere ez daukat joateko asmorik. Jendea joaten da, baina ni ez naiz joango".



ROSA BERGARETXE
ARRASATE

"Goian daudenek ez dute ezer behar. Etxean, egunero, izan behar ditugu gogoan, hilerrira antzerkia egitera joan beharrean".



MARIA JOSE JIMENEZ
MALLORCA

"Ez dut ohiturarik hilerrira joateko. Gainera, Mallorcakoa naiz eta hemen ez daukat hildako senitartekorik. Hala ere, ez dut ohiturarik".

HANDIK ETA HEMENDIK

Abertzaleen arteko akordioaz

Mikel Asurmendi

http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Iragan osteguna zen, "ETAren amaiera".

"Hitz egin eta konpondu" izenburuak daramatzen 2.296 zenbakiaren azala lantzen ari ginen Erredakzioan.

Ohi bezala, gai nagusiak eta azalean -edo portada- joan zitezkeen gaiak hizpide genituen.

Bake Konferentziaren ondoko ETAren agiria zetorren susmoa mahai gainean "zebilen".

Artean, "Euskal subiranotasunaren aukerak" izenburuko *Larrun* aldizkaria ARGIAren portadaren aukeren artean zegoen.

Francisco Letamendia eta Juan Jose Alvarez (3. orrialdean) solaskideen argazki oinean honela idatzi genuen: "Bake konferentziaren oihartzunak entzuten zirela itxi genuen *Larrun*".

Portadarako titularra, besteren artean, hauxe atera genuen: "Abertzaleen arteko akordioaz".

Ostegunean iluntzean susmoa gauzatu zen.

Aipatu azala eta erreportaje berezia osatu genituen asteburuan.

Astebete iragan delarik, han-hemenka ibili ondoren -igandean Gipuzkoako gailurra (Aizkorri mendizerra) zapaltzeaz beste-, normaltasunera itzuli izanaren susmoa hautematen dut.

Hautematea beti da norberaren sentsazioa, noski. Neronek, handi-handika, "Iragan eta gero hurbilari soako sorta" idazkiaren perspektibatik, hona hauteman ditudanak:

1. Lizarrar-Garaziko Akordioa ezagutu zenean egundoko poza eta zirrara senti nituen nire inguruan -harrez geroztik ere egundainokoa-.

2. Anoetako Adierazpena eta Loiolako elkarrizketak gauzatu ziren garaian, poza bai, baina zirrara... Zirrara ez hainbeste. Poz neurritsua.

3. Aieteko Adierazpenaren eta ETAren "ETAk behin betiko amaitu du borroka armatua" dioen agiria ezagutzean, berriz, poza bai... baina poz unatua.

"Abertzaleen arteko akordio beharra" leloa gorde dut.

Iraganak iragan, geroak erranen!

Estura

Anjel Lertxundi Esnal

http://berria.info/blogak/lertxundi/

Laster -beharbada zutabea irakurtzen hasi zaren momentutxoan berean- zazpi mila milioi biztanle izango gara munduan. Demografiaren kontrolek ez diote frenorik jarri giza espeziea Mendelen ilarrak bezala ugaltzeari. Kabituko gara munduan? Gosearen mugak eta miseriaren markak zabaltzen doaz, iritsiko da denentzako adina?

Kafkaren "Fabula labor bat" kontakizuna hartu dut apaletik. Sagu bat erori berri da zepoan, katua hurbiltzen ari zaio baratx-baratx. Saguak gero eta hurbilago ikusten du azkena, eta "ai, mundua gero eta estuago da!" ateratzen zaio.

Atakaren larrian, saguak estu ikusten du mundua, apokalipsiaren turutek diote munduak ez daukala denentzako altzorik. Gu ez gaude, ordea, saguaren zepoan, munduaren parterik aberatsenean -harraparienean- baizik. Ipuineko katua gara, eta laburtzen ari dena ez da mundua, irabazteko orduan katu izan eta galtzekoan sagu garela pentsatzen dugunon mentalitatea baizik.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna
Leire Kortabarria
Maketaria Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekarria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Arantzazuko Santutegia

Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI
943 78 13 13

Eskaintza www.hotelsantuariodearantzazu.com

- 40 logela.
- 200 pertsonentzako jangela.
- Eguneko menua, itundutako menuak eta astebururako menu bereziak.
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak.
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak.
- Eta orain sagardotegi txokoa.

Egunero zabalik



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita.



Erreka jatetxea


Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

Eskaintza www.errekajatetxea.eu

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita

Jatetxe Gida



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria
Mas Gastronomía 2009.**



Pildain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

Eskaintza

- Eguneko menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeretan menu bereziak.
- Txerrikumea, sahieskia, bildotsa,... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independentea su baxuarekin.

Astelehenetan itxita



Unzueta sagardotegia

Zabola z/b / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokiak
- Bataioak, jaunartze eta kintadak.

Egunero zabalik



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Jose Mari Larrañaga | Ezker abertzaleko zinegotzia (1979-1999)

- ▶ Herri Batasuna eta Euskal Herritarrok alderdiekin egon zen zinegotzi
- ▶ Hiru alkaterekin egin zuen lan: Eli Galdos, Angel Iturbe eta Andoni Gartziarekin
- ▶ Donostiako Bake Konferentzian egon zen eta ETaren komunikatua "ona" dela dio

"Francoren eta Erregearen erretratuak eta gurutzea zeuden Udalera heldu ginenean"

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Jose Mari Larrañagak 20 urte egin zituen ezker abertzaleko zinegotzi moduan: 1979tik 1999ra. "Gehiegi", haren esanetan. Urte guztiak oposizioan egin zituen. Oroitzapen "onak" ditu. Oso gazte heldu zen Udalera, demokratiarekin batera. Orduko bizipenak erreparatu ditugu harekin.

20 urte zinegotzi lanetan.

Urte asko, gehiegi. 12 urte badira politika utzi nuela, eta konturatu naiz asko nekatzen duela. Erreta bukatu nuen.

Ezker abertzaleko zinegotzi izan zinen, askotariko siglekin.

Demokratiarekin batera heldu nintzen Udalera, oso gazte eta esperientzia barik. Hasierako agintaldietan Herri Batasuneko udal taldea ginen eta azkenengora Euskal Herritarrok moduan aurkeztu ginen.

Udalera heldu eta zer?

Guztia antolatu beharra izan genuen. Francoren eta Erregearen argazkiak, gurutzea eta bandera espainola zeuden han. Gaur egun pentsaezina da halakoak egotea. EAJrekin eta PSE-EEko zinegotziarekin adostuta, guztiak kendu genituen.

Udal jarduna batzordeetan antolatu genuen, eta horietan euskara oso gutxi erabiltzen zenez, euskararen aldeko apustua egin genuen.

Zuk, batez ere, nekazaritzaren inguruko batzordeetan parte hartu zenuen.

Eta lan handia egin genuen. Oñatik baso publiko asko ditu. Gu heldu ginenean zerrenda egin genuen, eta bakoitzaren egoera zehaztu. Zenbakitu eta garbitu egin genituen. Oro har, nekazaritzaren gaineko kontuetan aurre-



Jose Mari Larrañaga, Oñatiko Foru plazan, udaletxearen aurrean. | MIREIA BIKUÑA

rapauso asko eman genituen; batez ere, lehen agintaldian.

Mehatxuak jaso zenituzten.

HBko udal taldekook Batallon Vasco Españolak bidalitako gutu-

na jaso genuen. Laredoko zigilu-marka zuen. Hori horrela, Eli Galdos alkatearekin berba egin, eta hilabetez Udaleko lanak utzi genituen. Lanera itzuli eta hiru

bat hilabetera, banakako gutunak jaso genituen. Haiek ere Kantabriako zigilu-marka zuten, baina orduko hartan lanean jarraitu genuen.

"Udal jarduna batzordeetan antolatu behar izan genuen"

"Orduko politika oraingoa baino askoz 'sanoagoa' zen"



1988ko udal hauteskundeetarako HBko hautagaiak. | JOSE MARI LARRAÑAGA

Oposizioan egon zarete, EAJren gehiengoarekin. Tentsio handia zenuten?

EAJk aurkezten zituen proiektuen gain alegazioak aurkezten genituen, baina atzera botatzen zituzten guztiak, baita aurrekontuei egindakoak ere.

Gure proiektuak eta proposamenak aurkezten genituen, eta hurrengo agintaldian EAJk bereak izango balira bezala aurkezten zituen.

Orduko politika oraingoa baino sanoagoa zen?

Bai. Demokratiarekin batera heldu ginen, itxaropentsu eta ilusio handiarekin. Baina ilusioa genuen politikariok eta baita herritarrek ere. Udalarekin hartu-eman zuzena zuten. Egun, ez. Herri mugimendu ikaragarria zegoen orduan.

Nolako hartu-emana izan zenuen gainerako zinegotziekin?

PSE-EE eta PPko zinegotziekin ez genuen hartu-emanik izan. EAJkoekin bai, eta nahiko ona izan zela esango nuke. Alde batetik, politika zegoen, eta arlo horretan nor bere ideiak zituen; eta beste alde batetik, herritarrek ginen, eta elkar errespetatzen genuen.

Tentsio momenturik gogoratzen duzu?

Susana Arregiren heriotzarekin bai, bizi izan genituen tentsio oneak. Borrokatu egin ginen zerraldia osoko bilkuren aretoan egoteko.

ETaren komunikatuaren ondoren, zer?

Donostiako Bake Konferentzian egon nintzen lagun batzuekin, eta hunkigarria izan zen. ETaren komunikatua hausnarketarako unea da. Etorbizunari aurre egiteko gertu egon behar dugu.

MAGAZINEA

GOIENA TELEBISTA | GOIENA MAGAZINEA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA, 19:45 | ARRITXU BARRUSOK AURKEZTUA



HERRIAK



Herritarrak lrala kalean barrena, paseoan, erakusleihoetara begira. | ARRITXU BARRUSO



Igarza dendan bezero bi erosketak egiten. | ARRITXU BARRUSO

BERGARA

Merkataritza indartzeko plana ipini du abian Udalak

- ▶ Merkatariek arduratuta daude herritarrak kanpora joaten direlako erostera
- ▶ Helburua da egoera hobetzeko ekintza konkretuak topatzea

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Begarako Udala eta merkataritza txikiak arduratu daude herriko merkataritzaren egoerarekin. Gero eta ohikoagoa da lokalak hutsik aurkitzea, erakusleihoan *Alokatzan da* edo *Salgai* kartelarekin; azken urteetan negozio berriak ireki badira ere, hainbat izan dira atekak itxi dituztenak.

Bada, herriko merkataritza indarberritzeko eta berpizteko plana abiarazi du Udalak. "Arduratu gaude egoera gero eta larriagoa dela ikusten dugulako. Garai baten bazegoen mugimendua herriko dendetan eta hori berreskuratzea da helburua. Ikusten duguna da herritarrak kanpora joaten direla eta horrek zuzenean

dakar herriko denda txikiak itxi behar izatea. Gainera, merkataritzaren egoerak ere zuzenean eragiten du herriko giroan", esan digu Jabi Bengoa zinegotziak.

400 inkesta baino gehiago

Ikertalde enpresa egiten ari da merkataritza berrindartzeko plana eta lehenengo fasea amai-

tzear dagoela adierazi digu Iker-taldeko Ainhoa Mitxelena: "Landa lana deitzen dioguna egiten gabiltza. Herritarrekin eta merkatariekin elkarrizketak egin ditugu. Herritarrei dago-kienez, 400 inkesta baino gehiago egin ditugu; batzuk telefonoz eta beste batzuk aurrez aurre. Bestetik, ehun merkatariekin

baino gehiagorekin ere hitz egin dugu. Orain, Udaleko teknikariek eta udal ordezkariak elkarrizketak egitea falta zaigu. Elkarrizketa horietan jasotako informazioarekin egingo dugu diagnostikoa".

Behin diagnostikoa egiten dutenean planaren bigarren fasea ipiniko da martxan: ekintza plana gauzatzea. "Benetako egoera zehazten duen diagnostikoa esku artean izandakoan, egoera hori hobetzeko ekintza konkretuak zehaztuko ditugu", azaldu digu Mitxelena.

Bedelkar Bergarako merkatarien elkartearen zati garrantzitsu bat izango da eta hasiera-hasieratik Udalarekin eta Ikertalde enpresarekin harremanetan daudela azaldu digu Bedelkarko presidente Jon Ander Egaña.

Udalak lehenbailehen amaitu nahi du lehenengo fasea. Bengoak espero du laster esku artean izatea egoeraren diagnostikoa.

JON ANDER EGAÑA | BEDELKARKO PRESIDENTEA

"Arduratuta gaude jendea hiriburuera joaten delako erosketak egitera"

Etxeberria bitxi-dendako ugazaba da Jon Ander Egaña eta duela urtebete hona Bedelkar dendarien elkar-teko presidentea ere bada. Herriko merkataritza indartzeko Udalak mar-txan ipini duen planaren inguruan hitz egin dugu harekin.

Zein da Bergarako merkataritzaren egoera?

Egia esan behar badut, herri gehi- netan bezala Bergaran ere egoera flojo samarra da. Arduratuta gaude gero eta denda gehiago ixten ari dire-lako. Inguruko errepideak ere asko

hobetu dira eta Bergara oso ondo komunikatuta dago gaur egun. Horrek ekarri du bergararrak Gasteizera, Donostiara eta hiriburuera joatea erosketak asko egitera. Egoera oso konplikatua gaude merkataritza txikiok. Uste dugu kalitatezko produktuak eskaintzen ditugula geuk ere, baina, beharbada, horretan ere lan eta esfort-zu handiagoa egin beharko dugu aurrerantzean.

Zein da soluzioa?

Hori da gehien arduratzen gaituena. Soluzioa edo irtenbidea ez da bate-



Jon Ander Egaña. | A.B.

re erraza eta ez dugu irtenbide argi- rik ikusten. Urte askoan aparkaleku faltaren arazoa salatzen genuen eta hori, behintzat, doako TAO sistema- rekin badirudi apur bat konpondu dela. Aparkatzeko toki gehiago dago orain, sumatu dugu aldea, eta hori oso ona da guretzat. Lehen, bezeroak Antzuolatik edo kanpoko auzoetatik

etortzen zirenean asko kexatzen ziren aparkatzen denbora luzea galtzen zutelako. Aparkalekuarena puntu garrantzitsu bat zen guretzat.

Nola baloratzen du Bedelkarrek merkataritza indartzeko plana abiarazi izana Bergarako Udalak?

Oso ondo iruditzen zaigu. Egin beharreko zerbait dela uste dut. Duela zortzi urte egin zen azkenengo azter- keta eta gauzak asko aldatu dira orduetik hona. Hasi besterik ez gara egin; bilera bakar- ra izan dugu Udalarekin eta ikerketa egiten ari den enpresarekin, baina aurrerantzean ere elkarlanean jarraitzeko asmoa daukagu.

Zein izango da Bedelkarren egite- koa prozesu horretan?

Herritarrekin eta merkatariekin elka-

rrizketak egiten hasi aurretik Ikertalde enpresako kideak gurekin izan ziren gure iritzia ezagutzeko. Supo- satzen dut jasotako informazioaren arabera egingo zizutela ondorengo inkestak ere. Diagnostikoa egiten dutenean ere gure iritzia emango dugu eta ekintza plana egiten ere lagunduko dugu.

"Aparkalekuaren arazoa apur bat konpondu da TAO sistemarekin, eta hori oso ona da"

Uste duzu Udalak behar besteko garrantzia ematen diola herriko merkataritzaren egoerari? Urtebete bakarrik dar- mat Bedelkarko presi- dente moduan eta esan beharra daukat orain arte Udalarekin harre- manak onak izan direla. Dena dela, uste dut gauzak oso motel doazela, eta, beti gertatzen den moduan, guk gehiago nahiko genuke; baina tira, ea diagnostikoa eta plan honek ere fruituak ematen dituen.



Aramaioko bertan batutako askotariko perretxikoak, erakusmahaietan. | J.A.



Ganadu feria ikustera joandako bi gizonezko tertulian eta zaldia protestan. | GOIATZ ARANA



Dantzari txikia, pentsakor. | J.A.



Txakurra ardiak gidatzen. | J.A.



Meza irteeran, herriko Lagun Artea dantza taldeak saioa egiten zuen bitartean, jendez bete ziren inguruko zirrikitu denak. | JOSETXO ARANTZABAL

ARAMAIO

Perretxiko, gaztaina eta hosto siku, udazken kolorea hartu zuen feriak

Jende asko, eguraldi ona eta giro hobea izan ziren. Eguerdian, 125 erretiratu batu ziren bazkaritarako

GOIATZ ARANA | ARAMAIO

Zapatu eguerdiko 12:30 inguruan ez zen erraza Aramaion autoa aparkatzeko lekua aurkitzea, ezta Nardeaga kalean gora eta behera ibiltzea ere. Egun ezin dotoreagoa

atera zen eta askok aukeratu zuten Aramaioko feria goiza pasatzeko: trikitilari eta txistulariek girotu zuten ibarra, eta umeen Papargorri eskolaniak eta Bizente Goikoetxea abesbatzak meza

musikatu; irteeran, jendetza batu zen Lagun Artea dantza taldearen saioa ikusteko.

Baserritarren postu askotan, sasoiko produktuak aurkitu zitezkeen: mizpirak, gaztainak, baba

zuri eta gorria, piperrak... Eta ganaduzainek ardiak, astoak, idiak edota zaldiak ekarri zituzten. Hori guztia ikusita, feria urtetik urtera hobetzen ari dela zioen batek baino gehiagok.


Gazte Asanbladak talo mordoan egin zuen, arto-irina agortu arte; minbizia duten haurrei laguntzeko Izaskun Arriaranek jarritako bigarren eskuko merkatuan izan zen mugimendua; eta Nerea Galindezek Aramaion bertan batutako perretxikoek –astaputz, gibel gorri, onddo zuri...– jende askoren begiradak erakarri zituzten. "Euririk ez du egin, baina ilargi aldaketa igarri da", kontatu zigen. Eguerdian, 125 erretiratu batu ziren bazkaritarako.

Domekan, Sojoko Joxe Mari Agirrek irabazi zuen artzain-txakur txapelketa *Riki*-rekin.



JESUS AGIRRE
SUÑAKO AUZOTARRA

"12:30 alderako etorri naiz. Salda hartu, azoka ikusi, erosketa batzuk egin eta orain taberna batzuk bisitatzera! Oso feria ona da eta urtetik urtera hobetzen ari da".



ANDRES ETA FERNANDO
GANADUZAINAK

"Ardiak eta astoak ekarri ditugu, baina ez dugu batere tratirik egin; jendeak galdetu bai, baina erosi ez! Feria apur bat ikusteko, beste batzuk utzi ditugu ganaduzain".



ELI JAUREGI, FERMINA BALANZATEGI ETA ITZIAR JAUREGI
ERRETIRATUAK

"Meza dotorea izan da, musika eta guzti; gaztetxoek aurrena eta nagusiagoek ondoren, kantu saio ederra egin dute. Irteeran, buelta bat emanez, ezta eta krema batzuk erosi ditugu eta orain salda hartzera goaz. Gero, bazkaltzera joateko asmoa dugu, gaur gure jai da-eta... eguna borobildu beharra dago!".



TERESA ARRIOLABENGOA
SALTZAILEA

"Betiko baserriko produktuak ekarri ditut; 83 urte ditu osabak eta haren etxeok dira. Azoka girotzearren etorri gara gehienbat, ez saltzen denagatik".



Frantziako gaztetxoak aho zabalik utzi zituen skate txapelketa ikustera joan zirenak. | JOSETXO ARANTZABAL



Skater bi oholarekin truku ikusgarriak egiten. | JOSETXO ARANTZABAL



BERGARA

Oholak airean, musika ona eta parranda bigarren urteurrenean

Bi urte eta gero jarraitzaile leial asko dituela erakutsi du Laino skate parkeak

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Barruko skate parke bat baino gehiago izateko bokazioarekin jaio zen Laino. Oraindik obrak amaitzen ari zirenean honakoa esan zigun Hodei Elexpuru: "Bergarako bizitza kulturalen gune bat gehiago izan nahi dugu". Argi dago lortu dutela helburua eta oso ondo jakin dute skatea eta proposamen kultural interesgarriak uztartzen. Proiektua gustatu da,

herrian eta inguruan, eta horren adierazle da zapatuan batu zen jendetza. Hitzordua garrantzitsua zen: bigarren urteurrena.

Egun osoko egitaraua

Eguerditik hasi zuten festa. 40 lagun inguru elkartu ziren parrilladan. Ospakizunak, nola ez, patinete gainean jarraitu zuen: skate txapelketa egin zuten arratsaldean. Ikusle dezente batu ziren

parkearen bueltan eta parte-hartzaileek sekulako ikuskizuna eskaini zuten. Eta zer da ospakizun bat gaueko parranda on bat barik? Bada, parranda kontzertu indartsu batekin hasi zen. The Soulbreaker Company, Sumision City Blues eta Fiachras taldeak igo ziren taula gainera. Eguna borobila izan zen, eta argi geratu zen Laino proiektu sendo bat dela dagoeneko.

HODEI ELEXPURURU | LAINO SKATEPARK

"Hasiera ez zen erraza izan baina bagoaz poliki-poliki izena eta indarra hartzen"

Zapatuan oso lanpetuta ibili zen arren, gurekin hitz egiteko tartetxo hartu zuen Laino Skate Parkeko Hodei Elexpuru. Pozik zegoen deialdiak izandako erantzunarekin.

Bi urte eta gero esan daiteke Laino proiektu sendoa dela, ezta?


Bai. Hasiera ez zen batere erraza izan, baina poliki-poliki bagoaz indarra eta izena hartzen eta errotuta dagoen proiektu bat dela esango nuke. Gaur ere jende pila bat etorri da eta horrek ere asko esaten digu.

Bergarako kulturarekin lotutako beste gune bat izatea nahi zenuten eta lortzen ari zarete.

Bai. Bi urte hauetan gauza dezente egin ditugu eta pozik gaude. Orain kontzertuekin jo eta ke ari gara, gaur antzezlan bat ere ekarri dugu eta erakusketak ere egiten ditugu noizean behin.

Skate parke moduan ere oihartzuna lortzen ari da eta gero eta jende gehiagok ezagutzen du.

Euskal Herriko bakarra da, eta orain dela gutxira arte Espainiar Estatu bakarra. Inguruan gero eta ezagunagoa da eta, gaur bertan ikusi duzuen moduan, patinatzaile pila bat etorri dira txapelketara. Asko Bergara ingu-



Hodei Elexpuru. | A.B.

rukoak dira, hemen zaletasun asko dago eta horrek asko laguntzen digu.

Eta zelako maila... Ikusgarria.

Esan beharra daukat gu ere harrিতa geratu gabela. Sekulako maila erakutsi dute eta gozatu egin dugu ikuskizunarekin. Lehenengo saria George Poloerentzat izan da (Frantzia), bigarrena Ian Campbelentzat (Donostia) eta hirugarrena Enriquerendako. Bestalde, truku onenaren saria Urtzi Unanuek irabazi du, skate ohol bat. Oso maila altuko txapelketa izan da.

Bi bete dituzue, beste hiru, lau... hamar urte betetzeko prest? Zalantza barik, bai!



ARRASATE

JOSETXO ARANTZABAL

Hileko azken egubakoitzetan 'Herrixa dantzan'

Portaloia elkarteak antolatuta *Herrixa Dantzan* egitasmoa abiarazi zuten barikuan. Helburua da adin guztietako herritarrek elkarrekin dantzan ipini eta gozatzea. Hasiera ezin hobea izan zuen ekimenak. 40 lagun inguru batu ziren Garaia Berrikuntza Gune tabernan eta Euskal Herriko zein Europako dantza tradizionalak dantzatu zituzten Patxi Monteroren gidaritzapean. Hasiera ona izan duela eta egitasmoa finkatzea erabaki dute antolatzaileek; hileko azken egubakoitzetan *herrixak* dantzan jarraituko du hortaz, Arrasaten.



OÑATI

JOSETXO ARANTZABAL

Asisko Espirituaren 25. urtea

Asisko Espirituaren 25. urteurrena ospatu zuten zapatuan Arantzazun; *Espiritu de Asis: 25 años ansiando y buscando la paz. Balance y retos* izenburupean hitzaldiak eskaini zituzten goizean Telesforo Zurriarain, Mariano Ferrer eta Jonan Fernandezek. Ondoren otoiartzaldia egin zuten basilikan eta bazkaria ostatuan.



Suhiltzaile bat, eskaileran igota, sua itzaltzeko lanetan. Behean, herritar batzuk haren lanari begira. | ENKO AZKARATE



Su garrak kaletik ikus zitezkeen. | JOKIN BEREZIARTUA

Telebistak su hartzearen ondorioz, sute ikusgarria Zarugalden

Zirkuitulabur batek eragin zuen sua, eta suhiltzaileek ordu erdi behar izan zuten itzaltzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Eguen arratsaldean, 17:00ak inguruan, sua piztu zen Zarugalde kaleko 8. zenbakiko laugarren solairuan. Garraxi arropa denda gaineko etxe blokeko azken solairuan, hain justu. Unean bertan udaltzain batek adierazi zuenez, zirkuitulabur baten ondorioz telebistak su hartu zuenean hasi zen sutea. Etxe barruan zeuden

70 urte inguruko Maria Julia Zabala eta Joxe Miel Agirrebeñak berretsi zuten udaltzainak esandakoa, minutu gutxira. Telebista ikusten ari zirela kea sumatu zuten lehenengo eta gero su garrak. Horren ostean, ke beltza irteten hasi zen eta euren kabuz jaisteko aukera izan zuten.

Su garrek etxebizitzako terraza hartu zuten eta. Etxea, beraz,

erabat kiskalita geratu zen. Ikusmin handia piztu zuen gertakariak; minutu gutxitan hainbat herritar hurbildu ziren zer gertatzen zen ikustera.

"Egundoko garrak irteten ziren"

Lekuko baten arabera, suhiltzaileek ordu erdi inguru behar izan zuten sua piztu zen lekura heltzeko. Maria Julia Zabalak hone-

la azaldu zigun gertatutakoa: "Etxean geunden senarra eta biok. Senarra telebista ikusten ari zen eta ni sukaldean nengoen. Telebistatik kea irteten zela esan zidan senarrak eta entxuefa kentzen saiatu ginen baina ordurako ke beltza irteten zen telebistatik, eta gutxira, egundoko su garrak. Telebista ondoko gortinak su hartu eta koadroak eztanda egin

zuenean kalera jaitea erabaki genuen. Ordurako bizilagun guztiak kalean zeuden".

Kaltetuek bizilagunei abisua pasa zieten eta horri esker ez zen kalteturik izan. 17:00ean piztu zen sua eta suhiltzaileak 17:30ak aldera heldu ziren; ordu erdi pasatxo behar izan zuten sua itzaltzeko. Sutearen ondorioak kaletik ikus daitezke oraindik.

Gurasolandia, eguaztenetik domekara

J.B. | ARRASATE

Eguaztenean abiatuko da Gurasolandia, hizkuntza transmisioa bultzatu eta guraso eta haurren arteko harremanak estimulatzea helburu dituen Txatxilipurdik antolatutako ekimena. Lehen egunean Larraitz Arandok hitzaldia emango du erdiguneko gaztegunean (18:00): *Nerabearoa eta haurdunaldia*. Azaroaren 3an, leku berean,

Ixabel Millet ipuin kontalariak *Nola kontatu ipuina* izenburu duen tailerra emango du (18:00-20:00). Hilaren 4an, ordu tarte berean, *Gurasoak ere jostari* tailerra gidatuko du Itsaso Pagoagak Kultureteko Jokin Zaitegi gelan eta hilaren 5ean Garikoitz Lopez de Munianen eskutik haur masaje tailerra izango da du Loramendi gelan (11:00). Egun berean

jostailu erakusketa jarriko dute Jokin Zaitegi gelan, 10:00etatik 13:00etara. Azkenik, azaroaren 6an Biterin jaialdia egingo dute: aurpegi margotzea, hankapaluak eta eskulanak izango dira. Eguraldi txarra egiten badu bertan behera geratuko da.

Zaintza zerbitzua egongo da gurasoendako ekintzetan. Hau da, lehen hiru ekintzetan.

Miren Artetxeren lanak ikusgai Kajoi tabernan, eguaztenetik aurrera

Miren Artetxe margolari azpeitiarrak erakusketa irekiko du eguaztenean Kajoi tabernan. Irekiera ofiziala hilaren 4an izango da, 19:00etan. *Musikaren sareak* du izenburu erakusketak eta oleoak zein collage-ak ikusi ahaliko dira. Abiapuntua, 27 urterekin hildako musikariak.

Futbol eskolan parte hartuko dutenendako ekipamenduak, gertu

Futbol eskolan izena eman duten neska-mutilendako ekipamenduak gertu ditu Loramendi Kirolak dendak. 130 ekipamendu baino gehigo dira; bada, dendako arduradunek jakinarazi dutenez, ekipamenduok jasotzeko moduan dago dagoeneko. San Andresko dendan jaso behar dira.

Sumision City Blues: rocka bluesa eta sentimendua

J.B. | ARRASATE

Osasuntsu daude Kooltur Ostegunak. Gasteiz eta Beratik etorritako Sumision City Blues igo zen egunean gaztetxeko agertokira eta *Pela* eta konpainiak ez zuten hutsik egin. 85 sarrera saldu zituzten antolatzaileek. Ikuslegoarekin ez zuten *feedback* larregi lortu baino horrek ez du

esan nahi ikusleek gozatu ez zutenik. Bluesa, rocka eta beste hamai-ka ukitu, eta sentimendua ororen gainetik. Talde osoaren eta bereziki *Pela*-ren jarrera sinesgarriak direlako, benetakoak direlako: "*Mondra*-ra etortzea beti dago ondo", *Pela*-ren arabera. Ordu eta erdiko gozamina izan zen euren dako eta beraz, ikusleendako.

Urteko bonoaren zozketa

Kontzertua hasi baino lehen urte osorako bi pertsonendako bonoa jasoko dutenenendako zozketa egin zuten. Txartel sarituak hauek izan ziren: 1.214, 1.417, 1.733 eta 1.777. Saria jasotzeko eguenean baten kontzertu batera agertu edo honako helbide honetara idatzi behar da: koolturekintza@gmail.com.

Bestalde, azarorako dena dago gertu: The Screaming Targets, Tom Tom Makuts, Rafa Rueda eta Split 77 izango dira azaroko gonbidatuak, hurrenez hurren.



Sumision City Blues-en eguneko zuzenekoak, *Pela* buru dutela. | JOKIN BEREZIARTUA

Asiatik etorritako liztor inbaditzaileen habia eraman zuten

- ▶ Suhiltzaileak eta erlezainak izan ziren operazioan
- ▶ Liztorrak hil egin zituzten eta habia erre egingo dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Eguen gauean kendu zuten Eguzki dorrearen ondoko zuhaitzetik Asiako liztor inbaditzaileen habia. *Vespa velutina* da haren izen zientifikoa eta ez da hemengoa baino arriskutsuagoa. Hori bai, bertako espeziearekin amai dezake; horregatik da arriskutsua eta ingurumen teknikariak eta erlezainak horregatik daude kezkatuta. Neguaren atarian gaude eta orain habiaren barruan hibernatzen dute liztorrek.

Eguaztenean bizilagun batek atzeman zuen habia, ziztada bat jaso ostean. Bada, 24 ordutara suhiltzaileak eta Gipuzkoako erlezain elkarteak kideek Uribarri auzora gerturatu eta habia jaitsi zuten, liztorrak sprai batekin akabatu eta gero.

Natur eskolako kideak han izan ziren laginen bat eramateko asmoz, eta herritarren artean ere ikusmina piztu zuen gertakariak. Suhiltzaileek jakinarazi zuten, habia Zubillagako parkean erretzeko agindua jaso dute. Hala ere, natura eskolakoek eskatu diete habia ez erretzeko, habia azter dezaten.

Habia amaitzeke zegoen

21:30ean heldu ziren suhiltzaileak Asiako liztor inbaditzaileen habia zegoen zuhaitzera, Alecop eta Uribarri auzoko Eguzki dorre artera, hain justu. Suhiltzaile bat



Habia, egunez, eta ondoan liztor bat hilda, operazioaren ostean. | GOIATZ ARANA / J.B.

eta Bittor Murgiondo Gipuzkoako erlezain elkarteak presidentea igo ziren zuhaitzera. Liztorrak sprai batekin hil eta habia poltsa baten gordeta jaitsi zuten. Murgiondoen arabera, halako 100 bat kasu eman dira Gipuzkoan azken hilabeteetan. Murgiondok jakinarazi zuen, habia ez zegoe la erabat eginda: "Amaitzeke zegoen eta horregatik jaitsi dugunean poltsatik irten dira batzuk". Izan ere, zenbait intsektu irten ziren poltsatik eta suhiltzaileek beste poltsa bat erabili zuten habia ondo isolatzeko.

Metro bateko altuera izan dezake halako habi batek eta bost eta sei kilo artean pisatu dezake, Murgiondoen arabera. Habi

bakoitzean 2.000 liztor aurki daitezkeela ere gaineratu zuen. Armaion eta Oñatin antzeko kasuak izan direla aipatu zuen.


Bordeletik, duela sei urte

Murgiondok azaldutakoaren arabera, liztor inbaditzaileak Bordeletik heldu ziren Euskal Herriera, duela sei bat urte. Edukiontzia batzutan heldu ei ziren, Asiatik. Hemengo espeziearendako kaltegarriak direla dio: "Astebetean hemengoan erlauntza oso bateko erleak jan ditzakete".

Suhiltzaileen eskailerarekin igo ziren, hoguei metrotara zegoen habiaraino. Zuhaitzetik ateratzeko erabili zuten zitzaiela esan zuen Murgiondok...



Bizilagunen ikusmina piztu zuen eguen gaueko operazioak. | JOKIN BEREZIARTUA



JOSU AGIRIANO
MENDIOLAKO ERLEZAINA

"Duen itxuragatik eta dagoen altueran egonda, Asiarra dela esan daiteke. Habia egiteko moduagatik ere desberdina da. Hemengoak oso modu eraginkorrean akabatzen dituzte; nik orain arte bideotan ikusi izan dut, eta ikusgarria da".



BITTOR MURGIENDO
GIPUZKOAKO PRESIDENTEA

"Habia ateratzen ari ginenean, ia jausi egin zaigu; eskerrak denboraz eutsi diogula. Ezusteko hori kenduta, operazioa ez da zaila izan. Zailagoa izaten da habia baso erdian eta suhiltzaileen eskailerarik ez dagoenean".

1951n jaiotako 36 arrasatear ederto ibili ziren Lizarra aldean

Joan den urriaren 22an, 1951n jaiotako arrasatear talde batek urteroko ospakizuna egin zuen. Aurten 60 urte bete dituztela ospatu zuten. Lizarra (Nafarroa) aldera egin zuten irteera, eta, Iratxe upategia bisitatu ostean, Lizarrako jatetxe baten bazkaldu zuten. 36 lagun bildu ziren, eta, adierazi dutenez, ederto ibili ziren.





Esparterok eta Marotok 1839an sinatutako hitzarmena *Bergarako besarkada* izenarekin ezagutzen da. | GOIENA

'Bergarako besarkada'-ren gaineko muntaia jarriko dute Irizar jauregian

Urtarriletik aurrera Maroto eta Esparterok 1839an sinatu zuten hitzarmenari buruzko panelak izango dira Barrenkaleko Irizar jauregiko sarreran

EDU MENDIBIL | BERGARA

Bergarako besarkada gogoratuko duen muntaia museografikoa jarriko dute Irizar jauregian. Udaleko Turismo eta Ondare Zerbitzua ari da hori prestatzen eta baliteke urtarrilean gertu izatea. Irizar jauregiko sarreran hainbat panel jarriko dituzte *Bergarako besarkada*-ren gainean. Maroto jeneral karlistak eta Espartero jeneral liberalak Bergaran hitzarmena sinatu zuten 1839ko abuztuaren 31n. Horri esker, I. Karlistaldiaren amaiera

iritsi zen Euskal Herrira. 1833an hasi zen I. Karlistaldia.

Muntaia, esan bezala, Irizar jauregian izango da aurrerantzean. Horrekin batera, Ereiten enpresa *Bergarako besarkada*-ren gaineko liburuxka prestatzen ari da. Ikerketa lanetan hasitakoa da Ereiten eta, besteak beste, I. Karlistaldiak eta *besarkada*-k Bergaran izan zuten eragina ikerituko dute. Dibulgazio liburuxkak 16 orrialde izango ditu eta Turismo Bulegoan eskuratu ahal izango da. *Bergarako besarkada*-ren

material osagarri hori egitea eta ikerketa historikoa egitea Ereiten enpresari adjudikatu zaio, 11.835 eurotan.

Bergara monumentala

Bestalde, Turismo eta Ondare Zerbitzua Bergara monumentalaren gaineko plano gertatzen ari da. Monumentu aldetik Bergarak duen eskaintza, elementu aipagarrienak eta Bergarari buruzko historia laburra batuko dute bertan. Abenduan aurkeztuko dute plano hori.

Keinuen hizkuntzari buruzko ikastaroa

E.M. | BERGARA

Aransgik, Gipuzkoako pertsona gorren familien elkar-teak, keinuen hizkuntza ikasteko ikastaroak antolatu ditu. Gorrekin komunikazioa hobetu nahi duten debagoiendar guztiei daude zuzenduta eta elkarteak Bergaran duen egoitzan izango dira eskolak, urtarriletik maiatzera. Hastapen eta sakontze mailak izango dira. Aransgik Bergarako Udaleko Gizarte Ongizate Sailaren laguntza izan du ikastarook antolatzeke orduan.

30 ordu

Ikastaroak 30 ordukoak izango dira eta, esan bezala, hastapen eta sakontze mailak egongo dira aukeran. Hastapen ikastaroko eskolei dagokienez, eguaztenetan izango dira, 19:00etatik 21:00etara. Matrikula 85 euro da.

Esan bezala, keinuen hizkuntza ikasteko interesatutako ibarreko edozeinek har dezake parte ikastaroetan. Izan ere, aurreko urteotan erantzun ona jaso izan dute Aransgik antolatutako ikastaroei.

Informazio gehiago jasoetzeko, zuzendu lehenbailehen Aransgiko gorren zerbitzu egoitzara, Boni Laskurain pasealekuan, edo deitu, bestela, 943 76 27 03 telefono zenbakira. Plaza mugatuak dira.

Lehen sorospen ikastaroa Bergaran, eguaztenean hasita


Eguaztenean, azaroaren 2an, sorosle eta lehen mailako sorospen ikastaroa hasiko da. DYAK emango du. Ikastaroak hiru aste iraungo du, azaroaren 22ra arte, eta eskolak astelehenetik egu-bakoitzera izango dira, 19:15etik 21:15era, Bergarako kultura etxean. Matrikula 100 euro da, ikastarorako txostena barne. Argibidetarako 943 46 46 22 telefonora jo dezakezue.

Ekonomia jardueren gaineko zerga, azaroaren 18ra arte

Ekonomia jardueren gaineko zergaren erreziboak ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 18ra arte dago zabalik. Ondoren, erre-karguaz kobratuko dute. Edozein argibidetarako udal-letxera edo 943 77 91 64 telefono zenbakira jo dezakezue.

Moises Azpiazu dantza taldeko gurasoen batzarra eguenean

Moises Azpiazu dantza taldeak deituta, eguenean, azaroaren 3an, batzarra izango da Irizar jauregiko hirugarren solairuko areto nagusian, 19:00etan. Besteak beste, 2011-2012 ikasturteko eskolen ordutegi proposamenaa aztertuko dute. Matrikula orria beteta duten guraso guztiei zuzendutako batzarra da.



Mod Time eta Mr. Klin, zapatuan Tartufon

Zapatuan, azaroaren 5ean, Mod Time musika taldea eta Mr. Klin disko-jartzailea izango dira Tartufon. Javier Sun ezagunarekin batera Anhoa Zinkunegik (bateria) eta Iñigo Munduatek (baxua) osatzen dute Mod Time. *De sol a sol* diskoa kaleratu berri dute eta haien talde kutunetako bat den The Who-ren *Mary Anne with the shaky hands* abestiaren bertsioa jaso dute. Mr. Klin goitizenaren atzean, berriz, Jokin Elkoroberezibar bergararra dago. Nagusiki 1960ko hamarkadako biniloak eroango ditu Tartufora: rock-and-bluesa, soula, garagea, freakbeat taldeenak... Zapatuko emanaldi bikoitza 23:30ean hasiko da. Sarrera 8 euro da.



Ander Errasti: "Enpresei erabakiak hartzen laguntzeko lana da"

Irakasle bergararrak 'International Manufacturing Networks: Global Operations design and management' liburua aurkeztu berri du BECen

EDU MENDIBIL | BERGARA

Ander Errasti Tecnun Unibertsitateko irakasle bergararrak *International Manufacturing Networks: Global Operations design and management* liburua aurkeztu berri du. Eguaztenean, Jaurlaritzako Industria eta Berrikuntza sailak eta SPRIk gaiaren gainean BECen egindako jardunaldien barruan, liburua aurkeztu zuten. Irizar eta Ulma enpresetako ordezkariekin batera hitzaldia egin zuen Errastik BECen.

Logistika eta Operazioen irakaslea da Errasti Donostiako Tecnun-eko Fakultatean. Liburuaren gainean zera diosku: "Munduko ekonomiaren gaurko egoeran ezinbestean gogoeta egin behar dugu erronka berriei arrakastaz aurre egiteko estrategia egokienak aukeratzeko. Liburuaren helburua zera da: enpresei erabakiak hartzen laguntzea, baita beraien eragiketarakan kanpoan definitzen eta diseinatzen laguntzea ere". Besteak beste, ingurune globaletan jardutean enpresek dituzten arazo eta erronka berriak aztertzen ditu egileak.

Kolaboratzaile bergararrak

Hainbat kolaborazio izan ditu Ander Errastik liburuan, tartean Jose Alberto Eguren eta Kepa Mendibil bergararrenak. Egurenen kasuan, industria ingeniaria da eta hainbat enpresatan jardun du. Gaur egun Mondragon Unibertsitatean dabil lanean, industria antolakuntza sailean. Kepa Mendibil, berriz, Eskozian bizi da aspaldi eta Glasgowko Strathclyde Unibertsitateko irakaslea da. Hainbat ikerketa lan




Ander Errasti eguazteneko ekitaldian, BECen.

eman ditu argitara dagoeneko. Mendibil eta Egurenekin batera, Migel Mari Egaña irakasle oñatiarra ere badago kolaboratzaileen artean eta nazioarteko hainbat adituren iritziak ere jasotzen dira liburuan.

Kontsulta gida

Nazioartekotze-prozesua askotan landu da negozioren ikuspegitik, baina oso gutxitan haren euskarri izan behar duen sistema produktiboaren eta logistikokoaren ikuspegitik. Hain zuzen ere, era-



Liburuaren azala.

giketa produktibo eta logistikoren estrategian sakondu du Ander Errastik. Enpresako estrategia aztertu, ebaluatu, definitu eta hedatu behar duten zuzendarientzako kontsulta-gida izatea du helburu haren lanak. Bernabe Unda Industria sailburuaren hitzetan, "liburu osoa *Globope* ereduaren laburbiltzen da, eta oso erabilgarria izango da nazioartekotze-prozesuetan murgilduta dauden euskal enpresentzat". *Globope* ereduak unitate produktiboen atzerriko ezarpena aurre egiteko moduari egiten dio erreferentzia.

Jaurlaritzaren edizioa

Eusko Jaurlaritzak editatu du Ander Errastiren lana eta banaketaz ere Jaurlaritzako Industria saila arduratuko da. Hasiara baten, 500 aleko tirada izan du Ander Errastiren lanak eta han eta hemen banatzen dihardute.

KINTADAK

1962AN JAIOTAKOAK

1962koen afaria Azpeitxi jate-txean, azaroaren 5ean. Izenematea (10 euro) Ariznoan, Deportivon edo Azpeitxin.

1940KOEN BAZKARIA

1940an jaiotako bazkaria azaroaren 5ean, Agorrosinen. Aurretik, meza izango dute San Lorentzon, 13:30ean. Izenematea: 943 76 35 76 (Paco) edo 943 76 30 26 (Encarna).

1938KOEN OSPAKIZUNA

1938an jaiotako ospakizuna azaroaren 5ean Azpeitxi jate-txean. Izenematea: 943 76 18 64 (Miguel Lazkano) edo 943 76 35 17 (Mari Karmen Leturia).

1968AN JAIOTAKOAK

1968koen afaria azaroaren 5ean Tartufon. Izenematea Deportivon, 10 euro aurreratuta.

1958KOEN AFARIA

Azaroaren 5ean Zumelaga jate-txean. Frontoian elkartuko dira, 20:30ean. Izenematea (20 euro) Usoa tabernan.

1935EAN JAIOTAKOAK

1935an jaiotako bazkaria azaroaren 6an Zumelagan, 14:30ean. Izenematea (12 euro) Euskadiko Kutxan.

1943KOEN BAZKARIA

1943an jaiotako bazkaria azaroaren 12an Azpeitxi jate-txean. Izenematea: 943 76 16 13 (Arantxa) edo 943 76 53 22 (Tejidos Fernandez).

1946KOEN BAZKARIA

1946an jaiotako bazkaria azaroaren 12an Tartufon. Izenematea bertan: 943 76 35 51.

1930EKOEN BAZKARIA

1930ean jaiotako bazkaria azaroaren 12an Zumelagan. Izenematea: 943 76 22 22 edo 943 76 26 23.

1947AN JAIOTAKOAK

1947koen afaria azaroaren 12an Agorrosinen. Euskadiko Kutxako 0091140069 kontuan 45 euro ordaindu behar dira.

1933KOEN BAZKARIA

1933an jaiotako bazkaria azaroaren 13an Azpeitxi jate-txean. Izenematea (6 euro) Intxortan edo Azpeitxin.

1934AN JAIOTAKOAK

1934koen bazkaria azaroaren 19an Errekin. Izenematea (12 euro) Errekin bertan.

1948KOEN AFARIA

1948an jaiotako afaria azaroaren 19an Zabalan. Izenematea (55 euro) Euskadiko Kutxan.

1953AN JAIOTAKOAK

1953koen afaria eta dantzaldia azaroaren 19an Txarrantxa jate-txean. Izenematea (15 euro) Txarrantxan edo ONCEko kioskoan (Tasio).

Ataungo Barandiaran museoan

Zahar Berri eta Berriketan egitasmoen asteburutako ekintzen barruan, Ataungo Barandiaran museoira irteera egin zuten aurreko zapatuan. Aita Barandiaranen omenezko museoarekin gozatzeaz gain, hango zerrategia eta errota ikusteko aukera ere izan zuten. Hangoen azalpenei esker, orain dela gutxira arte nola funtzionatzen zuten eta nola bizi ziren jakin zuten. Goiz ederra igaro zuten argazkikoek.





Alkatea, zinegotziak eta udal teknikariak urriko osoko bilkuran. | MIREIA BIKUÑA

%2,82 igoko dira zergak eta tasak 2012. urtean

Bilduk eta EAJk aho batez onartu zuten igoera urriko osokoan; dena den, hainbat salbuespen egongo dira

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

2012rako zergen ordenantzak aho batez onartu zituzten urriko osoko bilkuran. Bilduk eta EAJk alde bozkatu zuten. Hori horrela, zerga eta tasak %2,82 igoko dira, Euskal Herriko abuztuko urte arteko inflazioaren parekoa.

Igoera hori aplikatuko zaie udal tasa eta zerga gehienei, baina badaude salbuespenak: adibidez, hiri hondasun higiezinaren gaineko zergan, orain arte familia ugariak izan duten bonifikazioa emateko prozedura aldatu egin dute. 2012an familiako kideak eta etxekeko diru-sarrerak hartuko dituzte kontuan. Bi faktore horiek aintzat hartuta taula bat egin dute eta zenbateko batzuk zehaztu

dituzte. Bonifikazio horretarako 180.000 euroko balio katastrala ipini dute oinarri moduan. Bestalde, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagokionez, baserriko estruktura sendotzeko lanek eta baserrian bigarren etxebizitza egiteko lanek %25eko bonifikazioa izango dute.

Batzuek %5eko igoera

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergan bi dira igoera orokorra izango ez dutenak: alde batetik, 14 zaldi fiskaleko ibilgailuek, tartean autokarabaneak, %5eko igoera izango dute; eta beste alde batetik, traktoreei tasa erdi preziora jaitsiko zaie. %5eko igoera izango dute baita ere udal

jabego publikoaren erabilpenek; Udalaren jabetzakoak diren mahaiek, aukiek eta oholtzaren alokairuek; eta igeriketa ikastaroek eta ur-ekintzek. Kiroldegiko gainerako tasek %2,82ko igoera izango dute.

Izoztutako tasak

Igoerarik izango ez duten tasak ere onartu zituzten. Izoztu egingo da establezimendu berrien irekitze-lizentziak ematearren ordaindu beharreko tasa. Merkataritza, zerbitzu eta industria eta ostalaritzari dagozkion irekitze-tasak ez dituzte igoko; ezta lur azpiko apar-kalekuen tarifak ere.

Irizpide bera tasa askotan

Ordenantza fiskaletan atal baten baino gehiagotan agertzen den bonifikazioa desbabes egoeran daudenendako da: tasa orokorra txikitu egingo zaie familia unitatearen diru-sarreraren eta kideen kopuruaren arabera. Irizpide hori aplikatu da, besteak beste, ludotekako, igeriketako, euskaltegiko eta kulturako ikastaroetan.

Bestalde, udal instalazioen erabilera -Santa Ana antzokia, kultura etxea eta pilotalekua- bonifikazioa izango dute irabazi asmorik gabeko erakundeek. Oñatikoak izan edo ez, ez dute tasarik ordainduko. Hori bai, sarrera kobratzen badute, 120 euro ordaindu beharko dute.

Bildu eta EAJ

Mikel Biain alkateak esan zuen 2011ko ordenantzak hartu dituztela oinarri. "Abuztutik abuzturako KPI adina igoko dugu. 2011ko ordenantzetan oinarritu gara, baina hainbat bonifikaziotan aldatu egin ditugu".

EAJren izenean Lourdes Idoiagak egin zuen berba: "Onartu egin dugu, txostenaren %80 aurreko Gobernuaren proposamenean oinarrituta dagoelako. Beste herri batzuetan igoera handiagoa izan da. Bergaran, adibidez, %3".

ESANAK

"Abuztutik abuztura arteko KPI adina igoko ditugu zergak, salbuespenekin"

MIKEL BIAIN | ALKATEA

"Txostenaren %80 aurreko Gobernuaren proposamenean oinarritu duzue"

LOURDES IDOIAGA | EAJ

Mendi hamabostaldiko pelikula zineklubean

M.B. | OÑATI

Zineklub taldekoek gertatu dute azarorako emanaldien programa. Lau pelikula emango dituzte; tartean, Aloña Mendi elkarteko mendi sailak antolatzen duen hamabostaldiko filma. Danny Boylek zuzendutako *127 horas* emango dute, 20:00etan kultura etxekeko zinema-aretoan.

Gainerako hirurak lotuta

Dagoeneko lotuta dituztenak gaineko hiru egunenak dira. Aste honetan, azaroren 3an, Thomas McCarthyren *Win Win* pelikula emango dute, 20:00etan. Paul Giamatti da protagonista eta Mike Flaherty izeneko abokatuaen bizipenak kontatzen ditu.

Bestalde, azaroren 10ean, *Incendies* delako pelikula emango dute. Denis Villeneuvek Kanadan filmatutako pelikula da eta bi anaia bikik ama hiltzerakoan egiten duten aurkikuntza kontatzen du: ezagutzen ez duten anaia bat dute.

Azkenik, azaroren 27an, Montxo Armendarizen *No tengas miedo* emango dute.

Gaur zozketatuko dituzte biharko eta etziko ehiza-postuak

Bihar jaieguna dela-eta, gaur zozketatuko dituzte biharko eta etziko ehiza postuak Oñati tabernan. 19:30etik 20:00etara izenak jasoko dituzte eta segidan zozketa egingo dute. Dauden ehiza-postuak baino jende gutxiagok ematen badu izena, ehiztari bakoitzak aukeratu du zein postu gura duen.

Eguaztenean berriro egingo dute Aizkorri-Aratz parke naturalean dauden ehiza-postuen zozketa. Azkena azaroren 9an egingo dute.

Eguztenean hasiko dituzte eskulan ikastaroak

Kultura batzordeak antolatutako eskulan ikastaroak asteon hasiko dituzte. Hain justu ere, zeramika, hari eta puntu-lan eta gazteendako pintura ikastaroak azaroren 2an hasiko dituzte. Bestalde, gazteendako pintura ikastaroko beste taldeak eguenean hasiko du ikastaroa. Nagusiendako pintura eta hari eta puntu-laneko bigarren taldea azaroren 7an hasiko da; pintura dekoratiboa azaroren 8an; eta bitxigintza 11n. Guztiak, Bidebarrietan.

Hilerria zabalik eta dotore Domu Santu egunerako

Bihar, azaroko 1, Domu Santu eguna ospatzen du Eliza Katolikoak, eta hilerria bisitatzeko ohitura dute askok. Oñatikoa zabalik egongo da 08:00etatik 21:00etara arte. Gauetan itxita egongo da. Azken egunetan herritar asko joan da hilerria hilobiak garbitu eta lore-sortak eta kandelak ipintzera.



MIREIA BIKUÑA

ESKORIATZA

Kide berriak ditu Jose Arana fundazioak

Osoko bilkura berean, erretiratuen taberna bi hilabetez esleitzeko deialdia onartu zuten

M.B. | ESKORIATZA

Jose Arana fundazioko patronoen juntak kide berriak ditu. Eguaztenean egindako ezohiko osoko bilkuran, udal taldeen ordezkariak izendatu zituzten. Zazpi lagun proposatu dituzte: EAJ udal taldeak Puri Regidor aukeratu du; eta Bilduk Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Arantza Iregi eta Dorleta Lezeta zinegotzi ohia. Gainerako alderdiek egungo udalbatza osatzen dutenak proposatu dituzte: Elizateetatik Iñaki Madinabeitia joango da, PSE-EE tal-

detik Jose Luis Morcillo, eta EB-Berdeak taldetik, Juan Luis Merino. Beñat Herce alkatea geratu zen egunotan patronatuko gainerako kideei proposamen horien berri emateaz.

Txukunberriekin eten

Bestalde, osoko bilkura berean erretiratuen tabernarekin lotutako hiru puntu onartu zituzten. Orain arte Txukunberri enpresak izan du horren ardura, eta lan-kidetza hitzarmena amaitutzat eman zuten, eta behin betiko



Egoitzako patronatuak kide berriak ditu. | M.B.

esleipena egin arte aldi baterako adjudikazioa egitea erabaki zuen aho batez udalbatzak. Gizarte Zerbitzuetako langileek lanean dihardute azarorako eta abendurako lagun bat kontratatzeko.

Horren harira, urtarriletik aurrera taberna ustiatzeko lehia-keta arautuko duen baldintzen

agiria onartu zuten aho batez. Plegu horretan, besteak beste, jakinarazten da esleipendunak ez diola Udalari ordainduko taberna ustiatzeki sortutako inongo preziorik. Horren harira, gogorazi du kultura etxeko beheko solairuan dauden komunak ere garbitu beharko dituela.

Atxorrotz monumentu izendapenari alegazioak aurkezteko epea zabalik

M.B. | ESKORIATZA

Atxorrotzeko Gazteluaren Gune Arkeologikoa, monumentu izendapenaz, sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko espediente hasi du Jaurlaritzak, eta, EHAAn publikatu ondoren, dagoneko zabalik dago horri alegazioak aurkezteko epea; azaroaren 14ra arte egongo da zabalik. Ebazpenari buruzko kontsultak, alega-

zioak eta egokitzen jotzen diren agirien aurkezpena Eusko Jaurlaritzako Euskal Kultura Ondarearen Zentroan egin beharko dira: hain justu ere, Jaurlaritzak Gasteizko Lakua auzoan duen egoitzan.

Izendapena Atxorrotzen babsa ziurtatuko duen figura legala izango da. Ebazpenak, babesgunea mugatzeaz gain, bi eremutan



Atxorrotzeko ermita. | M.B.

sailkatzen du: tontorra eta aisialdi-gunea. Han egin daitezkeen ekintzak ere mugatzen ditu: ermita inguruan ekintza kulturalak bakarrik egin ahal izango dira, eta beharra izanez gero, ermita zutik mantentzeko lanak. Bigarren eremuan, oster, basogintza eta abeltzaintza jarduerak baimenduta egongo dira, baina mugekin.

Gauzak behar bezala irteten badira, Atxorrotzeko ingurunea kultura ondarearen izendapena datorren urteko irailerako iritsiko.

ARETXABALETA



Txarapeako geltokia tokiz aldatuko dute. | MIRARI ALTUBE

Autobus geltoki berriak aukeratu dituzte dagoeneko

Aldaketa herritarren kexen ondotik dator; bizpahiru astean egokituko dituzte geltokiak

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaleako Udalak uztailean martxan jarritako hainbat autobus geltoki aldatzea erabaki du oraingo Udal Gobernuak. Aldaketa herritarren kexen ondotik dator;

bereziki, Txarapeako geltokiaren kokaguneak izan ditu kritika gehien. Hala, Udalak, horren harira, proposamenak utzi zituen Arkupen, herritarrek egokiena aukera zezaten. Irail erdialdean

itxi zen horretarako epea, eta joan den astelehenean egindako gobernu batzordean oraindik aukeratu barik zeuden geltokiak erabaki zituzten; hain justu ere, Arrasate eta Eskoriatza arteko ibilbidekoak ziren.

Txarapeatik Nafarroara

Eskoriatza-Arrasate ibilbidea dagoenetan geratuko da: hain justu ere, Araba ibilbidea, Nafarroa kalea (biribilgunea baino lehen) eta Lausitta kalea. Txarapeako geltokia da aldatuko dena, Nafarroa kalera eroango dute segurtasunagatik. Geltoki hori urrunago dago eta gauean segurtasun-gabezia sumatzen da.

Arrasate-Eskoriatza ibilbidea, oster, guztiz aldatuko da eta herri barrutik pasatuko da orain. Kuartel zaharraren aurrean geltoki berria egongo dute (orain arte ez da sekula geltokirik egon han); bigarrena Errekabarren kalean egongo da (sasoi baten ere bazegoen) eta Arabal ibilbidekoak ez du aldatetarik izango. Udalak uste du bizpahiru aste beharko direla egokitzen lanak egiteko.

San Migeletako argazkiak ikusgai jarriko dituzte etzi

M.B. | ARETXABALETA

Etzi, eguaztena, San Migeletako argazkiak ikusgai egongo dira Arkupen, honako orduetegiak: asteleheneetik egubakoitzera 11:00etara 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara eta zapatuan goizez.

Bestalde, eguenean, hilak 3, Goio Arrietak *Sustraiak han dituenak* emanaldia egingo du Arkupeko Zariaia aretoan, 19:30ean. Horretarako sarrerak 5 euro balio du.

Ohikoa den legez, zinema ere izango da asteon. *Urte berri on, amona* ikusi ahal izango da egubakoitzean eta zapatuan, 22:00etan; domekan, 19:30ean; eta astelehenean, 16:00etan. Haurrek, oster, *Cars 2* filma izango dute zapatuan eta domekan, 17:00etan.

Domu Santu egunaren harira mezak izango dira

M.B. | ESKORIATZA

Mezak izango dira egunotan Domu Santu egunaren harira. Aretxabaletan honakoak dira orduetegiak: gaur, astelehena, 19:00etan izango da San Migel parrokian; eta bihar, Domu Santu eguna, domekako orduetgia izango dute mezek: hain justu, 09:00etan monasterioan eta 11:30ean parrokian.

Bestalde, etzi, eguaztena, hildakoen egunarekin batera, haien aldeko mezak egingo dituzte, 09:00etan Agustindarren monasterioan eta 19:00etan parrokian.

Eskoriatzan ere hainbat elizkizun egingo dute eguaztena bitartean. Gaur, astelehena, hitzordu bikoitza dago: 18:00etan herriko zaharren egoitzan eta 19:00etan San Pedro parrokian. Horrez gain, bihar, martitzena, 12:30ean egingo dute meza parrokian eta etzi, eguaztena, 19:00etan toki berean.

Hilerriak beti zabalik

Bestalde, egunotan kanposantura bisita egiteko ohitura dago, eta, hortaz, asko izango dira egunotan hildako senitartekoei eta lagunei omenaldi xumea egitera kanposantura joaten direnak. Hilobiak eta panteoiak garbitu eta, bidez batez, lorez hornitzeko ohitura dago. Eskoriatzako eta Aretxabaleako hilerriak zabalik daude beti, eta, hortaz, edozein ordutan joan daitezke herri-tarrak hara.

Brikolajea eta etxeko lanak egiten ikasteko tailerrak daude

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaleako Berdintasun Zerbitzuak, erantzukizunen parekatzea bultzatu guran, bi ikastaro-tailer antolatu ditu azaro eta abendurako. Brikolaje ikastaroan, besteak beste, iturgintza eta elektrizitateaz jardungo dute. Azaroaren 9tik abenduaren 21era izango dira saioak, eguaztenetan. Etxea eroaten ikasteko formazioan, oster, sukaldaritza, garbiketa eta diru kontuak ikasteko aukera egongo da azaroaren 11tik abenduaren 23ra, egubakoitzean. 17:00etatik 19:00etara izango dira eskolak, Arkupen.

Azaroaren 7ra arte eman daiteke izena Arkupen edo 943 08 10 01 telefono zenbakian. Ikastaroak debalde dira, eta plazak mugatuak.



Bertsolari gazteendako tranpolina da Bertxoko. Irudian, duela bi urteko edizioa. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

ARAMAIO

Bertxoko sariketa hasiko da eguenean, bertsolari gazteei plazak emateko asmoz

Paula Amilburu eta Xabi Igoa aramaiorak azaroaren 11n eta 18an hartuko dute parte, hurrenez hurren; finala, Iturrieta sagardotegian, azaroaren 25ean

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Eguen honetan, azaroak 3, hasiko da Bertxoko sariketa. Hala Bedi irratiak eta Arabako Bertsozale elkarteak lankidetzan eta Arabako Aldundiaren babesarekin antolatzen duten bertsolari gazteendako sariketa da –ez dago adin muga zehatzik baina gutxi gorabehera 25 urtera arteko bertsolariek hartzen dute parte– eta dagoeneko Arabako bertso mugimenduaren urteroko zita bihurtu da.

Helburu finkoak ditu: bertsolari gazteei plazak ematea, eta Arabako entzuleriari saio dinamiko, fresko eta animatuak eskaintzea.

Bertsolariek egin beharrekoa

Bertsolariek kanporaketetan egin beharreko bertsoak hauek izango dira: agurra –kantu eza-

gun batean oinarritua eta puntuagarria–, zortziko handian zein txikian hiruna bertso ofiziotan, puntuari erantzuna –bina puntu–, bakarkako bertso bat gaia formatu berezian emanda eta hirunaka jarrita hiruna koplak Santi Mamiñe doinuarekin.

Finalean, berriz, kanporaketetako lana errepikatuko dute eta gainera, kartzela ere izango dute: hamarrek txikian hiruna bertso egin beharko ditu bertsolari bakoitzak.

Aramaio, protagonista

2011ko edizioan 18 bertsolarik hartuko dute parte eta hiru kanporaketa jokatu dira. Lehena, eguenean izango da, Gasteizko Errexala elkartearen.

Aurten ere Aramaio protagonista izango da Bertxoko sariketan. Bi aramaiorrek har-

tuko dute parte, eta gainera, finala Iturrieta sagardotegian jokatu da, azaroaren 25ean. Paula Amilburu eta Xabi Igoak osatuko dute Aramaio ordezkaritza: Amilburuk azaroaren 11n Kanpezuko Ibernalo etxean abestuko du eta Igoak, berriz, hilaren 18an Aguraingo Aitxuri elkartearen Kanporaketa bakoitzeko lehen bi onenak sailkatuko dira finalera eta beraz, Iturrietan jokatu den finalean sei bertsolari izango dira.

Saio guztiak afalostean hasiko dira; afaria 20:30ean hasiko da eta afaria, berriz, 22:30ean. Afarirako saioa baino bi egun lehenago eman behar da izena. Bi modu daude horretarako: 675 707 971 telefono zenbakira deituta edo araba.sustapena@bertsozale.com helbide elektronikora mezua bidalita.

ELGETA

Auzo-izenak, baserriak eta ermitak jasotzen dituzten seinaleak ipinita

Udalak, bestalde, herri-bideak katalogatu eta artxiboa ordenatzeko lanpostu deialdia egin du

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aurreko asteko haizetea ez zen aitzakia izan, eta Laister enpresako beharginak aurreikusitako seinaleak ipintzen aritu ziren eguaztenetik aurrera. Gipuzkoako foru aldundiak emandako diru-laguntza bati esker seinalatu dira Elgetako auzo guztiak. Panelak egurrezkoak dira eta bertan auzo bakoitzean dauden baserrien edo etxeen izenak agertzen dira, eta auzoan intereseko elementurik egonez gero horiek ere izendatuta azaltzen dira. Arantzeta auzoan, esaterako, San Blas eta San Martin ermitak iragartzen dira.

Udalak, bestalde, lanpostu berri baterako deialdia egin du.

Herri-bideak eta ondasunak katalogatzeko eta artxibo dokumentala ordenatzeko pertsona bat behar dute. Sei hilabeteko iraupena duen eta lanegun osokoa den kontratua eskaintzen du Udalak. Curriculumak lehenbailehen bidali behar dira.

Tai-txi saioa eguenean

Eguenean, azaroak 3, hasiko dira kirol zerbitzuko tai-txi eskolak. Martitzenetan eta eguenean egingo dira saiook Herri eskolan, 20:30ean hasita. Hilabeteko atzerapenarekin eta iragarritako egunak aldatuta hasiko dira tai-txi saioak. Horregatik guztiatik barkamena eskatzen die Udalak erabiltzaileei.



Larragibel auzoaren sarreran ipini duten seinalea. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Ateak zabalik izango ditu museoak San Milixanetan

Hainbat gatz mota dastatu eta saldu egingo dituzte, ohiko erakustaldiarekin batera

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Hamabost egun eskas geratzen dira San Milixan eguneko feriarako, eta Udaleko eta gatz museo-ko arduradunak eta herritarrek bete-betean dabilta antolatze lanetan.

Gatz museoa ekimen berriekin dator eta ate irekiak egingo dituzte. Beti izan da zabalik museoa feria egunean, baina aurten debalde pasatzeko aukera izango dute bisitariek. Hala jakinarazi du Aitziber Gorosabel arduradunak: "Betiko erakusketa ikusteko egongo da, baita museoaren goiko parte guztia ere. Sua egingo dugu, gainera, gatzaren ekoizpen prozesua erakusteko".

Horrez gain, gatzeko plastilinarekin eskulanak egiteko aukera izango dute neska-mutikoe eta maketa bat herrira

eroango dute ikusteko. Hori guztia gutxi ez, eta gatz motak erakutsi, probatzeko eskaini eta saltzeko izango dituzte: gatz gorria, beltza...

Sagardoaren bueltan

San Milixan eguneko feriak 15 bat artisau elkartuko ditu pilotalekuan eta erakustaldia ere egingo dute horietako batzuek. Sorginak emakume elkarteko kideek ere izango dute tokia pilotalekuan: urtero legez, taloa eta edatekoa eskainiko diete feriarako doazenei.

Eta herritarrek sagardoaren gaineko erakustaldia egingo dute plazan. Sagardoaren ekoizpenak eskatzen duen prozesu guztiaren berri emango dute –txikitu, zukua atera, kupelean gorde...– eta sagar-zukua probatu ahal izango da.

ANTZUOLA

Elurteei aurre egiteko planaz informatzeko bilerak egingo dira eguenean atarrietako arduradunekin

Elurte garaietarako argibideak emango dituzte udal ordezkariak

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Azken elurteak izan direnean Udalak informazioa zabaltzeko bandoa kaleratu izan du nork bere etxe aurreko elurra ken zezan. Bada, elurra egiten duenean ahalik eta arazo gutxien izateko plana du Udalak eta elurteen aurrean nola jokatu jakiteko argibideak emango dituzte egueneko bileran.

Bi bilera egingo dira azaroaren 3an, eguena, udaletxeko osoko bilkuren aretoan: 18:00etan plazatik gorako atarrietako arduradunekin bilduko dira udal ordezkariak; 18:30ean, berriz, plazatik beheko atarrietako arduradunekin. Udaletik dei egin dute ahalik eta arduradun gehien joan daitezen bilerara, gaia "garrantzitsua" baita.

Herri batzarra

Bestalde, Antzuolako ezker abertzaleak deituta herri batzarra egingo da azaroaren 2an, eguaztena, 19:00etan, Olarango hitzaldi-aretoan. Bi gai landuko dituzte batzarrean: alde batetik, egoera politiko berriaren gainean arituko dira; eta, bestetik, azaroaren 20ko Espainiako hauteskundeak izango dituzte aztergai.

BADATOR...



Azaroaren 5 eta 6an Bergaran izango gara!
Etorri zuen lagunak animatzera.

Bergarako eta **Antzuolako**
 partaideok, eman azken errepasoa
 abestiari eta koreografiari!

IKUSKIZUNAK

AZAROA

BERGARA 5 / 6

Zabalotegi aretoan.

ARETXABALETA 12 / 13

Arkupe aretoan.

Abestien letrak eta koreografiaren bideoak
<http://zugaz.com/blog/>

943 25 05 05

goiena[“]
 KOMUNIKAZIO TALDEA

KIROLA

FUTBOLA

Mondrak lo hasi zuen partidua eta Rotetak ondo aprobetxatu zuen

- ▶ Lehenengo 20 minutuetan bi gol jaso zituen talde arrasatearrak
- ▶ Bigarren zatian egindako aldaketekin taldeak beste itxura bat eman zuen



Xabi Rotetako atzelari batekin baloia hartzeko borrokan. | JOSETXO ARANTZABAL

EMAITZA
MONDRA
1-3
ROTETA

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Mondra arerio zuzen baten aurka behar baino kontzentrazio gutxiagorekin irten zen Mojategiko futbol zelaira eta aurkariak ez zuen aukera hori galdu. Unai Igleasiasek zuzendutako taldeak lehenengo 20 minutuetan bi gol jaso zituen eta, nahiz eta bigarren zatian itxura hobegoa eman, ezin izan zion markagailuari buelta eman.

Norgehiagokaren hasierako minutuetan talde zuri-moreak izan zuen baloia eta, 3. minutuan, Markel Crespok gola egiteko aukera izan zuen taldeak korneurretik ateratako baloi bat hartuta. Rotetaren erantzuna lau minutu beranduago iritsi zen: kontraeraso azkar bat egin eta aurrelari donostiarrak atzelariari aurre hartu, atezaina aurrerata zegoela ikusi eta baloia ate barruan sartu zuen.

Gola jaso ostean etxeko jokalarietan urduritasuna nabaritzen zen. 13. minutuan ateko sake bat

gaizki atera eta Rotetaren gol aukera garbia sortu zuen, baina oraingoan atzelariak argi ibili ziren eta gol aukera ekiditea lortu zuten.

Baina bost minutu beranduago, Rotetako jokalariek batek eskuin hegaletik sartu, erdiraketa egin eta aurrelariak ate barrura bidali zuen baloia.

Bigarren gola sartu ostean, Roteta baloiaren jabe egin zen baina ez zuen beste gol bat sartzeko ahalegin handirik egin. Ala eta guztiz ere, 41. minutuan, korne baten ostean etorri zen hirugarren gola.

Bigarren zatian, berriz, Mondrak partiduan sartzeko ahalegina egin zuen eta baita lortu ere: 58. minutuan Jokin Pavok gola sartu zuen. Golaren ostean etxeko taldea gora etorri zen baina Rotetak falta taktikoak eginez gelditu zuen arrasatearren bultzada. 80. minutuan Zabalak buruan zauri bat egin eta ezin izan zuen jokatzeko jarraitu. Roteta, jokalariek gehiagorekin, arbitroak amaiera noiz adieraziko zain izan zen.

Hurrengoa, Ondarroan

Hurrengo jardunaldian, Aurrearen aurka, etxetik kanpo lehenengo puntuak lortzen saiatuko dira Rodriguezen mutilak.



ANDER MONEDERO

UNAI IGLESIAS
2. ENTRENATZAILEA

"Gaizki hasi dugu partidua. Hiru akats egin ditugu eta bi gol jaso"

Haserre bukatu zuen Unai Igleasiasek neurketa, izan ere, etxean gehiago egiteko gai direla uste du.

7. minutuan jaso duzue lehenengo gola. Partiduaren planteamendua aldatu behar izan duzue?

Gaizki hasi gara. Partiduaren lehenengo 20 minutuetan defentsan hiru akats izan ditugu eta bi gol jaso. Hori izan da partiduaren gakoa; etxean ezin dugu horrela jokatu.

Bigarren zatian taldeak beste itxura bat eman du.

Bai. Bigarren zati hasieran gola sartu dugu eta berdinketaren bila joan gara, baina, tamalez, ezin izan dugu gol gehiago egin.

Rotetakemaiztari ondo utsi dio.

Falta taktiko asko egin dizkigute eta jokoa gelditzea lortu dute.

FUTBOLA

Iñigo Machoren golari esker etxeko lehenengo garaipena lortu du Bergarak

Zapatura arte, etxean jokaturako denboraldiko partidu guztiak galdu zituen

EMAITZA
BERGARA
1-0
ELGOIBAR

A. M. | BERGARA

Behar zuen garaipena lortu zuen zapatuan Agorrosinen Bergara futbol taldeak. Izan ere, etxean jokaturako aurreko hiru partiduak galdu ostean, garaipena lortzea ezinbestekoa zen. Nahiz eta joka-

lariak presio hori izan, mahone-roek gogotsu hasi zuten partidua. Norgehiagokako lehenengo gol aukera garbia Elgoibarrek izan zuen, baina, ondoren, etxeko jokalariek erreakzionatu egin zuten eta 22. minutuan Iñigo Macho aurrelariak etxeko gola sartu zuen. Horren ostean, emaitzari eutsi beharrean, etxeko taldea bigarrenaren bila joan zen eta atsedendia baino lehen, beste bi gol aukera izan zituen.

Bigarren zatian ere, Bergara izan zen nagusi, baina nahiz eta gol aukera gehiago izan, ez zituen

aukera horiek aprobetxatu eta azken minutuetan sufritzea tokatu zitzaion. Elgoibarko jokalariek berdinketaren bila joan ziren, baina Bergarak ondo eutsi zion gol bateko errentari. Bukaeran, 1-0, Bergara nagusi.

Etxetik kanpo emaitza onak

Orain arte, Mondraren aurka izan ezik, Galanen mutilek etxetik kanpo jokaturako partidu guztietan, puntu bana lortu dute, gutxienez. Hurrengo astean, Oiarzunen aurka jokaturako dute Karla Lekuona zelaian.



Bergarako eta Elgoibarko jokalariek baloia lortzeko borrokan. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

Luzapenean gola eginda Pasaiak puntu bakarrarekin utzi zuen Aretxabaleta

Bi aldiz aurreratu zen Aretxabaleta atzo Ibarren jokaturako lehian; gehiago merezi zuten

EMAITZA
ARETXABALETA
2-2
PASAIK

ARANTZAZU EZKIBEL | ARETXABALETA
Haserre eta berotuta amaitu zuten atzo Aretxabaletako jokalariek eta jarraitzaileek. Inork ulertu ez zuten bost minutuko luzapena adierazi zuten epaileak; eta, zoritxarrez, bost minutu horietan sartu zuen berdinketaren gola Pasaiak. Hala, poltsikoan zituzten bi puntuek ihes egin zuten, eta bakarrarekin konformatu behar izan zuten UDak.

Penalti bidez lehenengo gola
Iker, Aritz, Beñat, Arri, Kerman, Gilen, Julen, Jonan, Sanchez, Perez eta Ibai irten ziren hasie-

rako hamaikakoan. Oso ondo hasi zuten lehia, partiduan sartuta egon ziren hasieratik.

Lehenengo gola Perezek egin zuen penalti bidez zazpigarren minutuan. Hurrengo jokaldian Ibaik izan zuen gola egiteko aukera baina atezainak kornerrera bidali zuen baloia.

Lehenengo zatian egindako akats bakarraren ondorioz etorri zen Pasaiaren berdinketa. Ezkerretik barneratzea egin, baloia erdiratu eta area ertzetik jaurti zuen Pasaiako erdilariak.

25. minutuan Jonanek izan zuen etxekoendako aukera garbia. Zelai erdian baloia lapurtu eta kontraerasoa egin ondoren Jonanek jaurtiketak langa jo zuen.

Jokaldi politikak

Lehenengo zatiko azkeneko ordu laurdenean jokaldi politikak egin zituzten etxekoek: Ibaik ezkerretik barneratzea egin eta aurka-



Ibai baloiarekin erasoan; atzo gol bat egin zuen eta aukera politikak sortu zituen. | JOSETXO ARANTZABAL

riari hanka artetik baloia pasa ondoren erdiratzea egin zuen. Jaurtiketa kornerrera bota zuen Pasaiako atezainak.

Bigarren zatia nahasiagoa

Bigarren zatian etxeko jokalariek ondo kokatuta irten ziren eta joko ona egin zuten. Aurkaria baino gehiago izan ziren eta ondorioz gehiago merezi izan zuten.

Jokoa, baina, nahasi egin zen zelaian. Sanchezek egindako falta baten ondorioz Pasaiako atzelariak bigarren txartel horia ikusi eta zelaia utzi behar izan zuen. Joka-

lari bat gehiagorekin UDak ondo menderatu zuen jokoa. "Oso ondo ikusi dugu zer egin behar genuen", azaldu zuen amaieran Juanan entrenatzaileak.

70. minutuan gol ikusgarria sartu zuen Ibaik. Area kanpotik jaurti, baloia langa jo eta barrura sartu zuen. Etxekoek bigarren minutuan etxekoek hainbat aukera garbi izan zituzten baina ez ziren izan lehia erabakitzeke gauza. "Guk jarri dugu futbola, baloia ondo ukitu dugu...", zioen Juananek amaieran.

Etxeko bi jokalariek min hartuta aldaketa eskatu zuten: Aritzek eta Sanchezek.

Azkeneko minutuak oso nahasiak izan ziren. Hala, jokaldi nahasi batean, alderatze bat aprobetxatu zuten pasaiarrek berdinketaren gola egiteko. Luzapena zen, eta horrek asko haserretu zuen Aretxabaletako jendea.

"Ez dut ulertzen nola eman dituen bost minutu. Gure masajista behin sartu da zelaia eta minutu erdi egin du. Oso berotuta nago...", azaldu zuen UDako entrenatzaileak.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aurreko asteko garaipenari ez diote jarraipenik eman Aloña Mendiko mutilek

Tolosaren aurka 1-0 galdu zuten oñatiarrek ligako 8. jardunaldian

A.E. | OÑATI

Andoni Azkargorta entrenatzaileak pozik zegoen zapatuan taldeak egindako lanarekin. "Oso ondo" aritu zirela esan zigun, eta emaitza hobea merezi izan zutela.

Tolosa 1-0 nagusitu zen Aloñaren aurka. 40. minutuan egin zuten gola kornere baten ondoren; Aloñako jokalariek sartu zuten baloia euren atean.

Taldeak lan ona egin zuen

Aloña emaitza txarrekin hasi du denboraldia; joan zen aste

bukaeran lortu zuten oñatiarrek ligako lehenengo garaipena (2-1 Real Unionen aurka). Garaipenari jarraipena emateko aukera izan zuten zapatuan Tolosan, baina gola falta izan zuten.

"Gol aukera gutxi egin dugu Tolosak; guk ondo lotuta izan ditugu aurkariak eta kontraerasoan irteteko aukerak ere izan ditugu. Gola falta izan zaigu", azaldu zuen partidu amaieran Azkargorta entrenatzaileak. Jokoa-ri dagokionez "maila polita" hartu dutela azaldu du Azkargortak.

Orain, joko onari emaitza onek eman beharko diote jarraipena.

Azkargortak betiko taldearekin egin zion aurre Tolosaren aurkako lehiari.

Datorren astean, derbia

Etxekoek aurrean beste garaipen bat lortzea izango da oñatiarren helburua datorren astean. Aurkari zaila izango dute: Aretxabaleta. Derbiak beti izaten dira jokatzeko politikak eta horregatik intentsitate handiarekin irteten dira jokalariek.

EMAKUMEZKOEN FUTBOLA

Mondrak gehiago merezi izan zuen Abantoren aurkako norgehiagokan ligako bosgarren jardunaldian

A.E. | ARRASATE

Esku hutsik itzuli ziren zapatuan Mondrako neskek Abantoren aurkako lehiatik. 1-0 galdu zuten moretsoek. Gola 10. minutuan jaso zuten, izugarritzko gola gainera: kornere baten zuzenean sartu zuten baloia, gol olimpikoa. "Bigarren zutoinetik sartu zuten gola, eta hori ezin da geratu", azaldu zuen Jon Zuloaga Mondrako entrenatzaileak.

Partidu borrokatua izan zen eta arrasatearren lanak "emaitza hobea" merezi izan zuten.

Lehenengo zatian bizkaitarrak izan ziren baloiaren jabe, baina bigarren astean arrasatearrak gehiago izan ziren: "Indarrez irten gara, eta Abanto bere zelaian sartuta izan dugu", dio Zuloagak.

Datorren astean Mondrak Oiartzun hartuko du Mojategin, domekan.

Arizmendik, berdindu

Emakumezkoen hirugarren mailan Arizmendik 2-2 berdindu zuen Mutrikuren zelaian.

GAZTEAK

Jaun eta jabe Aloña, ibarreko derbian

Aloña Mendiko gazteek 4-0 irabazi zituen atzo Azkoagainen Bergarari. Jon Ander Kortabarria, Jon Regueiro, Xabier Irizar eta Anartz izan ziren golegileak. Futbol ona egin zuten oñatiarrek.



JOSETXO ARANTZABAL

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Irabazten hasi ziren Mikel Etxaberen mutilak baina epailearen erabaki zorrotzek erabaki zuten lehia

Aretxabaletako gazteek Lauro Ikastolaren aurka galdu egin zuten atzo arratsaldean. Mikel Etxaberen mutilak partidu ona egin zuten, presio handia egin zieten aurkariari eta indartsu aritu ziren zelaian. Gainera, markagailuan aurretik jarri ziren lehenengo zatian Beñat Olabek egindako gol bati esker. Bigarren zatian egin zituen Laurok hiru golak. 75. minutuan berdinketa egin zuten. Bigarren gola, oster, jokoz kanpo argi baten ondorioz izan zela esan zuen Etxabe entrenatzaileak. Hirugarrena luzapenean egin zuten, eta Etxaberen ustez oso zorrotza izan zen epailea Aretxabaletaren aurkako penaltia adierazterakoan. Hala, esku hutsik etorri ziren etxera aretxabaletarrak.



Isasmendi jaurtiketa egiten; egubakoitzean sei gol egin zituen. | JOSETXO ARANTZABAL

EUSKADIKO TXAPELKETA

Mozorroaren azpian otsoa dagoela erakutsi zuen talde mahoneroak Iturripen

- ▶ Ford Mugarrik irabazi zuen ibarreko derbia
- ▶ Arrasatearrak lider dira orain arteko dena irabazita

EMAITZA

FORD MUGARRI

33-29

SORALUZE BERGARA

FITXA TEKNIKOA

Ford Mugarri: Aranburuzabala, Valle, Bernal (6), Isasmendi (6), Herrero (2), Larrañaga (3), Calleja (4), Olabarria (3), Santos, Zubiaurre (2), Zuloaga (4) eta Gruceta (3).

Soraluze Bergara: Kapelastegi, Uribe (1), Ugalde (2), Eguren, Plazaola (8), Manuel (3), Orgaz (2), Sevillano (4), Urbina (1), Iparragirre (5), Agirre (3) eta Vaz.

Golak bost minuturo: 2-2/7-3/9-4/13-6/16-9/19-12. 3-15/24-18/25-20/29-24/31-27/33-29.

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Arrasatera ardiz mozorrotutako Bergara iritsiko zela iragarri genuen egubakoitzean; bada, mahoneroek erakutsi zuten mozorroa besterik ez zela hori. Josetxo Muniategiren mutilek otso-hortzak agerian utzi zituzten, eta ondo estutu zuten Ford Mugarri lidera.

Jokoari dagokionez, ez zen partidu ona izan egubakoitzean Iturripen Ford Mugarrik eta Bergarak jokatu zutena. Bi taldeek huts asko egin zituzten, batez

ere, defentsan. Garaipena, baina, etxekoendako izan zen.

Abantaila handia hasieran

Partidua ondo hasi zen arrasatearrendako. Zazpigarren minuturako 4-2 aurreratu ziren eta ordu laurdena bete orduko bost goleko abantaila hartu zuten (9-4). Bazirudien moretxoek samur irabaziko zutela lehia.

Ford Mugarrik jaurtitzaila onak dituela erakutsi zuen. Isasmendik eta Bernalek egindako goleko abantaila eman zien. Bergara nahiko txarto ibili zen defentsan eta kosta egin zitzaion Arrasateko jaurtitzaila eustea. Lehenengo zatia amaitzean, zazpi goleko abantailarekin joan ziren Ane Herreroen mutilik aldegetara.

Bigarrenen, indarberrituta

Bigarren zatia nahasiagoa izan zen. Bergara indarberrituta irten zen kantxara eta Ford Mugarrik hartutako abantaila txikitzeko gauza izan ziren.

Defentsan gogor egin zuten lan Muniategiren mutilek, presio handia egin zieten Arrasatekoiei eta modu horretan hainbat baloi lapurtu eta kontraerasoak egiteko aukera izan zuten. Beste jarra bat erakutsi zuten mahoneroek eta hor egon zen bigarren zati txukuna egitearen gako. Bergara aldea murrizten joan zen heinean, Arrasatekoak urduri jartzen joan ziren. 15. minutuan 2-5eko

partziala izan zuten mahoneroak alde.

Iturripen ere urduritasuna nagusitu zen eta epaileak hartutako hainbat erabaki protestatu zituzten jarraitzaileek.

Bi puntuak irabazi arren, Ane Herrero ez zegoen pozik taldearen jokoarekin, ezta bere buruarekin ere. "Partidua erabakitzea falta izan zaigu, eta aurkariari bizia eman diogu", zioen.

Ford Mugarri liderra

Zazpi jardunaldi jokatu dituzte aurtengo ligan eta Ford Mugarrik denak irabazi ditu. Sailkapeneko liderrak dira, 14 punturekin. Bergarak, oster, sei puntu ditu.



Ford Mugarriko jokalariek Herrero entrenatzailearekin. | A.E.



Bergarako jokalariek eta Muniategi entrenatzailea. | A.E.

**ANDONI BERNAL**
ARRASATEKO JOKALARIA

"Lehenengo zatian defentsan gaizki ibili gara. Bigarrenen, eurak korrika asko egin dute eta gu nahastu egin gara. Justu-justu irabazi dugu".

**JOSU URBINA**
BERGARAKO JOKALARIA

"Arrasatearrak lehenengoak dira sailkapenean eta bagenekien zaila izango zela irabaztea. Bigarren zatian indarrak hartu ditugu eta ondo ibili gara".

**IKER ZUBIAURRE**
ARRASATEKO JOKALARIA

"Lehenengo zatian kontrolpean izan dugu partidua baina bigarrenen dena nahastu da. Gaizki ibili gara, erasoan gaizki eta defentsan ere gutxi egin dugu".

**JOSU AGIRRE**
BERGARAKO JOKALARIA

"Defentsan huts asko egin ditugu. Mondrak jaurtitzaila onak ditu eta ez gara gauza izan horiek ondo eusteko. Bigarren zatian itxura ona eman dugu, gogor defendatuz".

EBA LIGA

Bi partidu eta bi garaipen; ezin hobeto hasi du EBA liga Aloña Mendi taldeak

Bi garaipenak eta Natra Oñati enpresaren laguntza lortu ostean, Oñatiko mutilek lasaiago begiratzen diote orain taldearen etapa berriari

EMAITZA

EASO PASTAS

64-80

ALOÑA MENDI



Aloña Mendiko mutilak Josean Gascan zapatu iluntzean. | ALOÑA MENDI

ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Aloña Mendik bigarren garaipena lortu du hasi berri duen EBA ligan. Denboraldiko bigarren partidua izan dela kontuan izanda, ez dago batere gaizki. Pasa den astean etxean estreinatu baziren, oraingoan etxetik kanpo lortu dute lehenengo garaipena Easo Pastas Arruabarrena taldearen kontra, zapatu iluntzean. Ederki asko ezagutzen zuten Donostiako arerioa, oñatiarrekin batera aurreko garaipena lortu duen EBA ligara.

Oñatiarrek lan bikaina egin zuten eta partiduan oso sartuta egon ziren. Markagailuan 6 eta 10 puntu arteko aldea mantendu zuten partidu guztian eta horrek pixkanaka lasaitasuna eta segur-

tasuna eman zizkien, donostiarrak urduritzen zihozten bitartean. Azkenean, Xabi Igartuaren mutilek 16 puntuko aldea atera zioten Easori; 64-80 irabazi zuten. Jaurtiketetan ere oso fin ibili ziren oñatiarrak eta hiru puntuko dezentetaz saskiratu zituzten.

Bigarren garaipenaren ostean indartsuago sentitzen dira hurrengo partidurako. Donostiako Cafes Aitonaren kontra jokatu dute etxean eta entrenatzaileak esan zuen moduan aurrerantzean "errespetuz, baina beldur gabe" begiratu dute arerioei.

XABI IGARTUA | ALOÑA MENDIKO ENTRENATZAILEA

"Argi dugu partidu asko jarraitzaileen babesari esker irabazi ditugula"


Bi garaipen lortu ostean, Xabi Igartuak lasaiago begiratzen dio EBA ligari.

Ezin hobeto hasi duzue EBA liga.

Bai. Oso pozik gaude. Aurrendenboraldian ere garaipen asko lortu genituen baina bageneukan gogo benetako lehia has-teko, noraino iristeko gai garen ikusteko. Denboraldia horrela has-teak lasaitasun handia ematen dizu. Jokalariei esaten diedan moduan, aurrerantzean aurkarietara errespetuz begiratu diegu baina beldur barik.

Oñatin jarraitzaile asko dituzue. Zuengan sinesten dute.

Bai, eta hori oso garrantzitsua da



Xabi Igartua. | GOIENA

guretako. Orain arteko partidu guztietan sekulako babesari esker irabazi ditugula. Zapatuan ere jarraitzaile pila bat etorri ziren. Nik neuk argi daukat irabazi ditugun partidu asko jarraitzaileen indarragatik eta babesagatik izan direla.

Natraren laguntza

lortu izanak ere beste lasaitasun bat emango dizue, ezta?

Zalantza barik. EBA ligara igo izanak aurrekontua ikaragarri igo du eta, beste babesle batzuk ere baditugun arren, Natraren bultzada oso garrantzitsua izan da. Kamiseta berriak aurkezteko eta eskerrak emateko agerraldia egingo dugu laster.

LEHEN NAZIONAL MAILA

Beste behin asko sufritu eta galdu egin du MUK kanpoan

Larreategirenak askoz hobeto ibili ziren bigarren zatian, baina ez zen nahikoa izan garaipenerako

A.B. | ARRASATE

Josu Larreategiren mutilek zapatuko bigarren partidua zen jarraian etxetik kanpora eta tamalez azken partiduetako egoera berbera errepikatu zen. "Bost

partidu egin eta gero konturatzen gara taldea asko sufritzen dabilela aurtengo denboraldian. Arerioak fisikoki gu baino hobeto daude eta horrek eragiten du partiduak 10 puntu atzetik hasia

beti. Hasi horiek asko zailtzen dute garaipena eta horixe bera gertatu zaigu Bide Bide Ibiza taldearekin", azaldu zuen Larreategik partiduen amaieran.

Tolosarrek oso ondo hasi dute denboraldia eta zapatuan ere, etxean, indartsu atera ziren kanpxara. Hasieratik argi utzi zuten ez zutela partidua galtzen utziko. Azkenean hamalau puntuko aldearekin, 74-60 irabazi zuten.

Bigarren zatian hobeto

Lehenengo laurdenean Arrasateko mutilak galduta ibili ziren,

asmatu ezinda. Tolosarrak berriz, jaurtiketetan oso fin ibili ziren eta Larreategirenak 11 puntu azpitik geratu ziren. Bigarren laurdenean egoera antzekoa izan zen eta Bide Bide Ibizak 17 puntu goitik amaitu zuen lehenengo zatia.

Bigarren zatian MUK beste itxura bat eman zuen. Ointxe elkartekoak askoz hobeto aritu ziren. Hirugarren laurdena berdinketarekin amaitu zuten eta laugarrena irabazi. Tamalez, ez zen nahikoa izan Tolosako taldea mendeen hartzeko.

Santurtziren zain orain

Datorren asteburuan Josu Larreategiren mutilek Bizkaiko arerioa izango dute aurrez aurre etxean: Santurtzi. Partidu zaila izango da, bizkaitarrak kategoriaz igozteko faboritoen artean daude eta. Larreategik berak honela begiratzen dio hurrengo partiduari: "Taldea moduan hazten jarraitzeko balioko duen partidua izango da. Horrek ez du esan nahi irabaztera irtengo garenik. Argi dagoena da bizkaitarrak erlaxatuta baldin badatoz sufritu egingo dutela".



SENIOR GIZONEZKOAK

JOSETXO ARANTZABAL

Estu, baina garaipena lortu zuen MU-k

Partidu estua jokatu zuten MUko seniorrek egubakoitzean Zarauzko Leihoak Zast taldearen aurka Musakolan. Ez zirudien sailkapeneko azken bi taldeen arteko partidua zenik. Neurketak ez zen laugarren laurdenera arte erabaki. Arrasatearrek 85-71 irabazi zuten. Txisko entrenatzailea pozik azaldu zen jokalariek egindako lanarekin: "Oso ondo ikusi ditut. Honek motibatu egiten gaitu datorren astean Tolosaren aurka jokatzeko. Dena dela, tolosarrak hirugarren postuan daude eta zaila izango da garaipena".

SENIOR GIZONEZKOAK

Soluraluze BKE esku hutsik itzuli zen Donostiatik

Bostekok zonan defenditu zuen eta bergarrek ez zuten jakin behar bezala erasotzen

A.B. | ARRASATE

Bergararrak ez ziren batere gustura geratu zapatuan Donostian egindako partiduekin; tamalez ezin izan zuten Bosteko taldea menderatu. Hamalau puntuko aldearekin irabazi zuten donostiarrek (84-70).

Hasi horiek asko zailtzen dute garaipena eta horixe bera gertatu zaigu Bide Bide Ibiza taldearekin", azaldu zuen Larreategik partiduen amaieran. Tolosarrek oso ondo hasi dute denboraldia eta zapatuan ere, etxean, indartsu atera ziren kanpxara. Hasieratik argi utzi zuten ez zutela partidua galtzen utziko. Azkenean hamalau puntuko aldearekin, 74-60 irabazi zuten.

lortu zuten alderik estuena, Bostekok atzera ere indarra hartu eta partidua erabaki egin zuten-eta.

Arerioek zonan defendatu zuten partidu osoan eta mahoneroek ez zuten asmatu eraso egokia egiten. Defentsan ere ez ziren oso txukun ibili eta makinan bat akats egin zituzten.

Datorren astean hiriburura itzuli beharko dira Bergarako mutilak. Sailkapenean bigarren postuan dagoen Santo Tomas izango dute zain.

ATLETISMOA

San Martin belardian kros lasterketak jokatu zituzten 80 bat neska mutikok zapatuan

Atletismoa sustatzea da horrelako probak antolatzearen helburua

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Eskola kiroleko jardunaldirik ez dute izan aste bukaeran Oñatiko gaztetxoek. Hala ere, Aloña Mendik antolatuta, atletismo probak egin dituzte. San Martingo zelaian kros lasterketak egin zituzten zapatuan; hainbat mailatan banatuta egin zituzten probak.

Benjamin, alebin eta infantil
80 gaztetxo elkartu ziren San Martinen; Oñatikoak bakarrik ez, Zumarragoak ere izan ziren. Benjamin, alebin eta infantil mailetak probak egin zituzten. Benjaminek 300 metroko lasterketa egin zuten, alebinek 600 metrokoa eta infantilek ere 600 metrokoa.

Amaieran, gozokiak banatu zituzten parte hartzaile guztien artean.

Yerai Varela Aloña Mendiko atletismo saileko kidea ibili zen herriko gaztetxoekin lanean. Haren esanetan, neska-mutikoen atletismoa ezagutzeko da horrelako proben helburu nagusia. Hilean behin egiten dituzte lasterketak, Zubikoa kiroldegian edo San Martinen. Varela azaldu zigun gaur egun 20 bat lagun daudela Aloña Mendiko atletismo sailean federatuta.



Gaztetxoak helmugara sartzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Gaztetxo koadrila antxintxika. | JOSETXO ARANTZABAL

ATLETISMOA

Soraluze-Bergara krosetako izenematea, Interneten

Azaroaren 5ean izango da lasterketa; Soraluzetik 17:00etan irtengo dira korrikalariak

A.E. | BERGARA

Datorren zapatuan izango da VI. Soraluze-Bergara kroseta. 10 kilometroko ibilbidea egin beharko dute parte hartzaileek. Hainbat mailatan sailkatuta egingo dituzte irteerak. Lehenengo, gurgildun aukietako parte hartzaileak irtengo dira, 16:30ean; gero, patinatzaileak, 16:50ean; eta, azkenik, korrikalarien txanda izango da, 17:00etan.

Autobusa 2 euro kostako da
Proban parte hartzeko Internet bidez eman beharko da izena

www.kirolprobak.com atarian. Izenemate epea lasterketaren aurreko egunean amaituko da, egubakoitzean. Ordaintzeko moduak: txipa erosten dutenek 13 euro, txipa alokatzen dutenek 15 euro eta Soraluzera joateko autobusa hartuko dutenek 2 euro gehiago.

Sei autobus irtengo dira Bergaratik Soraluzera: hiru 15:30ean eta beste hirurak 16:30ean.

Parte-hartzaile kopurua mugatu egingo dute: 700 korrikalari, gehienez; eta 100 patinatzaile.

TENIS

Santamasetako tenis txapelketa aste bukaeran hasiko dute; izena emateko aukera dago oraindik

Debagoiena mailako txapelketa izango da. Antolatzaileek adierazi dute, kopuruari dagokionez, 32 laguneko taldea osatuko dutela. Dagoeneko zabalik dago izenematea: interesatuek ake.tenis@gmail.com helbidera bidali beharko dute mezua datu pertsonalekin. Txapelketa datorren aste bukaeran hasiko da, azaroaren 5ean eta 6an. Lehenengo fasea ligaxka formatuan jokatu dute, lau jokalariz osatutako zortzi talde egingo dituzte eta hurrengo fasera talde bakoitzeko lehenengo biak sailkatuko dira. Finalak abenduaren 18an jokatuko dituzte.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK		
Bergara-Elgoibar	1-0	
Hondarribia-Oiartzun	3-2	
Trintxerpe-Behobia	3-2	
Mondra-Roteta	1-3	
Urola-Aurrera	2-0	
Aretxabaleta-Pasaia	2-2	
Tolosa-Aloña Mendi	1-0	
Real Union-Anaitasuna	1-3	
Berio-Beti Gazte	1-1	

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Anaitasuna	20	8
2 Tolosa	18	8
3 Real Union	14	8
4 Urola	14	8
5 Pasaia	14	8
6 Berio	13	8
7 Oiartzun	13	8
8 Beti Gazte	12	8
9 Trintxerpe	11	8
10 Aretxabaleta	11	8
11 Elgoibar	10	8
12 Bergara	8	8
13 Aurrera	8	8
14 Hondarribia	8	8
15 Roteta	8	8
16 Mondra	7	8
17 Behobia	6	8
18 Aloña Mendi	5	8

HURRENGO JARDUNALDIA

Beti Gazte-Elgoibar	
Oiartzun-Bergara	
Behobia-Hondarribia	
Roteta-Trintxerpe	
Aurrera-Mondra	
Pasaia-Urola	
Aloña Mendi-Aretxabaleta	
Anaitasuna-Tolosa	
Berio-Real Union	

EUSKAL LIGA, GAZTEAK

Lauro Ikastola-Aretxabaleta	3-1
-----------------------------	-----

ERREGIONAL PREFERENTEA

Zumaia-Antzuola	2-4
Idiazabal-Aretxabaleta B	2-4

1. ERREGIONALA

Mondra-Soraluze B	0-2
Urki-Aretxabaleta	4-1

OHOREZKO GAZTEAK

Ikasberri-Mondra	4-4
Amaikak Bat-Bergara	3-0
Aloña Mendi-Elgoibar	1-0

GAZTEAK, 1. MAILA

Aloña Mendi B-Bergara B	4-0
Aretxabaleta B-Eibartarrak B	3-0
Arizmendi-Soraluze	2-2

OHOREZKO KADETEAK

Bergara-Aurrera	1-3
Eibar-Aretxabaleta UDA	0-2
Real Sociedad B-Aloña Mendi	2-0

KADETEAK, 1. MAILA

Urki-Antzuola	4-0
Arrasate B	Atsedena
Ilintxa-Aloña Mendi B	9-0
Soraluze-Arizmendi	3-2
Bergara B-Arrasate	0-4
Aretxabaleta B	Atsedena

EMAKUMEZKOAK GIPUZKOA MAILA

Mutriku-Arizmendi K.E	2-2
-----------------------	-----

ESKUBALDIA

EUSKADIKO TXAPEL. GIZON.

Ford Mugarri Arrasate-Soraluze	33-29
--------------------------------	-------

1. LURRALDEKO TXAPELKETA

Izarraitz Tab. Aloña-Ereintza	29-31
-------------------------------	-------

2. LURRALDEKO TXAPELKETA

Ordizia-Arrasate	27-27
------------------	-------

GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK

Tolosa-T. Chapime Arrasate	33-21
----------------------------	-------

Berezao Aloña Mendi-Hondarribia

	27-26
--	-------

KADETE MUTILAK

Soraluze Bergara-Egia	17-58
-----------------------	-------

Ereintza-Berezao Aloña

	11-41
--	-------

Talleres Chapime-Ormaiztegui

	22-20
--	-------

GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi-Aiala	22-20
-------------------	-------

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK

Leizaran-Aloña Mendi B	27-5
------------------------	------

Urnietako-Aloña Mendi A

	11-21
--	-------

SASKIBALDIA

EBA MAILA

Easo-Aloña Mendi	64-80
------------------	-------

LEHEN NAZIONAL MAILA

Bide Bide-MU	74-60
--------------	-------

LEHEN SENIOR GIZONEZKOAK

Bosteko-Soraluze BKE	84-70
----------------------	-------

MU-Leihoak Zast

	85-71
--	-------

GAZTEAK, GIZONEZKOAK

Lizardi-Soraluze BKE	30-67
----------------------	-------

Sto. Tomas Lizeoa-MU B

	41-38
--	-------

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Kukuia-Eskoriatza	3-4
-------------------	-----

GU RE KI RO LA

GOIENA TELEBISTA
HARMAILATIK
ASTELEHENERO,
20:45, 22:30



goiena

MENDIA

Alberto Iñurrategi | Mendizalea

"Ez dugu nahi inork janari depositurik egiterik adibidez; autosufizienteak izan nahi dugu"

- ▶ Aretxabaletakoa 'Transantartika 2011' erronkari heltzera doa, Vallejo eta Zabaltzarekin
- ▶ Eskalada gehitu diote eskiak eta kometak erabiliz egin beharreko zeharkaldiari

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Antartikako espediziora abiatu aurretikoan, Arrasateko Besaide Mendizale Elkartearen hamabostaldian hitzaldia egin du Alberto Iñurrategik (Aretxabaleta, 1968). Besaidek Mondragon Unibertsitatearen kirol zerbitzuarekin batera antolatutako saioan *Porrotaren alde* jardun zuen Iñurrategik. Izenburu horren atzean dagoen hausnarketaren gainean galdetu diogu, eta baita, udaberriean Groenlandia zeharkatu ondoren, laster hastera doazen espedizioari buruz ere.

Groenlandiako espedizioaren ondoren, orain Antartikara.

Groenlandiakoarekiko desberdina izango da Antartikako espedizioa; beste dimentsio bat izango du, baldintzak gogorragoak izango dira eta eskalada ere gehituko diogu. Horrek ekarriko du espedizio luzeagoa egitea; arriskua, hotza... osagai aldetik gogorrago izango da.

Kontatu diezazkizazu espedizioaren zehaztasunak.

Azaroaren 11n aterako gara etxetik eta Hegoafrikara joango gara hegazkinez, eta handik Antartikara hartuko dugu hegaldia, Antartikako ekialdean dagoen base errusiar batera, eta han emango diogu hasiera zeharkaldiari. Hasiera puntu horretatik 150-200 kilometrorra Maud erreginaren eremua dago, mendi oso ederrak dituen mendikatea. Han, eskalada bat egin gura dugu. Handik, 2.200 kilometro eginda Hego Polotik pasatu nahi dugu, eta aurrera jarraitu mendebalderantz. *Union Glaciar* izenaz ezagutzen den puntu baten base txiki bat jartzen dute uda partean eta, han hegazkinek-eta lur hartzen dutenez, handik Txilera aterako gara, kontinentearen zeharkaldia gauzatuz.

Baliabideei dagokienez, Groenlandiako antzerakoak izango dira?

Horretan ez dugu ezer aldatu. Bakoitzak eramango ditugu lau kometa, eskiak eta trineoa. 70 egunerako jana eta sukaldarako erregaia eramango ditugu; aldatzen den bakarra da trineoetan lehengoan baino pisu dezente gehiago eramango dugula. 180 kilo ingururekin irtingo dugu, baina horixe da emango diguna autonomia guztia, ez dugu inoren dependentziarik edukiko.

Hego Polotik pasatu nahi duzue, baina Hego Poloa ez da helburua.

Helburua Poloa izango balitz abionetan joango ginatke. Gaur egun, oso komertziala da Hego Polora abionetan joatea; edo,



Alberto Iñurrategi, Arrasateko Kulturaten hitzaldia egin eta gero. | J.I.

izerdi apur bat atera gurako bage-nuke, azkeneko gradua egingo genuke, azken 110 kilometroak. Hori ere oso modu komertzialean saltzen den bidaia izaten da. Gure kasuan, Hego Poloa mugarri bat da; guk planteatzen dugu Antartikan zeharkaldi luze bat egitea, muturretik muturrera joatea eta beti ere gure ahalmenean oinarrituta. Ez dugu nahi, adibidez, janari depositurik egitea beste inork, autosufizienteak izan nahi dugu.

Groenlandiako esperientziak askorako balioko dizue...

"Aurrekoan baino pisu gehiago eramango dugu trineoan: 180 kilo"

"Helburua Hego Poloa balitz, abionetan joango ginatke"

Bai, Groenlandian helburua ikastea zen, horretara joan ginen hara, Antartikakoa buruan. Uste dut oraindik asko dugula ikastea, hobetzeko ere bai, baina esango nuke han ikasitakoa oso baliagarria izango zaigula oraingoa baldintza gutxieneko batzuetan egin ahal izateko.

Gaurko saioaren izenburua izan da Porrotaren alde; zergatik?

Arduratuta nago azkenaldian gure inguruko *himalaiismoak* hartu duen bidearekin. Beste kirol batzuetako kultura txarra Himalaiara ere sartu dela uste

du; mendizalea gero eta itsutua- go ikusten dut gailurrarekin, kosta ahala kosta gailurrera iritsi beharrarekin, nahiz eta arrastaka iritsi edo hala-moduzko gailurra egin. Garaipena gailurrarekin lotzen da eta gailurra egiten ez duen beste edozein aha- legin porrotarekin. Uste dut garai baten hori ez zela horrela izan Himalaian; ezagutu dugu beste printzipio batzutan oinarritutako *himalaiismoa*. Himalaia niretzako da ilusioa, leku ideal bat; garbi dut ilusiotik motibazioa datorrela, eta horren arabera jartzen direla helburuak. Himalaiako ilusio horiek betetzea da *himalaiismoa*, nahiz eta gauza erraza izan, bide normaletik igo eta soka finkoaren beharra eduki. Ez du zerikusirik ez zailtasunarekin, ez errekorrekin.

Zer dakar himalaiismoaren desitxuratzeko horrek?

Planteamendu horrekin ez dugu berritzen mendian ibiltzeko dugun modua; errazera jotzen dugu. Hasten gara joaten jendetza dabilen mendietara, eta gero masifikazioa kritikatu; hasten gara hurbiltzeko martxak modu baldarreak egiten, ahal bada helikopteroz; kanpaleku nagusira iritsita, farmako mozkorraldi batekin ahaleginduko gara aklimatazioa ere arintzen eta, hori gutxi balitz, norbere mendiko lanak ere saiatuko gara, diru apur bat ordainduta, beste batzuek egin ditzaten. Eta muturreraino eramanda gure erosotasun hori, erreskate baten gure laguntasunaren beharra baldin badago, ahaleginduko gara, diru truke baita ere, gure ordeztu sherpa bat implikatzen. Gaur, uste dut galdu egin dela lagunari ematen zitzaion inportantzia. Laguna baino inportanteagoa gailurra bilakatu da.

Eta nortzuk dira honen guztiaren erantzule?

Baloren gainbehera horretan onartzen dut mendizaleak badue- la erantzukizun parte bat, prentsako kazetariak izan dezakeen moduan, baina uste dut ardura handiena teknologia berriek eta telebistak dituztela. Himalaiako mendi altuak plato erraldoi bihurtu dira, *reality showak* antolatze- ko eskenatoki eta espektakulu bihurtu dira. Mendizalea hor murgiltzen denean mendizale- tuna eta ardura etikoa alde bate- ra uzten ditu, normalean behin- tzat. Gaur egun, kirol ikuspegi- ri ez zaio garrantzia ematen; inportanteagoa da berba egitea komunikabideetan eta zer kon- tatzen den.

"Hurkoak zaintzen ikastea da gizonon erronka nagusienetakoa"

Gizonezkoen artean ere zaintza kontzientea aldarrikatzen du Iñaki Kasaresek

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Genitalen araberako lanen bana-keta amaitu dela adierazten du Iñaki Kasares iritzi-emaileak *Guraso.com* atarirako azken artikuluan. "Hurkoak zaintzen ikastea da gizonon erronka nagusia; nekez izango dugu eginkizun garrantzitsuagorik eta onura garbiak ekartzen dizkigu. Gizonezkooi, emakumezkoei, umeei eta jendar-te osoari".

Zaintza kontzientea

Zaintza kontzientea aldarrikatzen du Kasaresek. Gurasoongandik denbora, arreta garbia, hurbiltasuna, inplikazioa, babesa, errespetua, maitasun adierazpenak,

orientabideak, diziplina... eskatzen ditu zaintza kontzientek. "Azken finean hartu-eman sakonak, giza konexioa, lotura, elkartasuna, erantzukizuna...", dio. Sinistuta dago gurasoen bizitza aberastu egiten duela; "alaitu eta osoago bilakatu". Seme-alabendako onurak ere argiak direla dio; "auto estimua, autonomia, eta independentzia" jorratzen ditu... "Afektibitate eskasia da gizakion arazo funtzional ugariaren iturburu nagusia", gogorarazten du.

Gizonezkoen ardura


Kasaresek gizonezkoak animatzen ditu seme-alaben zaintzan parte hartzera. "Ez da erraza bizi dugun

gizarte materialista-kontsumista honetan. Gizonezkook, oro har, zailtasunak ditugu zaintzeko. Ez dugu zertan ezkutatu; ez da lotsagarria. Ez gaude entrenatuta eta zaintzaren aurkako mezuak eten-gabe bidali dizkigute".

Kasaresen esanetan gizonezkoen ardura eta eginkizuna da ikasitakoa desikastea; "indar guztiaz eta erruduntasunik gabe". Gizarteak berak zailtzen du egiteko hori. "Jendarteak gutxietsi egiten du zaintza-lana. Ez da ordaintzen, ez du prestigiorik..." Baina Kasaresek argi dauka ondusun materialek soilik ez dutela gure haurren garapen osasungarria ekarriko.



Aita eta semea eskutik helduta. | HEART INDUSTRY



Neskatila telefono mugikorrekin. | LURROGO

Mugikorrek: erabilera egokia ulertarazten jarri indarrak

Mugikorrek nerabeen nortasunaren garapenean duten eraginaz ohartarazten gaitu Iratxe Esnaolak

L.Z. | ARRASATE

"Pertsonak baino mugikor linea gehiago ditugu gaur egun, eta esan beharra dago gaztetxo eta nerabeen bizitzetan oso txertatuta daudela gailu elektronikorik horiek". Iratxe Esnaolak mugikorren erabilerearen inguruan berriki egindako ikerketa baten emaitzak ekarri dizkigu *Guraso.com* atarira. Nerabeendako komunikazio kanal bat baino askoz ere gehiago direla ohartarazten gaitu. "Musika trukatzeko, argazkiak ateratzeko, argazkiak partekatzeke, bideoak grabatzeko

edo Internetera konektatzeko erabiltzen dituzte", azaltzen du. Gurasook jakin behar dugu, gainera, tresna teknologikorik horiek jabearen gaineko informazioa emateaz gain prestigio eta aitortza iturri ere badirela gaztetxoendako. "Erabiltzen den modelook, dituen prestazioak eta ematen dituen aukerak mugikorren jabeak berdin taldean duen lidergo egoeran eragiten du", dio Esnaolak.

Iritzi-emaileak gaineratzen du gurasook mugikorra kontrol gehiago izateko bidetzat ulertzen

dugun bitartean gaztetxo eta nerabeek independentziarekin eta autonomiarekin lotzen dutela. "Ez dira aurrez baino kontrolatuago sentitzen; sozializazioa garatzeko mugikorrek eskaintzen dien askatasunak erakartzen ditu".

Arrisku-faktoreak zaindu

Esnaolaren esanetan garrantzitsua da arrisku-faktoreez informatuta egotea. Hainbat azalpen ematen ditu bere artikuluan, baita gomendioak ere. Mugikorraren erabilera termino ekonomikoetan eta soziologikoetan neurtu behar dela dio, baita osasun terminoetan ere. Kontsumoa neurtzea baino garrantzitsuago deritza erabilera egokien eta desegokien arteko muga non dagoen nerabeei ondo argitzea eta ulertaraztea. Gurasooi indarrak ahalegin horretan jartzea gomendatzen digu.

Gurasolandia 2011 etzi, eguaztena, abiatuko da

L.Z. | ARRASATE

Ikasi, transmititu eta praktikan ipini! lelopean etzi abiatuko da Arrasaten Gurasolandia hirugarren edizioa. Lehenengo proposamena Larraitz Arandoren *Nerabezaroa eta haurdunaldia* delako hitzaldia da. Arrasateko erdiguneko gaztegunean, 18:00etan, egingo du hitzaldia. Gurasoei zuzendutakoa da, eta antolatzaileek jakinarazi dute zaintza zerbitzua egongo dela. Sarrera doan da.

Tailerrak eta erakusketa

Hurrengo lau egunetan ez da ekimenik faltako. Azaroaren 3an, eguena, Isabel Millet ipuin kontalari eta idazleak ipuinak nola kontatu azalduko du. Arrasate erdiguneko gaztegunean izango da 18:00etan hasita. Biharamunean, azaroak 4, jolasean nola egin azalduko du Itsaso Pagoagak Kulturaren. Tailer hori ere 18:00etan izango da, baina kulturatego Jokin Zaitegi gelan. Azkenik, haur masajearren gaineko ikastaroa egingo du Garikoitz Lopez de Munainek. Zapatuan, azaroak 5, izango da 11:00etatik aurrera Kulturatego Lora-mendi gelan. Egun berean jostailu erakusketa egongo da ikusgai Jokin Zaitegi gelan, 10:00etatik 13:00etara. Kutxetatik kanpora eta adinka sailkatuta egongo dira. Eguraldia lagun bada domekan jaialdia egingo dute Biteri plazan.

Literaturak haurren garapenean duen garrantzia hizpide

Bularretik mintzora ekitaldi sortaren barruan Juan Karlos Alonso psikologoak haurren garapenean literaturak duen garrantziaz egingo du berba. Bularretik mintzora egitasmoak haurren artean irakurketa sustatzea du helburu eta hitzaldia haur txikien guraso eta hezitzaileei zuzenduta dago. Azaroaren 3an, 18:00etan, hasiko da hitzaldia.

Dantza ikastaroa guraso eta seme-alabendako

Zainduz gimnasiotik dator proposamena eta beste batzuen artean asmoa da oinez ez dabiltzan umeekin dantza egin eta txiki txikitatik harremana lantzea. Saiok azaroaren 12an, abenduaren 10ean eta urtarrilaren 14ean izango dira. Azaroaren 7ra arte dago zabalik izena emateko epea. Prezioa 60 euro da. Argibideak 650 93 96 93 telefono zenbakian.

Familia osoarendako 'Plecs' antzerki saioa azaroaren 13an

Arrasateko Amaia antzokian izango dira azaroaren 13an, domeka, Enfilat's taldeko kideak. Paperezko eszenatoki batean elkartuko dira lau lagun. Saiatuko dira gidoia jarraitzen, baina ezingo dute. Antzerkiaren eta zirkoaren artean dagoen ikuskizuna da. Protagonistek akrobaziak, dantzak eta bihurrikatzeak eskainiko dituzte.



KULTURA



Trikiti jaialdia egin zuten domeka arratsaldean . | JOSETXO ARANTZABAL

Trikitixa biolinaren erritmora, bikain

Aste bukaeran, Oñatiko erdiguneko kaleak trikitixa, pandero, biolin eta gitarra doinu alaiek jantzi dituzte

MAIDER ARREGI | OÑATI

Oraindik biolinista askok estilo klasikora jotzen du eta herri musikan aritzen direnak gutxi dira. Baina zenbait euskal biolinista trikitixarekin elkarlanean ari direla ikusita, aurtengo Nazioarteko Trikitixa Jaialdian, biolinari protagonismoa eman zaio. Juan Arriola biolin-jotzaileak azaldu digu herriko musikan ez dela oso errotua egon biolina; izan ere, musika klasikoaren bidea hartu du biolinak urtetan. "Oskorrik, adibidez, sartu izan du biolina, baina gutxi gara biolina herri musikan erabili izan dugunak", gaineratu digu.

Kanpoko eta bertako musikaren gainean jardun zuten zapatuan kultura etxean Joseba Tapia trikitilariaren gidaritzapean. Tapiak balorazio positiboa egin zigun: "Andoainen hasi eta Oñatin jarraitu dugu. Oso pozik gaude; *workshop* formatua lehen aldiz aukeratu dugu eta arrera ona izan du. Trikitilaria hizketan ikustea ere polita da, bere kezak eta historiak kontatzen entzutea aberasgarria da; asko identifikatuta sentitzen gara kontu horiekin".

'Elgeta' maisua

Workshop-ean, Jon Ostolaza trikitilariak azaldu zuen moduan,

lehenengo soinuek ilara bakarreko botoiak zeramatzen; ostean erantsi zitzaizkien bi ilara. Euskal Herrian, eskuineko 21 botoiko ereduak zabaldu zen. *Elgeta* trikitilariak, aldiz, gabezia batzuk nabaritu eta 23 botoikoa erantsi zion. Hain zuzen ere, *Elgetak* zabalduko eredu hori da egungo trikitilariak erakusten eta erabiltzen dutena.

Herrialde bakoitzak, ordea, sistema propioa erabiltzen du: Kataluniak, Kantabriak edo Irlandak, baxuaren sistema ezberdina dutela azaldu zuten; doinua eta erritmoaren arabera, aldakorra dela, alegia. Horren harira, Tapiak



Doherty eta Doocey irlandarrak Umerez tabernan. | JOSETXO ARANTZABAL



Afariaren ostean erromeria egin zuten kirodegiko pilotalekuan. | J.A.

esan zuen jotzaileak, ematen diola nortasuna instrumentuari. "Trikitixa segun eta nongoa den ezberdina da eta aukera ematen du norberak bere esperientziak transmititzeko. Mugak trikitilariak izaten ditu eta horrek ematen dio pertsonalitatea instrumentuari".

Maixa Lizarazu trikitilariak –Maixa eta Ixiar taldeko kidea– azaldu zigunez, musikarekiko aldaketa ere igarri da trikitixan. "Gizartea aldatzen doan bezala, trikitixak ere eboluzionatu egin du. Gosek esaterako bide berriak zabaldu ditu".

Giro aparta

Tailerretan ez ezik, ondoren egin zuten kalejirara ere jendetza batu zen. Iñigo Irazabal Lizargarate

trikitizale elkarteko kideak azaldu zigun tabernetan emandako kontzertuek sekulako arrakasta izan zutela. "Tapia eta Leturia ikustera asko gerturatu ziren. Giro paregabea izan zen tabernetan eta adin tarte ezberdineko jendea erakarri zuten zuzenekoek". Afarian 310 lagun elkartu ziren eta, giro paregabean, erromerian dantza egitera animatu zirenak ere asko izan ziren.

Zer esanik ez domeka arratsaldean egindako trikiti jaialdiaz: erritmo eta doinu anitzak entzuteko aukera aparta, jaialdi bakar batean. Brotto eta Lacouchie okzitaniarren doinuekin hasi eta Maixa, Ines eta Maite euskaldunen fandangoarekin amaitu zuten, X. Nazioarteko Trikiti Jaialdiari bukaera borobila emanez.



MAIXA LIZARAZU
TRIKITILARIA

"Hasi nintzanean, ez zen ikusten neskari kalean jotzen. Orain alderantziz gertatzen da. Nire ikasleen %90 neskak dira. Emakumeak indarra du egun".



ARRIOLA ETA OSTOLAZA
BIOLINA ETA TRIKITIA

"Herri musikan, biolina eta trikitia elkarrekin entzuteko aukera askorik ez da izan. Kanpoan, ordea, bada tradizioa: Irlandan, Eskozian, Frantzia...".



AMAIA ETA ALIX
OÑATIKO TRIKITIZALEAK

"Tailerra oso interesgarria izan da. Atzerrian, erritmo eta doinu ezberdinak erabiltzen dituzte. Biolina eta trikitia elkarrekin entzutea ere gustatu zaigu".



DOHERTY ETA DOOCEY
GITARRA ETA TRIKITIA

"Irlandan, sekulako tradizioa dago gitarra, perkusioa eta biolina trikitiarekin uztartzeko. Ohikoena da doinu konbinazio hau edozein pub-etan entzutea".



JOSEBA TAPIA
TRIKITILARIA

"Ez da ohikoa Euskal Herrian biolina eta trikitia elkarrekin ikustea; kanpoan bai, ordea. Emaitza polita da eta jaialdiari ekarri nahi izan dugu biolina".

Zuzenean *Karenka* lana entzuteko aukera izan zen Eskoriatzako plazako arkupean. | JOSETXO ARANTZABAL

Inkernu tabernan egin zuten disko aurkezpena luntx eta guzti. | MAIDER ARREGI

KRONIKA

Xarma aurrez aurre dagoenean...

MAIDER ARREGI | ESKORIATZA

Eskoriatzako izan da Danbako laugarren edizioiko irabazleek *Karenka* lan berria zuzenean aurkezteko aukeratu duten plaza. Taldekideen gertutasunak eta apaltasunak hasieratik erakartzen du jendea. Eta honi, eszenatokian duten jarrera indartsua eta zuzena gehitzen badizkiogu, talde borobila da emaitza: Xarma.

Badakite publikoarengana iristen eta sentsazioak transmititzen; guzti horrek egiten du taldea handi. Bigarren disko honetan, zuzenean duten indar hori islatzen jakin dute. Urduri-

tasuna, poza... sentsazio ugari daramatzatela barruan bor-bor kontatu digute taldekideek. Diskoa eguaztenean kaleratu bazen ere, zuzenekoan abesti asko berehala egin zituen bere ikusle goak.

2010ean ezagutu genituenetik beste buelta bat eman diote doinuari. Pop eta rock ukituetatik metal eta punk-rock doinuetara salto egin dute orianoan. "Disko zuzenagoa eta indartsuagoa da. Nortasuna hartu du taldeak lan honekin. Letrak zintzoagoak dira", kontatu digu Itsaso Gutierrezek. Bariku gauean, *Libre* kantua,

FITXA

KONTZERTUA

XARMA

Estiloa: Rock.

Non: Eskoriatzako plazako arkupean.

Eguna: Barikuan, urriaren 28.

Iraupena: 1h eta 30 minutu.

Ikasle Abertzaleen aurtengo kantua, izan zen erantzun beroena eduki zuena. "Jendea abesti horrekin animatzen da; irratietan eta

tabernetan jartzen dutela esan digute, pozgarria da". "Inpresio oso onarekin gaude; oholtzan gehiago aritu beharra daukagu; izan ere, uztailetik geldi egon gara diskoa grabatzeko eta prestatzeko lanetan buru-belarri gembiltzalako", gaineratu digu Gutierrezek. Billabonan izango dira zapatuan Ikasle Eguneke jaialdian. Azaro eta abendurako ere badiutuzte zuzenekoak lotuta.

Disko aurkezpena

Kontzertua hasi aurretik, baina, Aitzorrotz Kultura elkartearen laguntzarekin, diskoa aurkeztu zuten Inkernu tabernan. Diskoa entzun eta mokadutxo bat jatera animatu ziren eskoriatzar dezentek. Iñaki Kortazar Aitzorrotzeko kideak balorazio positiboa egin digu: "Taberna bete egin da eta diskoak ia agortu; jendearen

erantzuna oso positiboa izan da bai aurkezpenean eta baita zuzeneko kontzertuan ere".

Durangoko azokan

Ahotsenea-n zuzeneko eskainiko du abenduaren 4an Xarmak. Diskoa, gainera, Gatazka Gunean eskuratzeko aukera izango da eta taldekideek ere bertan egon nahi dutela adierazi digute.

Karenka kantuen bideoklipa, berriz, abendurako gertu izatea espero dute. Zapatuan grabatu zuten Arrasateko San Andres auzoan bideoklip horren zati bat. "Eskerrak eman nahi dizkiegu grabaketetan lagundu gaituzten Imanol eta Kepari; eta nola ez Andoni, Iñaki eta Eskoriatzako zuzeneko posible egiten lagundu diguten herritarrei ere", azpimarratu gura izan dute Xarmako kideek.

KRONIKA

Ziber amodioa XXI. mendeko amodioa?



Itziar Atienza eta Joseba Apaolaza aktoreak Amaia antzokiko oholtza gainean. | JOSETXO ARANTZABAL

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Ipar haizearen kontra antzezlanak, ziber amodioa du oinarri. Bertan, mezu elektronikoei bizitza, aho-tsa ematen diete Itziar Atienza eta Joseba Apaolaza aktoreek. Hala, ikusleak entzun egiten dituzte pertsonaien arteko e-mail trukaketa horiek eta antzezlan bere egiteko aukera ere badauka. Maitasuna, konplizitatea, gizakion betiko gaiak eta buru-hausteak teknologia berrien ukituarekin oholtza gainean azaleratuta. Temperatura eta kolore ezberdineko funtzioa da: umoretsua, sarkasmo eta zinismoz bete dagoena.

Geroz eta bizitza bakartiagoa egiten dugun gizarte honetan, teknologia berriei lagundu, erraztu egiten dute harramenak sortzerako orduan. Hain zuzen ere, antzezlanak, XXI. mendeko amodioa islatzen du. Agian, egungo gizartearen askok bizi dutena taularatu zuten aktoreek atzo iluntzean Amaia antzokian. Zalantza gabe, ikusleren bat

identifikatuta sentituko zen; pasarte ezberdinekin barre algarak eragin zituzten bertaratu-takoen artean. Esaterako, zibernautek elkar ezagutzeko darabiltzaten estrategia eta amarru xeberrekin: pertsonaiek, ezagutu gabe itsu-itsuan egindako hitzordua, adibidez.

Bi aktoreak entzumenaren bidez gidatzen dira; bukaerara arte ez dago kontaktu bisualik euren artean, baina ederki transmititzen dute e-mail eta sentsazio trukaketak dakarren ezinegon hori.

Bilbotik Arrasatera

Ipar haizearen kontra antzezlanaren urriaren 20an Bilboko Arriagan estreinatuta zuten, arrakasta handiz. Hurrengo geldialdia Arrasaten, Amaian, egin zuten atzo.

Apaolazaren hitzetan, "sentsazio onarekin" hasi dute bira. Publikoak ere harrera beroa egin zion Arrasaten.

Perfekzioa urratu zuen Edigius Kwartet laukoteak

Holandako taldeak zeharo txundituta utzi zituen egubakoitzean San Juan parrokiari batutakoak

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Luxuzkoa izan zen, zalantza barik, egubakoitzeko emanaldia. Ez gaude ohituta horrelako mailako kontzertuak entzutea. Holandako Edigius Kwartet laukoteak aho zabalik utzi zituen Arrasateko San Juan parrokiara hurbildutako lagunak—ehun bat, gutxi gorabehera—.

Ordubeteko kontzertua eskaini zuten eta XVI. mendeko piezak

abestu zituzten. Ohituta ez dauden emanaldiak astuna izateko arriskua zuen, baina protagonisten azalpenek eta, batez ere, ahotsen perfekzioak oso arina egin zuten kontzertua.

Mundu osoko areto eta jaialdietan eman dituzten kontzertuak Edigius Kwartet taldeak eta Euskal Herrian sei kontzertu eskaini dituzte; Arrasatekoa laugarrena izan zen.

Amaiera euskalduna

Laukotea holandarra den arren, kideetako bat euskalduna dute: Jon Etxabe. Bada, Euskal Herrian egonda, ezin amaiera borobilagoa eman zioten kontzertuari. Frantziako Eskuderoen *Izar Ederra* abesti ezagunarekin bukatu zuten. Jon Etxabek bakarrik abestu zuen, hiru lagunek koroekin lagunduta. Txalo zaparrada itzela izan zen amaitzean.



Edigius Kwartet laukote holandarra Arrasateko San Juan parrokiari. | RAKEL MURGIÓNDO

Psikodelia eta gitarra riff heavy indartsuak Electric Boys suediarren eskutik

'Gaztemaniak!'-ek antolatuta, zapatuan Gaztelekuan izango da zuzeneko

MAIDER ARREGI | OÑATI

2010ean kaleratutako *And Them Boys Done Swang* azken diskoa aurkeztuko digute Electric Boys taldeko mutilek Oñatiko Gaztelekuan, zapatuan. Suediarrekin batera, Arrasateko Jukebox taldearen aspaldiko rock-and-rolla entzuteko aukera izango da: *Puestas del infierno* bigarren lana aurkeztuko dute zuzenean 22:30ean hasita. Sarrera, 7 euro.

Conny Bloom gitarra-jotzaile eta abeslariak, Andy Christell baxu-jotzaileak, Franco Santunione gitarra-jotzaileak eta Niclas Sigevall bateria-jotzaileak 1988an sortu zuten Electric Boys taldea Stockholmen. Taldeak arrakasta handia lortu zuen berehala, Beatles estiloa, psikodelia eta gitarren riff heavyak nahasten zituelako. 1989an, lehen diskoarekin, *Funk-O-Metal Carpet Ride* lanarekin, sekulako ospea lortu zuen.



Electric Boys taldearen azken diskoko azala. | WWW.ELECTRICBOYS.COM



Telmo Esnal. | WWW.ARGIA.COM

Telmo Esnal | 'Urte berri on, amona!' filmeko zuzendaria

"Zinera joaten denak pelikula bat ikus dezan nahi dut"

Gabon giroko ohiko pelikuletatik urrun, espero ez dugun lekuetatik eramaten gaitu filmak

ARRASATE IRRATIA / G.A. | ARRASATE

Asteburuan heldu da filma Arrasate eta Oñatira, eta gaur eta bihar ere izango da ikustera joateko aukera. Arrasaten, gainera, sarrera euro baten eskuratu ahalko dute leihatilan Kutxako txartela erakusten duten lehen 225 lagunek.

Konbentzitu gaitzazu Urte berri on, amona! ikustera joateko. Ala ez dago horretarako beharrik?

Bai, bai, jendea konbentzitu beharra dago, badirudi-eta ahaztu garela zinera joateaz. Egia da, orain artekoek ondo pasatu dutela filma ikusten eta zapore onarekin atera direla aretotik, baina, bai, animatu beharra dago.

Bertako produktua da, zuzendaria eta aktoreak ezagunak... horrek erakartzen gaitu?

Bai, baina hori ez da dena, nik ez dut hori bakarrik bilatzen, zinera doan jendeak pelikula bat ikusi dezan nahi dut. *Urte berri on, amona!*-k badu bere aldaketa, ez da hasieran dirudiena, ez da xamurra... ikusleak betetzen dituen lan bat da.

Ez da Gabon giroko ohiko pelikula, ezta?

Ez. Amona heldu baten bueltan gertatzen da. Erresidentziara eramaten edo ez da abiapuntua eta hortik gatazka bat sortzen da. Espero ez duzun lekuetatik eramaten zaitu.

Humore beltza du eta egonezina sortzen du...

Hori zen asmoa. Nik nahi nuen zen humorea bai, baina beste terreno batzuetara eramatea, drama eta suspense apur batekin, koktel moduko bat egitea. Oso ondo onartua izan da; badirudi asmatu dugula.

Non grabatu duzue?

Donostian gertatzen da erdia. Betiko "Ñoñosti" atera eta herri txiki batekin kontrastatu nahi nuen. Etxe aproposena Beran aurkitu genuen eta herria Etxa-

EMANALDIK

ARRASATEN:

GAUR, ASTELEHENA

20:30

BIHAR, MARTITZENA

19:30

OÑATIN:

GAUR, ASTELEHENA (*)

19:30

BIHAR, MARTITZENA

19:30

(*) Ikuslearen eguna.

lar da. Gipuzkoan herriak gero eta hiritartuago daude eta Nafarroa aldera jo genuen.

Zer izan da zailena?

Finantzazioa lortzea. Duela urtebete pentsatu nuen pelikula hau ez zela inoiz egingo! TVE-k gidoia irakurri eta sartzea erabaki zuenean eman genion buelta. Ondorengo nahiko azkar eta ondo joan da.

Curriculum on bat izateak ez du laguntzen?

Bai, baina hori ez da dena. Murrizketak daude, zinea egiten duen jende asko... zaila dago!

Kixi alboan izan duzu?

Bai, batez ere, gidoia idazterakoan. Ez gara dibortziatu!

Valladoliden izan zara, Tuterara zoaz...

Kanpoan nola hartzen duten ikusteko irrikaz nago!

"Orokorrean, oso ondo onartua izan da; badirudi asmatu dugula"



*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

GURE MUSIKA TALDEAK

FRONT MALABAR



Borjak, Josemak eta Aitorrek emandako zuzeneko Danbakako laugarren edizioan, Espaloia antzokian. | JOSETXO ARANTZABAL

"Abesti pertsonalak dira eta barruko amorrua ateratzeko daude eginda"

- ▶ Erritmo aldaketa eta doinu bortitzak dira oinarri lehen lan horretan
- ▶ Kanpora irteteko asmoa dutela kontatu digute taldekideek

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Fron Malabar power hirukotea Danbakako laugarren edizioan ezagutu genuen. Euren erritmo aldaketa indartsuak ikusle bat baino gehiago txundituta utzi zuen zuzeneko hartan. Orain, lehen lanarekin agertokia astintzera datoz.

Erritmo aldaketak nagusi dira zuen abestietan.

Gure esentzia da. Ez daukagu aurrez definitutako estilorik. *Insane* abestia, esaterako, alternatiboa da. *Was a time* punka-goa eta azkarragoa da. *Manic*

soldier kantuak, berriz, erritmo aldaketa asko ditu... ez dago estilo definiturik diskoan.

Gitarra zikinek presentzia dute.

Produkzioak zerikusi handia izan du horretan. Nork bere soinua atera nahi du, baina soinua egokia topatu behar dugu... rock alternatibora eta punkera bideratutako doinua nahi genuen lan honetarako. Abestiak elkarren artean ezberdinak diram erritmo aldetik bereziki, baina orokorrean abesti trinkoak dira.

Are you sure, seguru zaudete?

Oso abesti pertsonalak dira: "Segu-

ru zaude ezagutu nahi nautzula?", diogu kantu horretan. Harremenen ganean hitz egiten du. Kasu honetan, gainera, diskoiko abesti azkarrena, *kañeroena* eta *hardcorena* da.

Abestiak Borjak egiten ditu eta bere esperientzietan oinarritzen da bereziki, ezta?

Bai, sentimendu pertsonalak dira. Barruko amorrua ateratzeko eginak. Nola sentitzen zaren azaltzen dute eta sentimenduak azalertzeko bide dira kantuak. Guretzako esanahi bat dute, era batera ulertzen ditugu; baina abesti

berak jendearendako bestelako esanahi bat ere izan dezake.

Abesti freskoak azkarrak dira, estilo ramonianoa dutenak.

Bai, hori esan izan digute, adibidez, *Insane* abestia entzutean. Baina alternatiboagoak, ilunagoak direla kantuak esango genuke, eta ez dutela Ramonesekin zerikusirik guretzako.

Diskoaren azala deigarria da.

Marraskia Interneten aurkitu genuen. Bertan ikusten dira argazkilaria, haurra izututa... Sentsazionalismoa, demagogia erakutsi nahi genuen. Sanoa ez dena azaleratu nahi genuen. Azal polit eta esanguratsua dela uste dugu.


Zuzenean nolakoak zarete?

Zalantza barik, zuzeneko taldea gara. Dena ematen dugu, jendea egon edo ez berdin-berdin esprestatzen gara taula ganean, gusatzan zaiguna da-eta. Jendeak zuzenean ez gaitu oraindik entzun lan berriarekin, baina kantu berriak entzun dituztenek esan digute ezberdinak garel.

Zertan aldatu da taldea?

Gitarraren, bateriaren eta koruen erritmo aldaketetan egon daiteke eboluzioa. Baina, oinarrian, betiko esentzia daukagu. Hobekuntzak ere izan ditugu, bai teknikoki eta baita jendearen aholkuak jarraitu ditugulako ere; horrek ere beste ukitu bat eman digu, baina, esan bezala, Front Malabarren esentzia bera da. Orain, hemendik irten eta kanpoan ere nahiko genituzke zuzenekoak eskaini.

ZERTZELADA



FRONT MALABAR

Estiloa: High-energy, psikodelia, grunge, punk...
Egilea: Front Malabar.
Argitaletxea: Autoekoizpena.
Iraupena: 18,1 minutu.

Psikodelia eta trinkotasuna

Danbakako laugarren edizioan izan genuen lehen aldira talde honen berri, eta alderdi oso interesgarriak erakusten zituen arren, igartzen zen talde gazteegia zela oraindik. Tartearen arrasatear bat duen (gogoan daukazue Malaña? Josema, bateria jotzailea da) hirukoteak sei kantuz osatutako lana argitaratu eman du, eta oso emaitza borobil eta interesgarria lortu du. Psikodelia tamaina dezentean, punk-rock bintza batzuk, high-energyaren muturreko eromena tarteka, punk-rockaren indarra, grungearen axolagabekeria... Kantu indartsuak dira, erritmo markatu eta bizikoak, eta 'pegada' gogorrekoak, iraganera begira jartzen gaituztenak.

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Etxebizitza ia berria salgai. 4 urte. 2 logela, 2 komun, sukaldia (eskegitokia), balkoia, garajea eta trasteleku. Negoziazarria. 615-00 72 16.

Antzuola. 73 m²ko etxebizitza salgai. 18 m²ko garaje itxiarekin. Bilogela, bi komun, egongela eta sukaldia. 660-70 04 48.

Aramaiio. 90 m²ko etxebizitza salgai. Ibargoia kalean. Hiru logela eta komun bi. Dena kanpoaldera begira. Ganbara eta garaje itxia. 652-72 83 60 / 945-44 53 52.

Atxondo. 82 m². 3 logela, sukaldia, egongela ederra, komun. 2 balkoi. Ganbara eta igogailua. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du etxe guztiak. Berriztatuta eta altzairuz hornitua. Deitu konpromiso barik eta ikusi. 628-78 78 35.

Azkoitia. Etxebizitza salgai azkoitian. 91 m². 4. Solairua. 96.000 euro. Dena berrizteko. Aitzibel 6. (ikus edo negoziatzeko arazorik ez). Interesatuok deitu: 648-64 01 01.

Berriz. Berriz pisa salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. 647-77 73 92.

Berriz. Berriz erdian pisa berria salgai. 80m². Oso kokapen ona. Guztiz jantzitua dago. Sukaldia, egongela, komun handia, 2 logela (bat egurrezko ganbaratxoarekin, balkoia, despentsa txiki bat. Berogailua zoru errandiantea da. Oso eguzkitsua da. 607-52 24 26.

Durango. Pisu salgai Murueta-Torren. 90 m². Sukaldia eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun (bat logela barruan). Guztiz berriztua (ateak, leihoak, horma-armairuak...) eta jantzia, eguzkitsua, bista eta kokapen ederra. Ganbara eta garajea. 686-13 89 09.

Durango. Pisu salgai Sasikoa kalean. 3 logela, komun eta egongela-jangela handia. 2 balkoi. Kalefakzioa gas naturalarekin. Garajea eta ganbara. Prezio ezin hobea. Tel.: 679-38 23 69.

Durango. Atiko zoragarria salgai Durangoko alde zaharrean. Eguzkitsua eta bista ederreko terraza handiarekin. Kalefakzioa eta aire egokitua. Igogailurik ez. Zaharberituko eraikina. 665-94 46 74.

Elorrio. Elorrioko erdialdean kokatua dagoen etxebizitza salgai. 2 logela eta 2 bainugela. 634-45 72 01.

Elorrio. Etxebizitza berria erdialdean. 2 logela, 2 bainugela, sukalde ekipatua. Igogailua. Trasteleku. Aukera ona. 657-79 39 93.

Elorrio. Elorriko estreinatzean dagoen 162 m²-ko terraza duen atikoa (73 m²) salgai. 2 logela, egongela bat, sukaldia eta 2 bainugela. Igogailua eta trasteleku. Oso kokapen ona, eguzkitsua eta bista zoragarriekin. Aukera paregabea!. Deitu: 615-75 59 85 (goizez) eta 636-22 49 02 (arratsalde).

Eskoriatza. Eskoriatzan 120 m²ko duplexa salgai. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. 679-16 24 96.

Oñati. Etxea salgai Kale-Zaharrean. 90 metro koadro gehi ganbara. Hiru logela. Oso eguzkitsua. Garajerik ez. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu: 657-79 43 29.

Oñati. Etxebizitza, 110 m²koa, salgai erremantari plazan. 9 urteko antzinatasuna. Hirugarren solairua. Lau logela, bi komun, egongela handia, dena guztiz jantzia. Bi trasteleku eta bi plazako garaje itxia. Oso argitsua eta prezio interesgarria. 670-39 51 30.

Oñati. 72 metro koadroko etxebizitza salgai Kalebarrian. Sukaldia, egongela handia, bainugela eta bi logela. Dena guztiz jantzia. Patio erabilgarria eta trasteleku ere baditu. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. 665 71 77 98

Oñati. Etxebizitza salgai. 60 metro koadro. Trasteleku eta garaje itxia. Erremantari plazan. 653-73 08 04.

Tolosa. Tolosako alde zaharrean atikoa salgai. Kale Nagusia 32an. 55 m². 2 logela. 179.000 eurotan. 943-57 13 87. andoniudabe@hotmail.com

103. ERRENTAN EMAN

Oñati. Etxebizitza errentan ematen da Kale Zaharrean. Hiru logela. 656 00 84 92

Elorrio. Elorriko etxea errentan. Harremanetan jartzeko deitu ondorengo telefono zenbakira: 695-78 27 86.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxea errentan hartuko nuke. 663-28 75 10.

Arrasate. Bikote arduratsua gara, lanean diharduguna. Etxebizitza behar dugu errentan, epe luzerako. Bilogelakoa gutxienez. 662-66 34 20.

Durango. Bikote arduratsua alokairuko pisu baten bila durango edo inguruetan. Interesatuok deitu: 617-86 00 55.

105. ETXEA OSATU

Antzuola. Baserri batean logela ematen da errentan, sukalde eta abarrak erabiltzeko aukerarekin. Errentaz gain ez da beste ezer ordaindu behar. Interesatuok deitu: 679-34 00 45.

Aretxabaleta. Aretxabaletan etxebizitza osatzeko gela bat daukagu libre, Araba ibilbidean, mutil batentzat. Interesatuok deitu: 678-73 66 54.

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. 657-55 81 15 edo 648-86 05 49.

Arrasate. Etxebizitza osatzeko bi pertsona behar dira. Langileak bizi dira bertan. Hilean 190 euro. 699-11 45 14.

Arrasate. Logela ematen da errentan erdian, unibertsitate-etik gertu. Erosoa eta handia. 645-01 05 84.

Bergara. Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. Interesatuok deitu: 647 33 24 91,

Bergara. Pertsona bat behar da etxea osatzeko Bolun. 250 euro hilean, gastuak barne. 670 85 86 68

Berriz. Estreinatze eta leku paregabean. 619-66 58 57.

Durandaldea. Pisu konpartituzko lagun baten bila nabil (emakumea nahia). Interesatuok deitu: 688-67 86 90

Durango. Logelabak alokatzen da komun pribatuarekin Ibaizabal auzunean. Interesatuok deitu: 652-86 57 80.

Durango. Pisu konpartituzko lagun baten bila nabil urangon. 2 komun, 2 logela, 2 egongela eta sukaldia konpartituzko. Interesatuok deitu 650-73 87 24 telefono zenbakira.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com



Deba Garaia Inmobiliaria

Telefono Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Sanantonabat, 75 m², oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerrea, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Burdinategi, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilaganak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- Ibargarai, 80 m², oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m², oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m², berritua, prezio onean.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- San Lorenzo. Prezio ona. Berria.
- Urteaga. Berrizteko. Prezio ona.
- Urarte (Lorentxoko). 140 m². Berria
- Bidekurutzeta. 78 m². Berritua.
- Juan XXIII enparantza. 87 m². Ondo.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, artokan, San Lorentzon eta Lorentxokon.
- Lorentxokon aukera ona.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 m². Berria. Garajearekin.
- Fraizkozuri, 75 m², eguzkitsua, oso ondo.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokrosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- Bergara:**
- Martoko. 70 m². Igogailuarekin. 192.233 €.
 - Basarte. 68 m². Terrenoarekin.
 - Artekale 40 m². Berritua.
 - Koldo Eleizalde. 74 m². Eguzkitsua. Prezio ona.
 - Ozaeta. 96 m². Eraikuntza berria.
 - Osintxu. 84 m². Igogailuarekin. 153.258 €.
 - Ibargarai 54 m². Garajearekin.
 - Burdinategi 53 m². 162.273 €.
 - Matxiategi 65 m². Igogailuarekin. 190.000 €.
 - Mizpildi. 70 m². Eguzkitsua.
 - Zubiaurre 79 m². Berria.
 - Zabalotegi 54 m². 154.761 €.
 - Aranerrea 80 m². 189.319 €.
 - San Lorenzo 68 m². Berritua.
 - Herri Lagunak 52 m². Prezio ona.
 - Zubiaurre 51 m². Terrazarekin. 102.000 €.
 - Zubiaurre 81 m². Igogailuarekin. 183.909 €.
 - Zubieta 55 m². Berritua. 150.000 €.
 - Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.
 - Artzamendi. 75 m². Prezio ona.
 - GARAJEAK SALGAI Ozaetan, San Lorentzon eta Ibargarain. Aukera ona.

ANTZUOLA:

- Ondarren garajea salgai. 36 m².
- Buzintzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aiera eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m². Oso etxe ona.

Soraluze:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Dugun eskaera dela eta etxebizitza behar ditugu alokatzeko

Eskoriatza. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Intxaurbuetan. Edume. 639-88 80 63.

Eskoriatza. Erdigunean, pisua konpartituzko bi pertsona behar dira. Etxe guztiz eraberritua. 685-73 60 57.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Berriz. 42 m²-ko garaje itxia salgai. Ate automatikoa. Ur eta argi instalazioak iaz eginda. Komun eta bodega txiki bat. Txoko txikia sukaldeagaz. 2 edo 3 kotxe. Tel.: 615-75 21 36.

Durango. Itxitako garajea salgai tronperri kalean, erdialdean. 628-78 78 35.

Elorrio. Kotxea gordetzeko garaje bilazabilta? Berrio-otxo kalean baduzu horretarako aukera! Garaje itxia salgai. 658-75 92 64.

Eskoriatza. 15 m²ko garaje itxia salgai Intxaurtueta 23an. 679-16 24 96.

203. ERRENTAN EMAN

Durango. Montebideon (Ertzaintza alboan) 26 m²-ko garaje itxia errentan ematen da. Interesatuok deitu 656-76 76 06 telefonora.

Durango. Durangoko Antso Estegiz kalean garajea alokagai. 690-18 91 68.

Durango. Garaje partzela alokagai Alluitz kalean. 669-63 03 12.

3. LOKALAK

301. SALDU

Abadiño. Matiena. 44 m²-ko txoko berria salgai. Beharrezko baimenguztiek. 672-25 80 41

Elorrio. 360 m²-ko pabilioia salgai Elorrioko industrialdean. 634-45 72 01.

Elorrio. 950 m²-ko pabilioia salgai Elorrioko industrialdean. 634-45 72 01.

305. BESTELAKOAK

Oñati. Erdigunean, bulegoa lanetan jarduteko gela daukat libre. Berria eta oso argitsua. Erabiltzeko gertu dago. Egun soltatan erabiltzeko aukera ere bai. Interesatuok deitu 651 70 17 41 telefono zenbakira

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Aretxabaleta. Bi ume zaintzeko pertsona euskalduna behar dugu. Astean 2-3 egunez. Deitu 676-29 41 74 telefono zenbakira.

Debagoiena. Emakumea gertu sukaldari laguntzaile jarduteko zein gaixoak zaintzeko. Egunez eta gauzez. Esperientzia eta informez ditut. 661-48 86 74 / 943-79 67 96.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko, etxe, atari eta abarrak garbitzeko, edo sukalde laguntzaile jarduteko. Gidabaimena dut. 600-81 99 34.

Debagoiena. Elikagaien manipulazioarako titulua daukan neska gertu sukaldean lan egiteko. Baita ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko, orduka edo egun osoz. Deitu 659-37 41 95 edo 681-37 60 13 telefono zenbakira.

Debagoiena. Emakumea gertu edozein motako lanetan jarduteko. 610-99 70 46.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. 636-60 90 24.

Debagoiena. Esperientziadun neska, arratsaldean, nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 696-70 55 09 telefonora.

402. ESKAERAK

Abadiño. Arkitekturako ikasketak eta aisialdian esperientzia duen neska euskalduna asteburuetan lan egiteko prest. Arkitektura, sukaldia, taberna, aisialdia, etxeko lanak... 659-68 02 17 saiozazu3@hotmail.com.

Aretxabaleta. Leire. Haur hezkuntza ikasketak amaitu ditut. Umeak zaintzen lan egiteko nuke, posible bada Aretxabaletan, baina bailara osoan ere bai. 665-74 12 66.

Arrasate. 53 urteko emakumea, lanerako gertu. 943-79 60 89.

Arrasate. Bertako emakumea, arduratsua, gertu nagusiak zaintzeko. 606-88 94 14.

Arrasate. Haur hezkuntza ikasi duen neska euskalduna arratsaldean umeak zaintzeko prest. Arrasatekoa naiz. Deitu 665-73 10 08 telefono zenbakira.

Bergara. Bergarako emakumea etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu. Deitu 696 84 19 51 telefono zenbakira.

Bergara. Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. 665-75 41 32.

Bergara. Neska esperientziaduna gertu umeak zaindu eta etxekolanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: Deitu 943-76 12 57 edo 652-75 68 95 telefonora.

Bergara. Mutila gertu arratsaldetan lan egiteko, eguneroko. 654-98 69 14.

Berriz. Mutil gazte batek bere burua eskaintzen du loraintza lanak egiteko. Tel.: 652-72 38 69. Deitu arazorik gabe.

Bilbo. Negozio txiki eta ertainetarako kontrol-paneladun web atari profesionalak egiten dituzten azken belaunaldiko teknikak erabiliz. 5 urteko esperientziadun programatzaile/diseinatzaile gaztea eta euskalduna. Online dendak, blogak, foroak, katalogoak, diseinu anitzak (panfletoak, menuak, paperezko katalogoak...) nahi duzuna, nahi duzula! lan egiteko gogoak, gertua eta serioa. Nirekin kontaktatzeko: 662-14 36 92.

Debagoiena. Asteburuetan lan egiteko nuke nagusiak zaindu edo etxeak garbitzen. 699-09 46 26.

Debagoiena. Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak zaintzeko gertu 14:00etatik aurrera. 637-18 07 23.

Debagoiena. Emakumea gertu sukaldari laguntzaile jarduteko zein gaixoak zaintzeko. Egunez eta gauzez. Esperientzia eta informez ditut. 661-48 86 74 / 943-79 67 96.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko, etxe, atari eta abarrak garbitzeko, edo sukalde laguntzaile jarduteko. Gidabaimena dut. 600-81 99 34.

Debagoiena. Elikagaien manipulazioarako titulua daukan neska gertu sukaldean lan egiteko. Baita ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko, orduka edo egun osoz. Deitu

Debagoiena. Esperientziadun auto mekanikaria lanerako gertu. 660-23 12 73.

Debagoiena. Garraio lanak egiteko prest nengoke: pertsonak, paketeak edo bestelakoak. Furgoneta daukat. Deitu 628-51 22 78 telefonora..

Debagoiena. Gizon arduratsua, legezko paperekin, prest garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko, orduka. Baita zerbitzari jarduteko ere. Gidabaimena eta autoa daukat. Deitu 677-77 22 31 zenbakira..

Debagoiena. Ikasketa soziosanitarioak dituen neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetan jarduteko, asteburuetan. 649-15 72 47.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten ere bai. 659-77 96 22 / 943-76 48 80.

Debagoiena. Mutil euskalduna mendi garbiketarako, lorezaintza lanak eta abar egiteko prest. 658-73 79 02.

Debagoiena. Mutil gaztea gertu edozein lan egiteko: obratan, nekazaritzan, tabernetan eta abar. 600-80 68 83.

Debagoiena. Mutila gertu edozein lan egiteko: garbitze-lanak, zerbitzari-lanak, obrak eta abar. 687-26 89 05.

Debagoiena. Mutil arduratsua, legezko paperekin, gertu nagusiak zaindu. Baita bestelako lanetarako ere. 673-60 77 38.

Debagoiena. Nagusi edo umeak zaintzen eta garbitasun lanetan jardungo nuke. Regina. 646-22 29 35.

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, nagusi edo umeak zaintzeko gertu, etxean bertan bizi izaten. 646-22 29 35.

Debagoiena. Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko. 617-90 55 82.

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka, egunez, gauetan edo etxean bertan bizi izanda ere bai. Erreferentzia onak daukat eta lanean berehala hasiko nintzateke. Deitu 638-93 11 48 edo 943-25 01 11 zenbakietara.

Debagoiena. Neska gertu sukalde laguntzaile, garbiketa, eta abarretarako. Etxean bizi izaten edo orduka. Deitu 662-26 71 41 telefonora.

Debagoiena. Nagusi edo umeak zaindu zein garbiketa eta etxeko lanak egiten lan egingo nuke. 626-09 73 77.

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanetan jardungo nuke. Egun erdiz edo osoz. Neska arduratsua naiz. 645-01 05 84.

Debagoiena. Neska 20:00etatik aurrera eta asteburuetan lan egiteko gertu. Deitu 677-12 75 44 telefonora..

Debagoiena. Neska gertu astean zehar orduka edo asteburuetan lan egiteko. Deitu 659-90 85 13 zenbakira.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, edo bestela. 636-78 34 90.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edo ume zain nagusiak zaintzeko, orduka. Baita zerbitzari ere. Eskarmentuduna. 674-59 85 01.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eskarmentua duen mutila lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Berehala lanean hasiteko gertu. Legezko paperak ditut. 603-14 59 17.

Debagoiena. Neska eskaintzen da debagoienan pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Etxean bizi izaten edo bestela. Lanean hasiteko moduan nago eta erreferentziaduna. Interesatuak deitu: 615-71 62 32.

Debagoiena. Neska gertu etxean bizi izaten edo orduka nagusi zein umeak zaintzeko, edo garbitasun lanetan jarduteko. Erreferentzia onak daukat eta berehala hasiko nintzateke lanean. 649-07 31 33.

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila. Etxean bertan bizi izaten nagusiak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. Deitu 638-89 32 69 telefonora.

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Aste-bukaretan. 627-15 09 34.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu umeak zaindu, orduka garbitasun lanak egin edo nagusiak zaindu zein laguntzeko. Deitu 943-71 53 74 edo 695-73 87 95 zenbakietara..

Debagoiena. Neska euskalduna, eskarmentuduna eta erreferentzia onekin, nagusiek lan egin edo umeak zaintzeko gertu. Baita garbiketa orokorrak egiteko ere. 671-35 22 60.

Debagoiena. Neska eskarmentuduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko zein garbitasun lanetan jarduteko. 606-41 04 00.

Debagoiena. Neska gaztea lanerako gertu: nagusiak zaindu, sukaldean lagundu, garbitasun lana eta abar. Eskarmentuduna. 688-29 67 41.

Debagoiena. Neska prest lanerako: ume zein nagusiak zaintzen edo garbiketarako. Etxean bizi izaten, orduka, egun osoz, gauzez edo asteburuetan ere bai. Berehala hasteko aukerarekin. Erreferentzia onak. 619-96 54 76.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu nituzke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 666-69 26 07.

Debagoiena. Sukaldari eskarmentuduna gertu arratsalde eta asteburuetan lan egiteko. Urte askoan sukaldean lan egindakoa. 666-83 21 95.

Debagoiena. Sukalde laguntzaileak lana egingo luke. Deitu zenbaki honetara edo mezua utzi. 667 06 79 62

Debagoiena. Sukaldean, nagusiak zaindu zein garbiketa lanetan jardungo nuke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 662-26 71 41.

Durungaldea. Neska gazte euskalduna umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Goiz eta arratsalde. Esperientzia. Gabinete pedagogikoan egon naiz laguntzen. Deitu 648-13 13 27 telefonora..

Durungaldea. Neska euskalduna, fisioterapien diplomata. Durungaldean etxez etxez errehabilitazio (fisioterapia) traumatologikoa, neurologikoa, drenaje linfatikoa, masaiak, etab. Egiten ditut, pertsona bakoitzaren beharretara egokituta. Ordu-tegi malgua, goizez zein arratsalde. Interesatuak Deitu 635-74 15 15ra.

Durungaldea. Psikologo euskalduna ikasketarako arazoetan laguntzeko prest. Ikasketa teknikak era eskaintzen dira. 679-38 23 69.

Durango. Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko prest, goizez zein arratsalde, haur-hezkuntzako ikasketak burututa. Esperientziaduna. Interesatuak deitu: 615-71 62 32.

Durango. Neska gazte euskalduna bere burua eskaintzen du tabernari lanak egiteko, astean zehar goiz zein arratsalde, eta baita asteburuetan ere. Esperientziaduna. Interesatuak deitu: 615-71 62 32.

Durango. Altzarien muntaian, igeltsertozan zein elektrizitate lanetan jarduteko prest. Esperientzia hiru esparruetan. 620-02 97 00.

Durango. Neska gazte euskalduna etxeko lanak egin, haurrak zaindu, klase-partikularrak eman, tabernari lanak egin edo garbitzaile lanak egiteko prest. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 615-71 62 32.

Durango. Neska euskalduna naiz. EGA eta First Certificated in English titulua daukat eta farmazia ikasten hari naiz. Tabernaren baten lan egiteko, umeak zaintzeko edo klase partikularrak emateko prest nago baina arratsalde. Nire telefono zenbakia: Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 638-85 78 60. Eskerrik asko.

Durango. Andre euskalduna naiz eta pertsona nagusiak, gaixoak, ezinduek... zaintzeko prest nago. Urte askoko esperientzia daukat, eta lehenbailehen hasteko prest nago. Interesatuak deitu 699-74 57 23 telefono zenbakira. (Nes).

Durango. Emakume arduratsua pertsona nagusien edo umeen zaintzarako eta garbiketarako lan bila. Esperientziarekin. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 697-12 64 38.

Durango. Emakume arduratsua, esperientzia eta erreferentzia onekin pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientziarekin. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 663-32 84 25.

Oñati. Neska euskalduna gertu egun erdiz ume zein nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titulua daukat. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 677-05 39 06.

Umeak zaintzeko prest. Neska gazte eta euskalduna naiz, umeak zaintzeko prest dagoena 2011-2012ko ikasturtean. Durungaldeko edozein herritan, goizez zein arratsalde, ez dago arazorik. Goi mailako haur hezkuntzako titulua. Edozein galdera egiteko: 615-00 59 64.

Durango. Andre euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 659-08 81 85.

Durango. Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientzia daukat. Orduka, jardunaldi osoan edo erdian. Interesatuak deitu zenbaki honetara 616-30 04 15.

Durango. Persona nagusien, umeen edo garbiketa lanen lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona arduratsua, esperientzia eta erreferentziarekin. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 646-10 45 52.

Durango. Umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketarako lan bila. Externa, interna edo orduka. Esperientzia. Erreferentziarekin. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 697-12 64 38.

Durango. Umeak zaindu zein etxea garbitzeko prest dagoen neska bat naiz (goizez edo arratsalde). Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 619-20 11 19.

Durango. Emakume arduratsua umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketarako lanetarako prest. Interna edo externa. Esperientzia eta erreferentziarekin. Interesatuak deitu zenbaki honetara 660-64 20 89.

Iurreta. 51 urteko emakume euskalduna lan bila, batez ere arratsalde. Ume zaintzan esperientzia. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 663-32 84 25.

Oñati. Neska euskalduna gertu egun erdiz ume zein nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titulua daukat. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 677-05 39 06.

Umeak zaintzeko prest. Neska gazte eta euskalduna naiz, umeak zaintzeko prest dagoena 2011-2012ko ikasturtean. Durungaldeko edozein herritan, goizez zein arratsalde, ez dago arazorik. Goi mailako haur hezkuntzako titulua. Edozein galdera egiteko: 615-00 59 64.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Durango. Marrazketa teknikorako, algebra eta fisikarako irakaslea behar da. Deitu 659-84 175 edo 685-71 86 54 telefono zenbakietara.

Durungaldea. Batxilergoko marrazketa teknikoko klaseak emateko durungaldeko pertsona bat behar da. Ingenieritzako edota arkitekto irakaslea edo lizentziatua. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 655 71 75 27.

Debagoiena. Mantentze industrialeko ikasle batek elektrizitateko eta elektro-hidraulikoko eskola partikularrak hartuko lituzke. Inaki. Deitu 600-89 92 85 edo 943-79 43 75 telefono zenbakietara.

502. EMAN

Arrasate. Neska euskalduna, LH, DBH eta Batxilergoko mailan eskola partikularrak emateko prest. 677 75 12 90.

Arrasate. Mondragon Unibertsitateko Lein graduko ikasle talde bat enpresagintzako fakultatean bertan eskola partikularrak emateko prest gaude. LH eta DBH-ko ikasleei. Ordu-tegiari dagokionez negoziagarria da baina beti ere arratsaldetan beharko luke. 16:00etatik aurrera. 685 76 92 05. Oihana.

Bergara. Eskola partikularrak ematen dira ikasle zein irakaslearen etxean (poligonoa). LH eta DBH-ko edozein gai. Batxilergorako galdetu. Ingelesa edozein maila. Astean zehar 15:30etatik aurrera eta larunbat goizetan. Interesatuta bazaude deitu: 695 05 02 20

Bergara. Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarriketa lantzeko ere bai. Interesatuak deitu zenbaki honetara 654 94 87 26

Debagoiena. Frantseseko eskolak ematen dira. Deitu 679 74 00 61 telefonora.

Debagoiena. Informatika ingenerutza egindako neska prest programazio, datu base eta photoshop-eko laguntzak eskeintzeko baita trebetasun gabeko nagusientzat, ordenagailuarekin hasteko laguntasuna. Deitu 678-47 43 54 / 943-76 50 97 telefono zenbakietara.

Durango. Fisika, matematika, marrazketa teknikoak, kimika... Fisikan lizentziatua naiz eta klase partikularrak ematen esperientzia dut. Astelehentik larunbatera, goizez 14:00ak arte, eta igandeetan egun osoa libre. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 646-65 65 89 (lagoba)

Durango. Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Astean zehar eta baita asteburuetan ere. Esperientzia handikoa. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 653-71 24 60.

Durango. Sorterriz ingelesa den irakaslea, esperientziaduna eta Trinity College certesolak kualifikatua, ingelesko klase partikularrak emateko prest. Hizketaldi personalizatuak. Oinarriko eta goi maila, zure beharretara egokituta. Banako klaseak edo talde murriztuak. Arazoak prezioak. teignvalleyenglish@gmail.com. Tel.: 635-26 62 51 (Tristan Deane)

Durango. Ingeniaritzako ikaslea LH, DBH eta batxilergoko ikasleei klase partikularrak emateko prest. 666-20 78 45.

Durango. Ingeles magisteritzan diplomata, klase partikularrak emateko prest. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 619-20 11 19.

Gitarra elektrikoko eskolak ematen dira. Merke. Nahi izanez gero irakaslearen etxean ere bai. Interesatuak deitu telefono honetara 679 74 00 61

Gitarra eskola partikularrak Durangon. Elektrikoa, akustikoa, rocka, bluesa, jazz, funka eta abar. Eskalak, akordeak, eritmoa, teknikak, inprobisazioa, irakurketa... 650-17 22 85.

Tolosa. Lehen hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut, nirekin kontaktuan jartzeko 92naiara@hotmail.es emaila uzten dizuet.

Trikitixako klaseak. Trikitixako klaseak ematen ditut. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 661-12 56 47.

6. MOTORRA

601. SALDU

Mitsubishi Pajero liberty 3.2cc 170zp salgai. Extra askorekin (GPS, control cruise, klima, CD, aurreko kubiarta, disko eta pastilla berrieekin). Iker. 652-73 82 74.

Seat Ibiza salgai. Seat Ibiza 1900 tdi salgai. 5 urte. 86.000km. 100 zaldi. Beltza. 3 ate. 1Ata pasatuta. 5.000 euro. 669-83 87 68.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Asto bat saldu ta beste bat oparitu. Asto bat salgai ta beste bat oparitu. Batak urte bi ditu besteak bi. Landa ta basoak garbi edukitzeko egokiak. 616-58 57 88.

Astoa salgai. Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipajarrita. 650-17 22 85.

Ehizako txakurkumeak salgai. Ehizako txakurkumeak salgai. Spaniel breton-ak eta Setterrak. 150 euro. 695-7100 68.

Oilasko lumagoriak salgai. 94-681 90 85 (20:00etatik 21:00etara).

Rottweiler txakurkume bi saltzen dira. Arrak eta bi hilabetekoak. Prezio onean. 646-25 12 75.

704. BESTELAKOAK

Arratoi txakur arra opari. Arratoi txakur arra oparitzen da. Urte bat inguru du. 94-681 96 10.

Arratoi txakurra opari. Arratoi txakur emea oparitzen da 2 hilabetekoa. 656-74 34 57.

Asto bat hartzeko prest nago. Arra edo emea, kumea edo nagusia, edozein motatako astoa hartzeko prest nago. Oso ondo zaindua egongo da, zelai eder batean. Informazio gehiagorako bidali mezua astoo@hotmail.es helbidera.

8. DENETARIK

801. SALDU

2 metroko luzera duen bi plazako sofa salgai. la berria eta egoera oso onean. 300 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629-94 22 77 / 620-14 26 69.

Autorako MP3 irratia salgai. Autoarentzako CD/MP3/WMA Pioneer deh4700mpb irratia salgai. Erabili gabea. 636-27 15 08.

Baxua salgai. Baxu bat, ia berria, funda, kablea eta amplifikadorea (20watio). Prezioa: 200 euro. Bidali mezua: jbpetgarjo@hotmail.com

Bergara. Lursaila salgai Bergaran. 16.000 metro koadrokoa. 30 urteko pinuekin. Interesatuak deitu telefono honetara 653-71 66 87.

Biolinak. Hasiberrientzat bi biolin txiki salgai. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 649-76 79 64.

Bizikletarako umeen aulkia salgai. Ume txikia atzean eramateko eroso. Oso gutxi erabilia. Merkea. 648-63 58 06.

Bizikleta txikia salgai. Bi gurpilletan ikasteko oso aproposa. Kalitate onekoa eta egoera onean. 15 euro. 657-79 79 35.

Durango. Bulegoko altzariak salgai: mahaia, aulkia, batzar gela... Egoera oso onean daude. Deitu 656-73 77 79 telefonora.

Hozkailua combi new pol no-frost. 200 euro. Frigorifiko-congelador new pol experience xr-1850 ix nf. No-frost sistemaduna. Altzairuzko atak. 4 urtetan martxan egondakoa, egoera onean dago. Neurriak: altuera 185 zm x zabalera 59 zm. 2 ate. Kristalezko apalak. Izozkailuaren kapacitatea: 75 litro. Hozkailuaren kapacitatea: 217 litro. 200 eurotan salgai. 680-59 73 79.

Izozkailua berria salgai. la berria dagoen izozkailua salgai. 85 litroko edukiera. Prezioa: 100 euro. 94-655 06 04 edo 672-41 09 38.

Kanpadenda salgai. Marechal markako kanpadenda salgai. Behin bakarrik erabilia. 4 pertsonentzako. 120€. 615-00 72 16.

Literak salgai. Literak salgai. Trenerako oheak salgai. Bi litera eta azpiko bat, gutzira hiru ohe. Egur argia. Armairu handia ere badute ohe baten azpian. Egoera onean. Merke. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 657-79 79 35.

Lizarrar. Mobilhomea salgai iratxeko kanpinean, nafarroan. 686-77 04 97.

Oñati. Oñatin lursaila salgai, Lamiategi auzoan, landetxe ondoan. Ura hartzeko aukera. 665-70 12 56.

Paiste Alpha platerak salgai. Nahiko berriak dira, eta oso gutxi erabiliak. Honako hauek dira: rock crash 16 eta 18, full ride 20, eta zildjian zht medium thin 16. Tel.: 607-43 84 03. cuesta.roberto@gmail.com.

Trabesiako botak. Mendiko eskia egiteko botak salgai. Nordica tr-10. Hiru fijazio lotura. 27-27,5 neurrikoak (eu 42-42,5). Oso egoera onean. Harremantarako: aiz2gain@yahoo.es.

Trabesiako eskia. Trabesiako eskia salgai, taulak fischer x-trem 1,40 luzeria kotak 111-72-98 fijazioa silvretta pure carbon tube 150 eurotan. 690-15 95 06.

Tronpeta salgai. Egoera onean. 688-62 11 98.

Yamaha clavino pianoa. Yamaha clavino pianoa salgai eta esertzeko banketa opari. Ondo zaindua. Pianoko hasierako 4-5 urteetarako oso aproposa. Deitu 20:00etik aurrera. 653-73 78 58.

Umeendako. Umeendako bi maxi cossi, aulkientzako bissofix, bi neguko zaku maxi cossi-endoak eginak, mini kuma bat, avent-en biberoni estilizadorea eta kuma bat salgai. Dena batera edo banaka salduko genduke. Gutxi erabiliak. Prezio erdian saltzen ditut. 667-66 12 40.

Wii-a salgai. Beltza. Gehigarri, kargagailu eta jokoekin. 2011koa. 688-65 70 62.

Xenon argiak. Kotxearendako bi Xenon argi salgai. 614-73 58 38.

802. EROSI

Akordeoi kromatika bat erosi nahi genduke. Deitu zenbaki honetara: 652 40 14 17

CD erreproduktore eta amplifikadore bila. Bigarren eskuko CD erreproduktorea eta amplifikadorea erosi nahi genduke. 606-26 62 44. Luisma


Lursaila erosi nahi genduke Bergara, Onati edo Eskoriatza artean. Deitu zenbaki honetara: 626 01 19 07

Motoreta hartu edo erosi nahi genduke. 80. hamarkadakoa. 658 99 59 12

Nintendo DS light erosi. Nintendo DS light-erako kargadore erosi nahi genduke. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 637-52 89 83.

Trikitixa erosi edo alokatu nahi genduke. Deitu zenbaki honetara: 686 02 07 40

Trikitixa erosi nahi genduke. Biedu hiru ahotseko trikitixa erosi edo alokatu nahi genduke. Deitu zenb



Sare berriaren harrera orrietako bat. | UNTHINK.COM

Pribatutasun bermea agintzen duen sare sozial berria sortu dute


Unthink sareak Facebook eta Googlen pribatutasun kexei erantzuten die

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Sare sozialen merkatu honezkerobetean beste proposamen bat egitera datorren egitasmoa abian da: Unthink. Noski, Google+ eta

Facebooken alternatiba izan gura dute eta horretarako pribatutasun absolutua bermatu eta enpresei daturik salduko ez dietela agintzen dute. Erabilera ere errazagoa

dela diote Unthinketik, lau atal besterik ez baitu erabiltzaile bakoitzaren profilak: mikroblog bat (mezu laburretarako), atal sozial bat, marka eta enpresekin



Garuneko tumore baten irudikapena. | THISPIDER.COM

Ezin izan dituzte lotu minbizi kasuak sakelakoarekin

Danimarkan 350.000 pertsonaren datuak erabili dituzte loturarik ez dagoela ondorioztatzeko

J.B. | ARRASATE

Eztabaidak bizirik segitzen du eta frogak, aldekoak zein aurkakoak, nahi adina daude. Azken ikerketa Danimarkan eginikoa da eta arrisku arrastorik ez dute aurkitu. Inoiz egin den ikerketarik zabalena egin dute Danimarkan, 350.000 erabiltzaileekin, eta ez dute erlaziorik aurkitu mugikorren erabileraren eta minbiziaren artean.

Frogak frogak eta ikerketak ikerketa, eztabaida zientifikoa ez da isildu. Osasunerako Mundu Erakundearen mendeko den agentzia batek ekainean esan zuen baietz, balitekeela loturarik egotea, eta OMEk balizko minbizi-eragileen zerrendan sartu zuen sakelakoaren erabilera. Hala ere, agentziak berak ekainean kaleratutako agirian dio ikertzen jarraitu behar dutela ondorio garbiak izateko.

British Medical Journal ageriari eman du ikerketaren berri eta 1996tik 2007ra egin diete erabiltzaileei jarraipena. Telefonía mugikorreko kontratua izan duten 350.000 lagun konparatu dituzte kontraturik gabekoekin eta Danimarkako Minbiziaren Erregistroko datuekin konparatu. Ondorioa izan da bi taldeetan (kontratudunak eta bakoak) minbizi arrisku bera dela. Ikerketa hori ere ez da definitibotzat jotzen, baina argi uzten du behintzat, datozen urteetan garuneko minbizi kasuak ez dutela modu ikusgarrian gora egingo; hain justu, ikerketan kontuan hartutako urteak aintzat hartuta, dagoeneko gora egiten hasita beharko bailukete kopuruek.

konektatzeko beste atal bat eta, azkenik, laugarren bat, harreman profesioaletarako bideratuko dena.

Pribatutasuna indartu guran

Sare berriaren pribatutasuna da sortzaileek nabarmentzen dutena, erabiltzaileak aurkako erabaki ezean, profil guztiak pribatuak baitira. Facebook eta Googlek egiten dutenaren kontrara, agintzen dute erabiltzaileen datuak ez dizkietela beste enpresa batzuei salduko eta erabiltzaileak berak erabakitzen du, marken informazio jaso gura izatekotan, zein markarena jasoiko duen. Marketin interakzio horrek puntuak eman eta beharpen eta deskontuak emango dizkie Unthinkeko erabiltzaileei, *iEndorse* izeneko aplikazioarekin. Hori bai, profileen publizitaterik gura ez dutenek urtean bi dolarreko kuota ordaindu beharko dute.

Facebooken erabiltzaileen artean hainbeste kexa sortu ohi dituzten diseinu aldaketekin ere ez ei dute inor gogaituko, hori agintzen dute. Azkenik, Facebooketik Unthinkera migrazioa errazteko Facebookeko argazki eta bideo guztiak jaitsi eta sare berrira igotzeko aplikazioa ere ipini dute eskura.

Oraingo, beta fasean dago Unthink eta aurrez eskatutako gonbidapen baten bitartez eskura daiteke profil bat. Publizitatean diote ez direla "sare soziala", "iraultza soziala" baizik.

Netflixek ez du Estatuan zerbitzurik eskainiko, oraingo

Arazo ekonomikoengatik bertan behera utzi ditu asmoak telesail eta filmen *streaming* zerbitzu ezagunak. European, oraingo, Erresuma Batuan eta Irlandan soilik emango dute zerbitzua. Burtan azken asteetan izandako beherakadak eragin du atzera egitea, asmoa baitzen 2012an hasia Espainiako Estatuan.



Netflix. | GOIENA

Eduki propioekin kateak eskaintzen hasiko da Youtube

Oraingo astean hasiko da Youtube eduki propioekin osatutako 20 kate berri eskaintzen. Kate bakoitzak astean 5-10 orduko programazioa eskainiko du. Kirol, gastronomia eta albiste kateak izango dira. Xehetasunak egunotan emango dituzte.

Chromen bertsio berria kaleratu du Googlek

Nabigatzailearen bertsiorik egonkorrena da eta aldaketa handienak fitxen kudeaketa eta aurkezpenean dauzka. Chrome Web Store dandan ere aldaketak ekarri ditu nabigatzaileak eta pantailaratze moduak ere aldatu ahal izango dira leiho berrietan.

Googlen musika denda laster egongo da prest

Android Marketa gertu dago musika denda birtual berriari ongiotzorra egiteko. Egun zehatzik ez dute aurreratu, baina aurki zabalduko dute zerbitzua. *Music.google.com* helbidera Android batetik sar daiteke dagoeneko.

ComScorek neurtuko ditu Espainiako audientziak

Audientziak neurtzeko sistema bakarra eskatu dute Espainiako hedabide digital nagusiek, eta, hala, ComScore enpresa arduratuko da neurketa bakar hori egiteaz. Audientzia neurketa hori publizitate helburuetarako erabiliko da.

Nortasun agiri elektronikoa arrakasta txikia bost urtean

J.B. | ARRASATE

Bost urte bete berritan, 25 milioi pertsonak daukate Espainian nortasun agiri elektronikoa eta hiru urteren buruan agiri guztiak digitalak izatea espero da.

Hala eta guztiz ere, herritarrek NA elektronikoa betikoaren pare erabiltzen jarraitzen dute, nahiz eta berriki Espainiako Industria Ministerioak zenbait enpresa handiekin hitzarmenak sinatu dituen. Banco Santander, Vodafone eta Iberdrola enpresek elkarlanean, herritarrek agiri elektronikoen onurez jabe daitezen gura dute. Izan ere, ez du arrakastarik izan enpresa pribatuak ez direlako egokitu, Industria Ministerioaren ustez. Gainera, agiri elektronikoa erabiltzeko irakurgailu berezia erosi beharra dago eta herritarrek ez dute halakorik egin. Horrez gain, erabiltzaileek PIN bat gogoratu beharra dute eta Espainiako Barne Ministeriotik diote herritar gehienek ez dakitela zein den ere.

TELE-BEGI

AINHOA VITORIA



Ikuskizuna 1-futbola 0

Telebista piztea baino ez duzu futbola telebistaren diru-iturri garrantzitsuenetakoa dela ohartzeko, beraz, ondo zaindu beharreko formatua da. Futbolaren ikuskizuna aldatzen doan heinean, telebistan eskaintzen dena ere aldatu beharra dago.

Orain arte, telebistan futbolari buruz hitz egiterakoan, kirolari garrantzi handiagoa ematen zitzaion ikuskizunari baino. Dagoeneko, ikuskizunak kirolari irabazi dio eta ligako txapelaldun bihurtu da.

Kirol albisteak emateko modua aldatu da; modernizatzen hasi dira. Partiduez gain, garrantzitsua da gradetan gertatzen dena azaltzea edo kirolarien arteko harremanak eta istorioak kontatzea. Modernizazioak, mesede egin die futbol albisteei. Honela, futbolaz ezer gutxi dakigunok ere futbolaz disfrutatzen dugulako.

Betiko kirol tertuliek ere aldaketak somatu dituzte eta, klasikoagoak ziren tertuliak istiluz betetakoetan bihurtzen ari dira azkenaldian. Kazetariak eta adituak kirola baino garrantzitsuagoak izan ezkerro, akabo. Ikuskizuna garrantzitsua da bai, baina beti ere futbola eta kirola protagonistak baldin badira.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 31



Tolosako Aldaba auzoa ezagutzen

16:00

Tolosako Aldaba auzoa ezagutuko dugu *Walker* saioarekin; inguruko paisaia, auzotarrak eta bertako ibilbideak.

08:00 Marrazki bizidunak
09:00 Ipupomamua
09:30 Erreportajea: Antzerkia Arizkun
10:20 Kantari
11:20 Bertso saioa
12:15 Onein
12:40 Magazinea
13:40 Marrazki bizidunak
14:00 Kantari
15:00 Bertso saioa
15:30 Berriak
16:00 Walker
16:30 Hamaika.bit
17:00 Berbetan
17:32 Berriak
18:02 Ur eta lur
18:36 Nere herrie
19:16 Marrazki bizidunak
19:43 Berriak
20:13 Kantari
20:43 Magazinea
21:43 Casting
22:10 Magazinea
23:10 Casting
23:37 Gipuzkoa kultura

MARTITZENA, 1



'Casting' saioa eskainiko dizuegu

15:28

Saio berri batetarako jende bila ibli den *Casting* saioan, esaterako, Goienan ibilitako aurpegi ezagunak ikusi ahal izango ditugu.

08:00 Marrazki bizidunak
09:00 Ipupomamua
09:30 Antzerkia: Alproja
10:20 Kantari
11:20 Bertso saioa
11:50 Onein
12:15 Magazinea
13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:02 Onein
14:30 Berriak
15:00 Bertso saioa
15:28 Casting
15:55 Ikusmira
16:37 Berriak
17:07 Bizitegia
17:37 Casting
18:04 Marrazki bizidunak
18:24 Berriak
18:51 Kantari
19:16 Magazinea
20:16 Berbetan
20:48 Magazinea
21:48 Bertso saioa
22:43 Magazinea
23:43 Gipuzkoa kultura

EGUAZTENA, 2



Bertsolaritzari buruzko saioa

20:45

Bertsolaritzari tartea eskainiko diogu aste honetan ere gure programazioan. G Puntu-ko saio bat ikusiko dugu eguaztenean.

12:30 Ikusmira
13:12 Casting
13:39 Kantari
14:09 Ur eta lur
14:42 Berriak
15:12 Gipuzkoa kultura
15:42 Hamaika.bit
16:10 Ipupomamua
16:40 Berriak
17:10 Bizitegia
17:37 Ikusmira
18:19 Casting
18:46 Berriak
19:16 Kantari
19:46 Magazinea
20:46 Bertso saioa
21:16 Magazinea
22:16 Nere herrie
22:56 Magazinea

EGUENA, 3



Xarma taldea ezagutuko dugu

22:15

Danbakoa irabazleek, Xarma taldeko kideek, *Karenka* lana kaleratu dute. Euren lanari buruz jardungo gara *Gipuzkoa kultura*-n.

12:30 Magazinea
13:30 Marrazki bizidunak
14:05 Kantari
14:35 Erositaikasi
14:45 Berriak
15:15 Onein
15:42 Walker
16:12 Bizitegia
16:39 Berriak
17:09 Kantari
17:39 Bertso saioa
18:09 Erositaikasi
18:19 28.Klip
18:46 Berriak
19:16 Kantari
19:43 Magazinea
20:43 Hamaika.bit
21:13 Magazinea
22:13 Gipuzkoa kultura
22:43 Magazinea
23:43 Bertso saioa

EGUBAKOITZA, 4



Oñatiko Kantari gehiago ikusgai

19:20

Oñatiko abeslari eta dantzari gaztetxoak ezagutzen jarraituko dugu egubakoitzeko *Kantari* karaoke ikuskizunaren saioan.

12:30 Magazinea
13:30 Marrazki bizidunak
13:55 Kantari
14:22 Onein
14:47 Berriak
15:14 Nere herrie
15:54 Marrazki bizidunak
16:14 Kantari
16:44 Berriak
17:17 Marrazki bizidunak
17:47 Ipupomamua
18:17 Onein
18:45 Berriak
19:20 Kantari
19:47 Magazinea
20:47 Gipuzkoa kultura
21:17 Magazinea
22:17 Berbetan
22:49 Magazinea
23:49 Bertso saioa

ARRASATE IRRATIA

Arrasate Zero Zabor-eko kideekin elkarrizketa

Arrasate Zero Zabor taldekoak izango ditugu 107.7ko uhinetan. Beraiek kontatuko digute Zero Zabor taldearen ideiak zeintzuk diren, zein helburu dituzten eta beste hainbat kontu. Hori, eguaztenean izango da goizeko 10:30ean Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioan.

'Screaming Targets' musika taldea ikusteko sarrerak zozketan

Kooltur ostegunak egitasmoaren barruan, *Screaming Targets* taldeak emango du kontzertua gaztetxean eguen honetan. Lortu bertara joateko sarrerak Arrasate Irratian: deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera eta zorte ona izan.

G Puntua entzungai izango duzue eguaztenean, 107.7an

Bertsolaritzari eskainiko diogu tarte bat beste behin 107.7ko uhinetan. Hori eguaztenean izango da 19:00etako albiste-giaren ostean eta zapatuan 15:00ean errepikapena entzuteko aukera izango duzue. Beraz, aste honetan ere ez hutsik egin eta hortxe izan bertsolaritza saioa entzuten, 107.7an.

TELE-ALBISTEAK

Zuen lokalak erakusteko saioa proposa ETB-3n

'Lokaleroak' saioan sari potoloak daude jokoan eta parte hartzea oso erraza da

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

ETB-3k estreinatu berri duen *Lokaleroak* saioa lokal bila dabil. Zuen lokala telebistan erakustea nahi duzuela? Bada, ETB-3ko *Lokaleroak* saioan duzue horretarako aukera proposa.

Orain arte hainbat gazteren lokalak erakutsi dituzte saioan: besteak beste, Gernikan, Legazpin eta Deustun izan dira eta bertako gazteen koadrilak eta lokalak ezagutu ahal izan ditugu. Datozen asteetan, baina, Euskal Herriko txoko gehiagora iritsi nahi dute ekoizleek eta horretarako prest

dauden gazte saltzero bila dabilta ekoizleak.

Beraz, lokalak dituzten gaztetxo guztiei saioan parte hartzera animatzen dituzte.

Gainera, saioak izan duen arrakasta ikusita, gazteak animatu eta lokal gehiago bisitatze-ko gogoia piztu zaie ekoizleei. Horregatik, zuen lokalak erakustera animatzen zaituztete.

Hartu parte

Parte hartzea oso erraza da; lokaleroak@eitb.com helbidera mezu bat bidaltzen duten guztiek



Gazteak lokal batean. | EIBAR.ORG

Harremanetan jartzeko idatzi lokaleroak@eitb.com helbidera

harremanetan jarriko dira. Bertan zuen lokala non dagoen, zenbat gazte osatutako koadrila zaretan eta harremanetarako telefono zenbaki bat besterik ez duzue jarri behar. Gainera, aste-oro, irakurleek Euskal Herriko

lokalik dibertigarrienak aukeratu dituzte eta irabazleak sari potolo bat eramango du etxera.

Animatu eta erakutsi zure lokala ETB-3ko *Lokaleroak* saioan, sari potolo ugari daude jokoan eta!

ZORION AGURRAK



OÑATI
Kepa Irizar Freire
Azaroaren 6an, 5 urte.
Zorionak eta urte askotarako, pittitto. Ondo pasatu zure egunean eta muxu asko jaso danon partetik.



OSINTXU
Maddi Arando Arbelaitz
Azaroaren 6an, 4 urte.
Zorionak eta txokolateko muxu handi bat etxekoan partetik. Ondo pasatu eguna.



ESKORIATZA
Gentzane Andetxaga Korujo
Azaroaren 5ean, 7 urte.
Zorionak, printsesa! Ondo pasatu zure egunian. Patxo potoloak aita, ama eta bereziki Oinatzen partetik.



ARRASATE
Laia Etxagibel Ruidiaz
Azaroaren 5ean, 3 urte.
Zorionak eta muxu handi-handi bat etxekoan partetik.



OÑATI
Axier Anduaga Larrea
Azaroaren 6an, 7 urte.
Zorionak, txapeldun! Ane, amatxo eta aitaxoren partetik. *Super ondo* pasatu zure eguna.



ARRASATE
Oier Guzman Orobengoa
Azaroaren 4an, 4 urte.
Zorionak, pirata! Muxu goxo eta besarkada handi bat aitaxo, amatxo eta Jokinen partetik.



OÑATI
Ekain Gereñu Arregi
Azaroaren 4an, urtebete.
Zorionak, Ekain! Muxu potolo bana etxeko guztien partetik zure lehenengo urtebetetzearan.



BERGARA
Josu Martinez Loiti
Azaroaren 4an, 7 urte.
Zorionak, *Superman*, etxekoan partetik eta oso ondo pasatu. Aupa Baskonia eta Erreal!



ARRASATE
Garazi Azkarate Ojanguren
Azaroaren 4an, 3 urte.
Zorionak, etxekoan partetik! Lide, amatxo, aitaxo, lehengusu Oihan eta Hegoi, aitaita-amamak eta osaba-izebak.



ARRASATE
Yoli Matilla Urrutia
Azaroaren 3an, 42 urte.
Zorionak, *guapisima!* Kontuz azarokoekin! Ederto ospatu eguna, *rubia*. Besarkada eta belarri tirakada handi bat eta kiloka muxu potolo laguntxo guztien partetik. Patxoak, printzesa, eta jarraitu horrelakoa izaten!



ARRASATE
Maider Frutos Uribe
Azaroaren 3an, 7 urte.
Zorionak, preiox! 7 urte jada gure neska! Patxo handixa etxekoan partetik.



ESKORIATZA
Goiatz Arana Larrañaga
Datorren azaroaren 3an 6 urte egingo ditun neska polit honi bere guraso, familiako eta lagunok urtebetetze eder bat opa diogu; izugarri maite zaitugulako. Muxu handi-handi bat.



ARRASATE
Nagore eta Aimar Garitaonandia
Azaroaren 3an, 8 urte. Zorionak etxekoan partetik. Ondo pasatu eta okerrak izen!



ARRASATE
Haizea Fernandez Loiti
Azaroaren 1ean, 18 urte.
Zorionak, *Bokas!* Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat, alproja!



ARRASATE
Lier Escobar Aperribai
Azaroaren 1ean, 5 urte. Zorion mordo-mordo bat zuretako. Egun berezi hau zure familia eta lagunen artean ospatu deizula. Patxo potoloak zuretzat!



ARRASATE
Nora Lana Ibane
Azaroaren 1ean, urtebete. Zorionak eta patxo handia etxeko danen partetik.



BERGARA
Ane Jauregi Elorza
Urriaren 31n, 4 urte.
Gora gure Marimatraka! Zorionak eta urte askotarako, Ane, etxekoan eta laguntxoan partetik. Pa, pa eta pa.




BERGARA
Jokin Alberdi Garitano
Urriaren 31n, 2 urte.
Zorionak etxeko bihurriari! Bi urte! Muxu eta besarkada handi bat etxeko guztien partetik. Zure anaia Gorka eta lehengusu Mikel, Sara, Alaitz eta Beñat. Muxu potolo bat. Ondo pasatu.



OÑATI
Enzo Elizburu
Urriaren 31n, urtebete.
Zorionak, potxolo! Dagoeneko urtetxo bat! Ondo-ondo pasatu eguna eta segi horrelako alai eta pozik! Muxutxu asko etxeko guztien, baina bereziki, Marioren partetik.



ARETXABALETA
Nerea Zubizarreta Pedregal
Urriaren 30ean, 21 urte.
Zorionak eta urte askotarako zure aita eta amaren partetik. Muxu handi bat!



ARRASATE
Ibai Etxebeste Rodrigo
Urriaren 30ean, 8 urte.
Zorionak zuri, oparia guri... Jaso zure familia osoarengandik zortzinaka patxo; eta bai, opariak ere bai! Ondo-ondo pasatu zure egunean.



OÑATI
Uxue Egafía Azkargorta
Urriaren 30ean, 9 urte.
Zorionak, *Printzes!* Oñatiko neskatillaik politxenoi! Patxo handi bat eta oso ondo pasatu etxeko danon partetik.



ARRASATE
Saul Acha Bastida
Urriaren 29an, 7 urte.
Zorionak, txapeldun! Etxekoan partetik muxu handi-handi bat. Ama, aita eta Paulo.



OÑATI
Danel Gomez Barrena
Urriaren 29an, 2 urte.
Zorionak, potxolo! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi-handi bana familixa danan eta batez be Urkoren partetik.




OÑATI
Izar Ezkibel Bastida
Urriaren 29an, 3 urte.
Zorionak, potxola! Dagoeneko hiru urte in dittuzu! Patxo potolo-potolo bat etxeko danen partetik!



ANTZUOLA
Oier Aldasoro Azkarate
Urriaren 28an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat aitaxo, amatxo, bi amama, osaba, izeba eta lehengusu guztien partetik.



ESKORIATZA
Marisol Segovia
Urriaren 27an, 39 urte.
Zorionak, *guapisima*, eta urte askotarako. Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat lker eta Joserren partetik.



ARRASATE
Naia Etxabe Uribarren
Urriaren 26an, 9 urte.
Zorionak, maitia! Muxu handi bat etxeko guztien partetik!



OÑATI
Unai Zubia Agirre
Urriaren 24an, 2 urte.
Zorionak eta urte askotarako, potxolo! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu asko etxeko danon partetik.



ANTZUOLA
Gorka Manso
Urriaren 24an, urtebetetzea. Zorionak, *Mansini (Tergat)*, eta ondo pasatu eguna.



ESKORIATZA
Ekaitz Oñate Uribe
Urriaren 23an, 12 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunean! Ilargi, Zuhaitz eta amaren partetik.



ARRASATE
Txaro Azkarate Zabarte
Urriaren 22an, urtebetetzea. Zorionak, tia Txaro. Familiako guztien partetik.



ARRASATE
Koldo Zeziaga
Urriaren 22an, 7 urte.
Zorionak, Koldo! Ondo-ondo pasatu eta kontuz bizikletarekin. Familia guztiaren partetik musu handi bat.

Zorionak!

Internet
Sar zaitzez goiena.net atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu.
Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezu bat bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitzez GOIENAKO ordezkari bat.

JAIOTAKOAK



Suhar Esnal Gastesi

Getaria 3,800 kilo. Urriaren 23a. Gurasoak: Oihane eta Urtzi. Argazkian, Suhar gurasoekin.



Aratz Maeztu Elkoroberezibar

Bergara 3,860 kilo. Urriaren 23a. Gurasoak: Uxue eta Igor. Argazkian, Aratz amarekin.



June Alberdi Gallastegi

Bergara 3,390 kilo. Urriaren 21a. Gurasoak: Yoana eta Aitor. Argazkian, umea amarekin.



Noa Crespo Alonso

Aretxabaleta 2,850 kilo. Urriaren 22a. Gurasoak: Vanessa eta Carlos. Argazkian, umea gurasoekin.



Julen Quindos Lopez

Eibat 2,800 kilo. Urriaren 25a. Gurasoak: Vanessa eta Alex. Argazkian, Julen aita eta amarekin.



Itoitz Olaziregi Ruiz de Azua

Aramaio 3,270 kilo. Urriaren 26a. Gurasoak: Leire eta Iker. Argazkian, Itoitz sheaskan lo.



Ekain Jimenez Altzelai

Arrasate 3,040 kilo. Urriaren 26a. Gurasoak: Igone eta Rafa. Argazkian, Ekain gurasiekin batera.

BABESLEA



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	* Thailandia-ko hiriburua	Hazparneko	Hondo handikoa
	Tuberkulu mota	...gabe, eten gabe	Eskaini eta ez eman
	Toka, nazazu		
	Errota, bolua		
Adiurre onekoa	Afrikako estatua	Frantziako departamen.	
...-bat, batez ere	Lhasa du hiriburu	Alpamen	
			Bokala
Urruntzen ari zen			Gaixo
Jabe, besteekin batera			Bizkaiko kostaldeko herria
Pinu mota		Bi	
Erbinude zuria		Kontso-nantea	

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

A	R	I	Z	A	K
E	P	R	E	L	E
E	D	E	K	B	J
A	N	O	A	N	B
N	A	I	K	I	B
O	T	P	I	G	M
K	Z	N	A	Z	
A	T	A	T	P	
S	H	B			

A	R	I	Z	A	K
E	P	R	E	L	E
E	D	E	K	B	J
A	N	O	A	N	B
N	A	I	K	I	B
O	T	P	I	G	M
K	Z	N	A	Z	
A	T	A	T	P	
S	H	B			

6	9	2	8	1	4	5	3	7
6	9	2	8	1	4	5	3	7
7	4	6	1	2	9	3	5	8
5	6	7	9	8	1	2	4	3
2	1	9	4	3	7	8	6	5
8	3	4	6	5	2	1	7	9
4	5	8	7	6	3	9	1	2
1	7	3	2	9	5	6	8	4
6	9	2	8	1	4	5	3	7



Hieroglifkoa: Ane.

SUDOKUA

	9			4	5		7
		2	9	5		8	
	5		6		9		
8	4				1	7	
	1		3				
5		7	9				
	4		1	9			8
9			3	7			2
3							9


HIZKI SALDA

Topa itzazu Afrikako bost herrialde.

Z	A	B	U	A	J	S	E	S
K	J	E	M	O	R	O	K	O
E	N	K	L	L	O	M	A	X
G	A	L	I	B	I	A	O	Z
I	P	G	B	I	K	L	N	T
P	U	J	E	O	P	I	L	M
T	S	Z	R	R	T	A	B	M
O	A	G	I	F	Y	U	S	K
S	U	O	A	L	T	O	R	A

HIEROGLIFIKOA

Nor da neska hori?



AI, ENE!

Txoriek ere badute paseatzeko eskubidea

Jeneralean, txakurrak ikusten ditugu jabeekin paseatzen. Asmakizun horrekin, baina, txoriak ikustea ere ez da arraroa izango. www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Ez dago espainiarrik PSOE gura izateko besteko tontolapikoa denik"

ESTEBAN GONZALEZ PONS | PP-KO KIDEA

Egunak falta dira hauteskunde kanpainari hasiera emateko eta alderdiak hasi dira motorrak berotzen. Inoren alde edo kontra egiteko asmo barik, baina, hala-koak dira entzungo ditugun aurrerapena? Hala bada, tapoiak erosten joatea onena... www.elpais.com

EGURALDIA



Max. 22°

Min. 11°

Gaur hego haizea bueltan ibiliko da. Eguzkia berriro ere protagonista izango da. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2011-10-31

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Jon Maya Tradizioa eta modernitatea, betikoa eta berrikuntza batuta ezagun egin den Kukai dantza taldeko arima da Errenteriakoa: ikasketaz kazetaria; afizioz eta ofizioz dantzaria. | TXOMIN MADINA

"Dantza lengoaia bat da; forma bat edo beste har dezake"

1. Noiz pasa zen dantza afizio izatetik ofizio izatera?

Afizioa bada oraindik ere! Ofizio izatera duela bospasei urte pasa zen: lehen, dantza kazetari lanekin partekatzen nuen; gero, dantza irakasle lanekin; eta egun, horrela jarraitzen dut, konpainiako lanak gero eta denbora luzeagoa hartzen didan arren.

2. Dantzak ematen du bizitzeko?

Bizi gara, beraz... Egia da dantzari moduan bakarrik oso zaila dela. Baina, nire kasuan, zuzendari lanekin eta Errenteriako musika eta dantza eskolako irakasle lanekin batuz gero ematen du, bai.

3. Koreografoa ere bazara. Nondik hasi ikuskizun bat muntatzen?

Batzuetan bada hasierako ideia bat; beste batzuetan musika izan daiteke aitzakia; beste batzuetan gogoeta bat... Puzzle bat egitea bezala da: faktore asko hartu behar dira kontuan.

4. Dantza bidez edozein sentimendu edo ideia lan daiteke?

Zergatik ez? Lengoaia bat da, gauzak adierazteko lengoaia bat; forma bat edo beste har dezake.

5. Dantza tradizionala eta berrikuntza batzen dituzu; askok oso ondo hartzen ez duten ezkontza...

Gustu kontua da. Niri ere ez zaizkit gustatzen liburu, pelikula edo disko guztiak. Ez zaio garrantzi handirik eman behar; batzuetan pisu eta energia gehiegi jartzen dugu halako kontuetan.



JON POZO

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Gastatu egingo nuke"

"Gastatu egingo nuke makila! Gauza askotan erabiliko nuke: hipoteka kentzeko, etxebizitza eta lanpostuak ekartzeko, Euskal Herriko egoeran pausoak aurreratzeko.... Behar asko ikusten dut; gehiegi!"

6. Erraza da mutilak dantzara erakartzea?

Mediatikoki dantza ez dago beste gauza batzuen pare eta mutilek askotan kiroletara jotzen dute. Baina behin probatu eta ezagutzen denean, neska zein mutil izan, berdin-berdin gozatzen da.

7. Abeslari batzuek ahotsa aseguratzen dutela esaten da. Pentsatu duzu hankekin berdina egitea?

Ez dakit, egun, inork belauak aseguratuko ote dizkidan... Hankak gure lan-tresna dira eta egurra ematen diegu. Zaindu, buruarekin bai, baina praktikan...

8. Zazpi aldiz aureskuko txapel-duna izan zara. Dantzako Brasilen aurrean gaude?

Ezta inondik inora ere! Dantzari moduan hitzordu bat ziren txapelketak: joan eta kito. Ez zait gustatzen duena baino garrantzi handiagoa ematea. Baina ilusioz hartzen zen garaipena.

9. Zer galdetuko lioke Jon Maya kazetariari Jon Maya dantzariari?

Harrapatu nauzu! Herdoilduta nago kazetari moduan eta ez zait ezer bururatzen.

10. Noiz eskatu dizute azken bertsoa?

Ez dakit noiz, baina askotan eskatu izan didate. Askotan nahasten gaituzte: komunikabideetan, argazkiak jartzean, telefono deiekin... Lehen aldiz gazte topaketa batzuetan izan zen: trukaturata eman zizkiguten oroigarriak.

BIHARAMUNA

ELENA LAKA



Jobs eta garbigailua

Appleko Steve Jobs hil berriaren biografian kontatzen da nola etxeko garbigailua aukeratzeko, asteetan eztabaidatu zuten familian. Garbigailu hark, Jobsek diseinuarengaitik ere miretsi nahi zuena, goi teknologiako tresnak baino askoz ilusio gehiago egin omen zion.

Nik ez daukat iritzi argirik Jobsen ekarpenen garrantziari buruz. Apple ordenagailu txiki bat eduki nuen, duela hogeita urte, bigarren eskukoa, oso moñoñoa. Gehiago ez. Baina bai konpartitzen dut Jobsekin garbigailuak sortzen didan mirespena. Garbigailu automatikoa eta antisorgailuak, mugarri izan dira emakumeon askatasunean

Gurean ez genuen asteetan eztabaidatu garbigailua aukeratzeko. Aurrekoa hondatu, etxetik berrehun metrora zegoen dendara joan, eta hamar minututan berria erosi nuen. Saltzaileak irribarre egin zidan: ezagun da garbigailua hondatuta daukazula eta berri baten premian zaudela.

Garbigailuaren premia, eta garbigailua aukeratzeko denbora xahutzeko asmorik ez. Horra zergaitik nik hamar minutu eta Jobsek aste asko. Horregaitik ez daukat Jobsen inguruko iritzi garbirik: gure premiak eta lehentasunak zeharo desberdinak ziren.

ION ZORUAK LEIHOAK ATEAK HORMA ARMAIRUAK
leihoak

ARRASATE
Telleria kalea 4 • Pab. 11
Aramaioko bidea
(Markulete Ind. inguruan)
Tel.: 943 79 11 35

GASTEIZ
Olagibel 51
Tel.: 945 25 71 73

KÖMMERLING®

K21
KALITATEA

PRODUKTU BERRIAK

